

MUGARRIAK

AIARALDEA 2022



AIARALDEA

KOMUNIKABIDE
FAKTORIA

Grafik

Marka-identitatea/
Seinaletika/

Produktu korporatiboa/

info@grafiksarea.com
94 672 65 43

Telleria, 2. 01400, Laudio

grafik.eus

KO MU NI- KA

*Zure komunikazio
agentzia integrala*

KOMUNIKAZIOA
DISEINU GRAFIKOA
IKUS-ENTZUNEZKOAK
ITZULPENGINTZA ETA
INTERPRETAZIOA
PUBLIZITATEA

Bisitatu gure
webgune BERRIA!



FAKTORIAN/ Laudioko industrialdea 4-5
info@komunika.eus · www.komunika.eus · 946 56 85 54

Jarrai
gaitzazu!



Itzulera

Izar Mendiguren Cosgaya

Aiaraldea Komunikabideko zuzendaria

Denboraren makina ez da sekula geratzen. Erlojuen orratzak josten ditu gure eta eskualdeko bizitzak. Zernahi gisaz, urte berezia izan da 2022a, itzulera ugari utzi baititu. Koronabirusak eragindako pandemia medio, azken bi urteetan etenda geratu ziren zenbait ekimen, baina "normaltasunak" kaleetara itzuli ditu. Horien artean daude jaien prestaketa eta ospakizunak, edota 22. Korrika.

Kultur edo kirol elkarten jarduerak ere bi urteko pausaldiaren aurreko taupada berreskuratu dute. Arrakastatsu eman diote buelta mendi lasterketek, Urduñako museoak edota balio feministak aldarrikatzeko Otsemeaken Akelarreak. Aiaraldea Komunikabide Faktoria guzti horren lekuko izan da, eta herritarren ekimenez zein bailarako gertakizunez aletu du 'Mugarriak 2022' argitalpena beste urte batez. Hala, urteak utzitako mugarriak topatuko dituzu ibilbide historiko honetan, arlorik arlo, tantaz tanta.

Sorioneku da gure bailara euskara horrenbeste eremutara zabaltzeko aukerak sortzeagatik. Hezkuntzatik harago, 22. Korrika izan da horren lekuko. Aurtengo edizioak, gainera, Amurriotik Donostira izanik, Euskal Herriko mapan altxor preziatu bihurtu du Amurrio. Lehenbiziko metroak Amurrioko AEK-ko kideek egin bazituzten ere, ugari izan dira azken hamarkadetan euskararen normalizazio eta erabileraren alde pausoak egitera animatutako herritarrak. Hitzekin, hitzez eta ekintzaz bete zituzten erdiguneak eta bazterrak; Amurriotik Artziniegara, edota Okondotik Arrankudiaga-Zollora. Euskararen udaberriari, udazkenean Euskaraldiak hartu dio lekukoa, etenik ez duen bidean.

Bidenabar, industutako lurrek ere utzi dituzte historia-aztarnak. Urduñako hilerrian frankismo garaiko presondegiko hilotzak ateratzetik, Laudioko Ermualden Guda Zibila antzetera. Artiach eta Superberriakeko grebak, Madres Mercedarias eta Vidralako langileen mobilizazioak... sozioekonomiak ez ditu txanponak bakarrik mugitu. Aiaraldea Komunikabide Faktoria aipatutako zertzeladen zein bestelako ekimenen bozgorailu izan da 12. urtez, informazioa denon eskutik denon eskura jartzen. Eta ohartzera, tik-tak, tik-tak... tok-tok! Ate joka dugu urte berria. Izan dadila aurtengoa bezain bizia eta koloretsua denontzat.

Argitalpen data: 2022ko abendua · **Inprenta:** Graficas Irudi · **Tirada:**

2.500 ale · **Lege gordailua:** BI-1230-2013 · **Azala:** Aimar Gutierrez Bidarte **ekoizpena:** Txabi Alvarado Bañares, Izar Mendiguren Cosgaya, Aimar Gutierrez Bidarte, Aitor Aspuru Saez, Iera Garaio Ibarrola, Maialen Ginea Aginako, Jone Gartzia Gerra, Allende Solaun Boada.

Esker bereziak: Aiaraldea Kooperatiba Elkarteko bazkide guztiei



Aurkibidea

Hezkuntza

Kronologia	8-9 or.
Erasmus+ programa	10-11 or.
Jolastokien eraldaketa	12-13. or.

Kirola

Kronologia	16-17. or.
Kirolarien mugarriak	18-23. or.

Kultura

Kronologia	26-27. or.
Kultur sortzaileen gida	32-37. or.
Iritzia	37. or.

Sozioekonomia

Kronologia	40-41. or
Krisi energetikoa	42-43. or
Iritzia	44-45. or
Lan gatazkak eta prezioen gorakada	46-49. or

Euskara

Kronologia	52-53. or.
Erabilera datuak aztergai	54-55. or.
Hizkuntza eskakizunaren epaia	56-58. or.
Iritzia	59. or.

Jendartea

Kronologia	62-63. or.
Artzniegaren 750. urteurrena	64-65. or.
Iritziak	66-67. or.

Politika

Kronologia	70-71. or.
Laudioko politika instituzionala	72-79. or.
Amurrioko politika instituzionala	80-87. or.
Urduñako politika instituzionala	88-95. or.
Aiarako politika instituzionala	95-103. or.
Okondoko politika instituzionala	104-111. or.
Orozkoko politika instituzionala	112-115. or.
Arrankudiaga-Zolloko politika instituzionala	116-121. or.
Arakaldoko politika instituzionala	122-127. or.
Artzniegako politika instituzionala	128-130. or.



Jolastokien metamorfosia

COVID-19aren pandemiak aldaketa ugari ekarri zituen eskualdeko ikas-tetxeetara. Horietako batzuk bertan behera geratu dira dagoeneko. Beste batzuk, aldiz, geratzeko etorri direla dirudi. Jolastokien eraldaketa da horietako bat. Hainbat hezkuntza zentroetan ekin diote naturarekin harreman-duagoak egongo diren patioak eraikitzeari. Argazkian, Urduñako Herri Ikas-tetxean egiten ari diren eraldaketa prozesuaren irudi bat.

Argazkia: Aimar Gutierrez Bidarte



URTEMUGA ESANGURATSUAK

AIARALDEKO HEZKUNTZA KOMUNITATEAN

APIRILA



Carlota Oteo Gorostidi

La Milagrosaren mendeurrena ospatu dute

100 urte bete ditu aurten Laudioko La Milagrosa Ikastetxeak. Hori ospatzeko, jarduera ugari egin ditu bertako hezkuntza komunitateak, urtearen lehen erdialdean, batez ere. Ikasle eta irakasle ohien topaketak izan dira ekimenik jendetsuenak.

Mendiko Eskolan lerro bat desagertzearen aurka kalera

Elkarretaratze jendetsua egin zuten ekainean Amurrion, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak Mendiko Eskolako lerro bat itxi nahi zuela salatzeko.



EKAINA

LAUDIO IKASTOLA ETA LA MILAGROSA IKASTETXEEN URTEA IZAN DA HONAKOA, 50 ETA 100 URTE BETE BAITITUZTE, HURRENEZ HURREN; BAINA, BESTELAKO EKIMEN ETA GATAZKA BATZUK ERE EGON DIRA HEZKUNTZAREN ESPARRUAN.

ABENDUA

Greba hezkuntza publikoan

Aiaraldeko hezkuntza publikoko langileen erdiak baino gehiagok egin zuen bat ELA, LAB eta Steilas sindikatuek Hezkuntza Lege berriaren proiektuaren aurka deitutako grebarekin.



Laudio Ikastolaren 50. urtemuga ospatu dute

Ekimen ugari egin dituzte Laudio Ikastolaren mende erdiko ibilbidea ospatzeko. 400 ikasle eta irakasle ohi baino gehiago batu ziren ekainean eginiko topaketan.



Irañe Murias


Arrakasta izan du Urrifest jaiaren bigarren edizioak

Urrifest jaialdiaren bigarren edizioa egin zuen Urduñako Herri Eskolako guraso elkar-teak, 2020 eta 2021 urteetan txosnarik ezin jartzeak eragindako hutsunea betetzeko. Jende ugari bildu zuen ekimenak.

S autocares **Sobron**

**Etxeko txiki-
en ametsak gerturatzeko**

Udalekuak
Barnetegiak
Eskola Garraioa
Txangoak
Kirol Taldeak
Aisialdia
Kanpamentuak



Erasmus+

Aiaraldea eta Europa arteko zubia



ESKUALDEKO HAINBAT IKASTETXEK ELKARLAN ZABALA GARATU DUTE EUROPAKO BESTE HEZKUNTZA ZENTRO BATZUEKIN, ERAMUS+ PROGRAMAREN BIDEZ.

Testua: Aitor Aspuru Saez

Argazkiak: Eskualdeko ikastetxeak

Eskualdeko hiru ikastetxek garatu dituzte aurten Erasmus+ programaren proiektuak. Audio BHI, Zaraobe BHI eta Amaurre Ikastetxea izan dira hezkuntza zentro horiek eta horri esker dozenaka gaztek Europako hainbat herrialde bisitatu dituzte. Halaber, kanpoko bidaiariak ere egon dira Aiaraldean, egitasmoaren laguntzarekin.

Zehazki, Erasmus+ ekimenak Europako ikasle eta irakasle anitzak jartzen ditu harremanetan lau ardatzen bitartez: ingurumena, inklusibitatea, demokrazia eta teknologia berriak. Nerabeek zein irakasle horiek guztiak aintzat hartu behar dituzte irizpide horiek euren proiektua lantzean, helburu gisa zein bidean. Europar Batasunak finantzatzutako programaren alde-rik erakargarriena, zalantza gabe, parte hartzaileei bidaiatzeko pa-

rada ematen diela da. Esaterako, Zaraobe BHIko ikasleak Mazamet herrian egon ziren, Okzitanian, eta Toulouse eta Carcassonneko inguruak ere ezagutu zituzten.

Bestalde, Amaurre Ikastetxeko proiektuak 'Save our second language' izena izan du eta bi hizkuntza dituzten lurraldeak jarri ditu harremanetan. Horrela, amurrior-rrak Malta eta Finlandia ezagutzen egon dira aurten. Maltaan astebate igaro zuten uharteko hegoaldeko Gudja herrian. Goizetan eskolara joaten ziren gainerako herrialdeetako ikasleekin batera. Bertan, hainbat jarduera egin zituzten, tokiko kultura ezagutzeko, besteak beste. Mediterraneoko irla ezagutzeko aukera ere izan zuten; hala nola Valletta, Mdina eta Marsaxlokk herriak, baita bertako hondartzak eta ingurune naturala ere. Finlan-

dian, ordea, hango hizkuntza ez ezik, ohitura bitxiak ere ezagutu zituzten: saunan sartzea eta jarraian ur izoztuetan murgiltzea, adibidez. Maiatzean, Amaurre Ikastetxeak Finlandia, Malta eta Irlandako 22 ikasleri eta 13 irakasleri egin zien ongi etorria eta astebatez euskal kultura buru-belarri sartu zituzten.

Audio BHIk, ordea, ingurumenean zentratu du bere programa. Zehazki, garapen jasangarrian oinarritutako egitasmoa landu dute (institutuan bertan ortua eginez) eta Italiako Mantova hiria eta Greziako Trikala udalerrria bisitatu dituzte. 2023an, aldiz, Lituaniara bidaiatuko dute, baina aurtengo urrian Laudiori egokitu zitzaion bisitariak hartzea. Añana, Bilbo, Galindo eta Gernikara eraman zituzten programako kideak, besteak beste.






GURE LEHENTASUNA, ZURE HAURREN IKUSMENA

MIOPARAKO BETAURREKOAK ETA LENTILAK




Gasteiz, Audio, Amurrio, Zalla eta Urduña



www.luyandoopticos.com



Jolastokien eraldaketa

iritsi da Aiaraldeko
ikastetxeetara



JOLASTOKIEN DISEINUA GOITIK BEHERA ERALDATZEKO ASMOZ, AZKEN URTEAN PROZESU PARTE-HARTZAILEAK JARRI DIRA ABIAN AIARALDEKO HAINBAT HEZKUNTZA ZENTROTAN.

Testua eta argazkia:
Aimar Gutierrez Bidarte

Gizartea artikulatzen duten baliok eragin zuzena dute espazioak diseinatzerako orduan, eta eskoletako jolastokiak ere errealitate horren isla zuzena dira.

Aiaraldeko ikastetxe askok, pre-misa horri eutsirik, eraldaketa sakona abiatu dute ikasleen atsedenaldirako zein heziketarako hain funtsezkoak diren espazioetan. Etxaurren Ikastolak, Zabalekok edota Laudio Ikastolak antzeko prozesuak garatu dituzte azken urtean, beti ere erabiltzaile nagusiak izango diren horien iritzia aintzat hartuta: ikasleak. Prozesu parte hartzaileen bidez ikasleen behar eta nahietara egokitutako sorkuntza prozesuak garatu dituzte, besteak beste, jolastokietatik genero-hierarkiak ezabatzeko helburuarekin.

Laudioko Lamuza Eskola da jolastokiaren eraldaketan murgildu den eskualdeko ikastetxeetako bat. Kokoriko Hezkuntza Faktoriaren eta Hiritik At elkartearen laguntzaz “hezkuntza komunitate osoaren babesa eta konplizitatea” bilatu dute “jolastokiaren paradigma” zeharo aldatzeko asmoz.

Permakultura ardatz

Urduñako Herri Eskolako jolastokia da eraldaketa sakonena burutzeko bidean dagoena. El Globus Vermelleko kideekin batera, hiru urte daramate proiektua garatzen eta, espazioaren eraldaketatik harago, prozesu pedagogikoak ere eraldatu nahi dituzte.

Permakultura ardatz, hainbat eraikuntza ekologiko baliatu di-

lituzte azken ikasturtean jolastokia birnaturalizatzeko. Emaitzak agerikoak dira, haurrak eraldaketaren protagonista izan dira, eta orain nekez ikus daitezke ikasleak asfaltozko zelaian jolastuten.

Baina eraldaketarik sakonena oraindik etortzeke dago. Ikasturte honetan asfaltozko jolastokia altxatuko dute aire libreko ikasgela handi bati, agora espazio bati eta berdegune berri bati bide emateko. Obraren lizitazioa egin berri dute, eta urte honetan abiatuko dituzte lanak.

Birnaturalizazio horrek jolastoki berri bat ez ezik, prozesu pedagogiko berriak abian jartzeko orubea eskaini dio eskolari, haurren hezkuntza prozesua inplementatuz.



75 urte zurekin



PADI PROGRAMA



INPLANTEAK



3D ERRADIOGRAFIAK

Skate parken igoera

Gorakada nabarmena izan du patinatzearen eta BMX bizikleten zaletasunak Aiaraldean, 2020ko konfinamenduaren ostean. Aurten skate pista berriak atondu dituzte Laudion eta Amurrion, eta topaketa jendetsuak egin dira bi herrietan, puntako kirolarien parte hartzearekin. Artziniegan ere antzeko azpiegitura bat eraiki nahi dute. Argazkia: Andima Errazti





PROBA HANDIEN

ITZULERA, MUGARRI NAGUSI

OTSAILA

Quidditch txapelketa Reforren

Inauteri Kopa antolatu zuen Euskadi Quidditch elkarteak otsailean Amurrioko Refor industriaguneko kirol azpiegiturretan. Antolatzaileek egokitzen jo dute ekimenak izandako harrera zabalera, dozenaka lagunek parte hartu baitzuten topaketan, eskualdeko zenbait lagun tartean.



Aiaraldean lehiatu zen Itzuliaren 3. etapa

Itzuliaren 3. etapa lehiatu zen apirilaren 6an Aiialdean. Ozekako gaina izan zen lasterketako puntu beroetako bat, eta dozenaka zale elkartu ziren bertan. Pello Bilbao gernikarra izan zen Amurrioko helmuga gurutzatzen lehena.

MARTXOA

173 parte hartzaile Aiarako Biraren XXXII. edizioan

173 txirrundulari gaztek hartu zuten parte Aiarako Biraren XXXII. edizioan. 6 etapa egin ziren guztira, eskualdeko hainbat herri bisitatuta. Andrey Steitsiv gailendu zen sailkapen orokorrean.

APIRILA



AIARALDEKO KIROL KOMUNITATEA BERE OHIKO JARDUNERA ITZULI DA AURTEN, PROBA ESANGURATSU ETA JENDETSUENEN ITZULERAREKIN.

EKAINA



Parapente topaketa ugari Aiaraldean

Hainbat parapente topaketen lekuko izan da eskualdea aurtan. Apirilean Bizkaiko Txapelketa lehiatu zen Orozkon. Irailean, al-diz, Gorobel taldeak antolatu zuen topaketa izen bereko mendatean, eta 160 zaletu bildu zituen guztira.

Laudio, emakumezko xake jokalarien topaleku

Euskadiko emakumeen xake txapelketa jokatu zuten ekainean Laudion, Kasinoan. Horrez gain, Laudioko Xake Elkartek ekintza gehiago antolatu zituen norgehiagokak iraun bitartean, jendea kirol horretara zaletzea helburu.

ABENDUA

Beotegiko bolatokia, berriz ere prest

Beotegiko bolatokia inauguratu zuten urrian. Hainbat hilabete igaro zituzten 1919an erakitako azpiegitura birgaitzen, eta egun osoko egitaraua prestatu zuten kirol-espazioaren berriekiera ospatzeko.



Ricardo Bilbao

Proba handiak itzuli dira Aiaraldera

Trail lasterketak, duatloiak, mendi martxak... pandemiaren ondoriozko neurriak bertan behera uzteak kirol egutegia berrezarri du Aiaraldean. Ezin dira lerro gutxi batzuetan laburtu egondako zita jendetsu guztiak.



URRIA

Hainbat mugarri

erdietsi dituzte

Aiaraldeko kirolariek



Tasio Martin

Tasio Martin mendizale eta alpinista urduñarrak Mendiko Lagunak Beka eskuratu zuen urte hasieran espedizio txundigarria egiteko Himalayan. Horretarako, Indiara jo zuen udan eta azaroan azaldu zituen bere bizipenak Mendi Jardunaldietan. Alpinista gazteak hainbat bide berri zabaldu ditu Kataluniako CTAC teknifikazio taldearekin batera orain arte inork igo gabeko tontorretara. Horien artean dago Marc Torallosekin batera Punta Guillem Aparicio izendatu zuten mendira egindako 'Txoria-txori' (740m, 7a+) bidea.



Uxue Tome

Bilboko Bisons kirol elektroniko taldeko langilea da Uxue Tome eta buru-belarri murgilduta dago Internet bidezko bideojokoen txapelketak sustatzen. Bereziki, World Of Warcraft-eko Superliga. Audioarrak aitortu bezala, Gerard Piquek eta Ibai Llanosek taldea sortu eta lehiaketa horretan sartu zirenetik, gorakada izan du kirol birtualak ikusleei dagokienez. Bizkaiko hiriburuko taldeak parte hartze bikaina izan zuen udako sasoiaren eta orain udaberrikoari ekingo diote, talde berriei aurre eginda.



Arrietta Ruiz Goiri

Gazte orozkoarrak Madrilera jo zuen irailean Espainiako Hezte Klasikoko Txapelketan lehiatzeko, esperientzia berri bila, eta, azkenean, zilarrezko domina eskuratu zuen. Ezustean harrapatu zuen arrakasta horrek, baina aste gutxi geroago, nahiz eta finala baino lehen marka onena ez izan, bere trebeziak garaipena eman zion Hezte Klasikoko Federazio Kopan, Esferico zaldiarekin egindako lan onaren saria. 12 urteko amazonak oso pozik bukatu du urtea, entrenamenduen emaitzak jasota.

KIROLAREN MUNDUAN MURGILDUTA DAUDEN HAINBAT AIARALDEAR NARBARMENDU DIRA AURTEN. HORIETAKO BATZUK GARAIPEN ESANGURATSUAK LORTU DITUZTE, BAINA EGON DIRA BESTELAKO LORPENAK ERDIETSI DITUZTENAK ERE.




Eneko Banderas

Laudioko motor gidaria Espainiako estatuko XZ Cup Txapelketako irabazlea izan zen, denboraldi gogorraren ostean. Hain zuzen, lasterketa perfektua egin behar zuen azken proban, lehengo postuan sailkaturik zegoena gaingidatzeko, eta nahiz eta matxurak izan, marka onena lortu zuen Aragoiko Motorland zirkuituan. Iaz hasiberrien kategorian aritu ostean, aurten amets guztiak bete ditu laudioarrak, Montmelónen edo Alcañizen 295 kilometro orduko abiadura hartuta.



Urko Ruiz

Espainiako Gazte Selektzio Txapelketako brontzezko domina erdietsi du Urko Ruiz Larizgoitia hockey jokalaria laudioarrak Euskadiko Selektzioarekin, 18 urtetik behar koen kategorian. Urriaren 29tik azaroaren 1era bitartean izan zen lehiaketa, Madrilen. Lau gol sartu zituen bost partidatan, selektzioko 'pitxitxien' taularen buru bihurtuta. Asturiasen eta Madrilen aurkako multzoko partidetan, txapelkun izan den Kataluniako taldearen aurkako finalerdian eta Andaluziaren aurkako 3. eta 4. posturako partidatan markatu zituen golak.



Iزارo Blanco

Iزارo Blanco munduko txapelketa izan zen urrian Kick Boxingeko Light Contact diziplinan eta bigarren postua eskuratu zuen Kick Light-en. Italiako Jesolo hirian lehiatu zen txapelketa eta orozkoarra pozik geratu zen ez bakarrik emaitzekin. Izan ere, oso modu lasaian borrokatu zen, beste garai batzuetako urduritasuna alde batera utzita. Gazteak, edonola ere, ez zion berebiziko garrantziarik eman lorpenari, hurrengo lehiaketetan jarri baitzen pentsatzen domina hartu bezain pronto.

Zaraobe Saskibaloia Klubeko senior taldea



Zaraobe Saskibaloia Taldeak denboraldi bikaina egin zuen eta horri esker 9 talde sartu ziren euren kategoriako lauko finalean. Tamalez, klubak ez zuen txapelketarik irabazi, baina kideek uste dute etorkizuneko proiektu sendoa prestatzen ari direla eta emaitza horiek helduko direla. Talde bakarra nabarmentzea zaila izanda ere, azpimarratzekoa da senior kategoriako taldeak Espainiako estatu mailan lehiatzen ari dela indarrean dagoen denboraldian.



Julen Latorre

Julen Latorrek urte bikaina bete du XCM Mendi Bizikletako diziplinan. Bi garaipe azpimarragarri izan ditu Aiara Txirrindulari Elkarteko Elite-Sub23 Aldapa Cycling Storeko txirrindulariak. Apirilean Espainiako XCM MBT Kopako txapeliduna izan zen Astorgan, eta handik eta urte erdira Euskadiko txapeliduna izatea lortu zuen. Hala ere, garaipe horiek baino garrantzitsuagoak dira berarentzat Nazioarteko Txirrindularitzako Batasuneko lasterketak, puntuak eskuratzeko eta sailkapenean hobetzeko.



Oscar Acebedo

Irailean aniztasun funtzionala duten crossfit kirolarientzako Wodcelona nazioarteko txapelketan partu hartu zuen eta nahiz eta Munduko Txapelketarako sailkapena ez lortu, oso positibotzat jo zuen esperientzia. Altxatu daitezkeen aulki gurgilduneko lehiakideen diziplinan egon zen Bartzelonan. Kirol honetara heldu baino lehen, saskibaloian edota futboleko jokatu izan du eta orain crossfitean dago zentratuta. Hiru entrenamendu egiten ditu astero eta bere asmoa lehiatzen jarraitzea da.



Sarai Gandarias

15 urte baino ez ditu Sarai Gandariasek eta jadanik Alaves klubeko filialaren atezaina izan da. Kategoria horretako taldeak luia ondorrara deitu zuen jokalaria titularrak lesioa izan zuelako eta, horren ordezkoak ere mina hartu zuenean, Gandariasi egokitu zitzaion atean jartzea. Berez, bere taldea kadete kategoriakoa da oraindik ere, baina Euskal Ligan debuta egiteko balio izan dio egoerak. Amurrioko Etorkizuna, Laudioko Altxarrate eta Ugaoko klubetan aritu da gaztea Alavesera heldu baino lehen.



Susana Verde

Udan 40 urtetik gorakoen Munduko Hockey Txapelketa jokoan egon zen Ingalaterran, Nottinghamen, hain zuzen. Han aritu zen Susana Verde Menacho audioarra eta, gainera, bi gol sartu zituen aurrelari postuan. Motibazio horrekin hurrengo Europako Txapelketan egoteko helburua jarri dio bere buruari. Ganbegiko beteranoen jokalaria ez ezik, epailea ere bada Susana Verde Menacho eta Espainiako estatuan zein nazioartean ibilbide oparoa egin du txapelketa ugaritan. Izan ere, 25 urte egin ditu kirol honetan, hainbat ardurara betez.



Oscar Muñoz 'Joko'

10 urtez Sugarrak Saskibaloia Klubeko presidentea izan ondoren, audioarrak iragarri du aurtengo denboraldia azkena izango dela kargu horretan. Bere ibilbidearen balorazio oso positiboa egin du, erakundeari dagokionez: bere lehen denboraldian hiru talde baino ez zeuden, guztiak mutilek osatutakoak. 2022an, ordea, 16 talde ditu Sugarrak eta gehienak neskak dira. Dena den, Jokok onartu du maila pertsonalean urte gogorak izan direla, kudeaketa ez baita mugatu kirolera; harremanetara eta finantzaziora ere zabaldu dira bere ardurak.



Asier Beraza

Asier Beraza txirringulari arespalditzarrak emaitza bikainak lortu ditu aurtengo mendiko bizikleta diziplinan, kadete kategorian. Aiara Txirringularitza Elkarteak kidea Euskadiko Txapelketa izan zen Barakaldon, lasterketa irabazita. Dena den, hori ez da izan kirolari gazteak azken hilabeteetan eskuratu duen garaipen bakarra. Alegia, Euskadi Open-ean lasterketa ugaritan nagusitu zen eta gauza bera egin zuen Euskadiko Green Series-en. Gainera, bere entrenatzaileek nabarmendu dute errepedeko txirringularitzan ere primeran moldatzen dela.

KOPAS

IDEIAK GAUZATZEN DITUGU

Alda. Urkijo, 88 -2º
48013 Bilbao
kopas@kopas.es
Tfno. 94.442.22.24



Aialako Industrialdea, 8
01479 Murga - Aiara
fabrica@kopas.es
Tfno. 945.39.94.05

www.kopas.es

Trofeoak, **Kopak**, Txapelak, **Plakak**, Giltzatakoak, **Pin-ak**, Kamisetak, **Zapiak**, Amantalak, **Sukalkit**, Laser grabaketak, **Metakrilatoa**, Promozio artikulua, **Sari instituzionala**, Merchandising, **Grabatuak**, Taillaketak, **Bordatuak**, Estanzioak, **3D inprimaketak ...**

Juan Gardeazabal eta Rufino Mendia



Espainiako tiro txapelkunak izan dira Compak Sporting diziplinan Juan Gardeazabal eta Rufino Mendia. Zehazki, Gardeazabal beteteranoen artean izan da onena eta Mendia Handysport modalitatean, hau da, kirol egokitan. Aiaraldearek azaldu dute tiroa ez dela kirol erraza, zailtasun ugari baitaude: entrenatzeko pisten falta, praktika garestia dela, distantzia handiak egin behar direla trebatzeko eta lehiatzeko... Hala ere, oso gogoko dute biek. Gardezabalek 33 urte bete izan ditu lehiaketaz lehiaketa.



Itxaso Escondrillas

Lasterkari laudioarrak urte biribila bete du. Izan ere, ama izan ondoren, zenbait muga psikologiko eta fisiko gainditu ditu eta horrek urduritasuna eta presioa alde batera utzita lehiatzea ahalbidetu dio. Tenerifan eta Bragan lehiatutako Espainiako eta Europako 1.500 metroko Master Txapelketetan eskuratutako zilarrezko dominek erakutsi dute kalitate saltoa ematea lortu duela eta, bere ustez, erditzean sufritutakoan dago gakoa, orain pistetan pairatzen duen mina ez zaio hain gogorra iruditzen eta.



Thaylor Lubanzadio

Futbol profesionalean Espainiako estatuko hainbat klubetan jokatu eta gero, Thaylor Lubanzadiok abentura europarra abiatu zuen aurreko denboraldian eta Maltako Hibernians taldeko kide bilakatu zen. Uhartetako txapelketan erronka berriak izan ditu eta, besteak beste, berarentzat ezezaguna zen postuan aritu da, hegal batean. Emaizak, edonola ere, oso onak izan dira laudioarrentzat: Liga irabazi du, hamar asistentzia egin ditu eta klubak 2024ra arte luzatu dio kontratua.



Haizea Castresana

Haizea Castresana ibilbide meteorikoa egiten ari da futbol profesionalean epaile lanetan. Jadanik emakumezkoen ligako marrazaina da eta partida oso garrantzitsuetan aritu da. FC Barcelona eta Real Madrid taldeen arteko norgehiagoka klasikoan epaitu zuen pasaden denboraldian. Dena den, une gogorrak ere igaro behar izan ditu. Grebara jo zuen bere kideekin batera, baldintza duinak aldarrikatzeko eta gizezkoen eta emakumezkoen futbol epaileen arteko soldata arrakala murrizteko.



Iñaki Bea

Jose Luis Mendilibarren laguntzaila izan eta hainbat urtez futboleko 1. mailan aritu eta gero, Iñaki Bea amurriorarrak erronka handia onartu du Dominikar Errepublikan. Bertako hautatzaile izendatu dute eta selekzioa entrenatu ez ezik, herrialdeko kirol egitura ere eraldatu eta profesionalizatu behar du. Ideia berrieekin heldu da lanpostura eta emakumezkoen selekzioan erreferente indartsua topatu du; bere ustez, Munduko Txapelketa irabazi dezaketelako.



Gotzon Martin

Urte gogorra izan da Gotzon Martinentzat. Izan ere, Euskaltel taldeko kideak istripu larria izan zuen entrenatzen maitatzean. Lau aste igaro zituen ospitalean, eta horrek hainbat txapelketetik kanpo utzi zuen, baina aukera izan zuen Espainiako Itzulian lehiatzeko eta horri esker heldu zen Munduko Txapelketara eta Japan Cup-era. Munduko Txapelketan 11. postuan sailkatu zen taldeko burua eta Martinek 10. postua eskuratu zuen Japonian.



Javier de la Torre

20 urtez CD Orduñan jokatu eta gero, kapitain gisa utzi zuen futbola Javi de la Torrek. Berak aitortu duenez, ez da inoiz izan teknikoki trebea edo bereziki indartsua fisikoki, baina bere taldean beti izan du tokia eta kirolarekiko sentitu duen maitasuna kutsatu du. Tamalez, bere azken partidaren Senior taldea kategoriaz jaisten ikusi behar izan zuen. Baina, berak aipatu zuenez, garrantzitsua CD Orduñan ez da hori, baizik eta futbola bizitzeko aukera izatea.

Ziortza Gaydou eta Olaia Barinaga



Ziortza Gaydou Euskadiko txapelduna izan zen aurkaririk ez zuelako topatu, baina Espainiako Txapelketara heldu zenean, zilarrezko domina eskuratu zuen, zalantza guztiak argituta. Olaia Barinaga, bere aldetik, Euskadiko Txapelketan nagusitu zen eta gero Espainiakoan parte hartu zuen bigarren aldiz, nahiz eta, urduritasunaren ondorioz, ez zuen podiuma zapaldu. Biek umeak direnetik praktikatzen dute judoa eta pozik daude diziplina horretan, gogoko baitituzte giroa eta eskaintzen dituen irakaspenak.

Kulturaren aldeko erretratuak

Ekimen ikusgarria egin zuen Kulturlab egitasmoak azaroaren 26an. 313 laudioarren erretratuak itsatsi zituzten Laudioko Lamuza plazatik Kultur Etxearen sarreraraino doan bidean. *Inside out* nazioarteko proiektuari lotuta egin zuten ekimena, Lamuza Parkea "kultur parke" bihurtzea eskatzeko erakunde publikoetara. Argazkia: Luisan Garcia





OHIKO ERRITMOA BERRESKURATU DU KULTUR MUGIMENDUAK

OTSAILA

Akordia Artziniega Museoaren alde

Albiste positibo batekin hasi zen urtea Artziniegan. Hainbat hilabeteko prozesuaren ostean, akordia erdietsi zuten Artea etnografia elkarteak, Udalak eta Arabako Foru Aldundiak, Artziniega museoaren biziraupena bermatzeko.



Larra Bustingintzak 40 urte

40 urte bete ditu Larra Bustingintza elkarteak. Modu xumean ospatu dute, tailerrak Laudioko Kultur Etxeko obrak hasi zirenetik baitarama itxita. Erakusketa atondu zuten maiatzean elkar-teko kideen piezekin, eta hitzaldia ere egin zuten Blanca Gomez de Segura Zeramikako Euskal Museoaren zuzendariarekin.

Faktoria, euskarazko kulturaren epizentro

Aiaraldea Ekintzen Faktoriak kultur programazio oparoa osatu du urte osoan zehar. Urte hasieran izan zen emanaldi jendetsuena, Ines Osinaga eta Joseba Sarrionandiaren eskutik; baina hurrengo hilabeteetan ere ehunka lagun bertaratu dira kultur ekitaldietara.

MAIATZA



BI URTEREN OSTEAN, OHIKO ERRITMOA BERRESKURATU DUTE ESKUALDEKO KULTUR ELKARTEEK, ETA MUGARRI GARRANTZITSUAK ERDIETSI DITUZTE.

EKAINA



Aiaraldea, Esti Urresolaren lehen filma luzeko agertoki

Aiaraldean igaro du uda Esti Urresola Solagurenek, baina ez oporretan. Zinemagile audioarrak eskualdea hautatu zuen bere fikziozko lehen film luzea (*20.000 especies de abejas*) grabatzeko. Ermualden edota Amurrioko Udal Igerilekuetan aritu ziren, besteak beste. Horrez gain, Urresolak aitortza esanguratsu ugari jaso ditu Cuerdas film laburrarekin: Cannesezko jaialdian saritu zuten eta Goya sarietarako hautatua izan da.

Arrueren urtea

45 urte bete dira aurtan Jose Arrue margolaria zendu zenetik. Hori dela eta, urte osoko dinamika abiatu du Udalak, hainbat jarduera burututa: Arrueren muralak eta eskultura jarri dituzte, unitate didaktikoa osatu dute ikastetxeetan lantzeko eta hitzaldi zein erakusketak antolatu dituzte.

ABENDUA

Santa Luzia Abesbatzak 50 urte

Kontzertu berezia eskaini zuen Santa Luzia Abesbatzak Granja kiroledegian bere 50. urteurrena ospatzeko. Herriko beste musika eta dantza talde batzuk gonbidatu zituzten oholtzara. Horrez gain, egun batzuk lehenago, koralaren historiari buruzko dokumental-ala estreinatu zuten.



AZAROA

Indartsu itzuli dira herrietako jaiak

Bi urteko etenaldiaren ostean, indartsu itzuli dira Aiaraldeko herrietako jaiak. Aurtengo ospakizunak bereziki jendetsuak izan dira. Horrez gain, bestelako kultur ospakizunek ere euren tokia hartu dute berriz egutegian.



ABUZTUA

Kultur sortzaileen plaza ireki du Faktoriak



Aiaraldeko kultur sortzaileen plaza jaino berri da. Aiaraldea Ekintzen Faktoriak sortu du ekimena, eskualdeko sortzaileen saretze eta elkarlana sustatzeko helburuarekin. Atari digitala jarri du martxan horretarako, www.kulturfaktoria.eus helbidean. Bertan ekin diote Aiaraldeko Kultur Sortzaileen katalogoa osatzeari, eta 300 izen baino gehiago bildu dituzte lehen kolpean. Hurrengo orrietan ikusi daitezke guztiak. Baina Kultur Faktoriako kideek badakite zerrenda horri asko geratzen zaiola osatuta egoteko. Gauzak hala,

online galdetegi bat osatu dute (www.labur.eus/sortzailekatalogoa helbidean topatu daitekeena). Modu horretan, edozein herritarrek bidali dezake eskualdeko sortzaileei buruzko informazioa.

Hala ere, Kultur Sortzaileen Plaza ez da katalogo huts bat izatera mugatuko. Datozen hilabeteetan are gehiago garatuko dute atari digitala, eskualdeko sortuntza mugimendu guztia saretu eta balioan jartzeko helburuarekin, euskaratik eta euskaraz.

www.kulturfaktoria.eus

AIARALDEKO KULTUR SORTZAILEEN PLAZA SORTU DU AIARALDEA EKINTZEN FAKTORIAK. ESKUALDEKO KULTUR SORTZAILEEN EUSKARAZKO TOPAGUNEA OSATZEA IZAN DA HELBURUA. ATARI DIGITALA SORTU DUTE HORRETARAKO: WWW.KULTURFAKTORIA.EUS. BERTAN EKIN DIOTE KULTUR SORTZAILEEN KATALOGOA OSATZEARI, ETA 300 ERREFERENTZIA BILDU DITUZTE DAGOENEKO. GALDETEGI BAT ERE OSATU DUTE, HERRITAR OROK IZAN DEZAN SORTZAILEEI BURUZKO INFORMAZIOA BIDALTZEKO AUKERA.

Arte plastikoak

Aimar Gutierrez

Laudio (Ilustratzailea)

Aintzane Iturribarria

Artziniega (Arte plastikoak)

Aitziber Duarte

Laudio (Ilustrazioak eta zeramika)

Alejandro Quincoces

Artziniega (Margolaria)

Anabel Perez De Aguado Resa

Areta (Collagea / Performancea)

Ander Perez

Laudio (Arte kontzeptuala)

Andoni Diaz

Amurrio (Diseinatzailea)

Ane Ortega

Laudio (Moda)

Arantza Escondrillas

Laudio (Margolaria)

Aritz Fernandez de

Agirre Gomez

Laudio (Ilustratzailea)

Belen Herrero Alonso

Laudio (Margolaria)

Beñat Saratxaga

Laudio (Arkitektoa)

Casilda Marañon Calleja

Amurrio (Mozorro-diseinatzailea)

Eider Garcia Gomez

Amurrio (Diseinatzailea eta ilustratzailea)

Elene Urquijo Esparza

Arrankudiaga-Zollo (Ilustratzailea)

Fidel Largatxa Arze

Laudio (Zur lanketa, marrazkigintza, zeramika)

Floren Usia Barbara

Orozko (Ilustratzailea)

Gurene Grande Martinez

Orozko (Zeramika)

Hiru

Amurrio eta Menagarai (Arropa diseinua)

Ibai Labega Algoacil

Arrankudiaga-Zollo (Arropa diseinatzailea)

Iker Loidi Vadillo

Urduña (Komikigilea)

Iker Txabi Gauna

Amurrio (Arte plastikoak)

Ines Laresgoiti

Laudio (Ilustratzailea)

Inhar Minguez Astorika

Amurrio (Diseinatzailea)

Iraia Aspuru

Amurrio (Diseinatzailea)

Irati Rodriguez

Urduña (Margolaria)

Irene Izer

Amurrio (Ilustratzailea eta diseinatzailea)

Izaskun Alonso Saratxaga

Laudio (Pintura)

Jabi Isasi

Ilustratzailea (Aiara)

Jasone Pikatza Iturritza

Urduña (Margolaria)

Jose Maria Pinto

Artziniega (Margolaria)

Juan de Aranoa Udal Eskola
Artistikoa Amurrio

Juan Luis Abajo 'Porriño'
Urduña (Margolaria)

Jugatz Jiashang Larrakoetxea
Laudio (Komikigilea)

Julen Ussia
Amurrio (Arte plastikoak
eta zeramika)

Kepa Barañano
Laudio (Eskultorea)

Koro Arregi
Amurrio (Moda)

Larra Bustingintza
Laudio (Zeramika tailerra)

Laura Guerrero Lorenzo
Aiara (Argazkilaritza eta collageak)

Laura Lopez
Amurrio (Arte plastikoak)

Leike
Amurrio eta Menagarai
(Arropa diseinua)

Leire Orueta
Laudio (Ilustratzailea)

Leire Martin Curto
Amurrio (Komikigilea)

Leticia Ibarrola
Laudio
(Lepokoak eta belarritakoak)

Libe Blanco
Laudio (Moda)

Luis Maria Uriarte
Laudio (Arkitektoa)

Maialen Ginea Aginako
Urduña (Disenatzailea)

Marcos Rubio Gonzalez
Amurrio (Ilustratzailea)

Mario Paniego
Amurrio (Arte instalazioak)

Marta C. Dehesa
Amurrio (Ilustratzailea)

Mederi Ferreño
Laudio (Moda)

Mikel Lazkano
Orozko (Moda)

Montse Gonzalez Barredo
Areta (Margolaria)

Naroa Rey Gotxi
Artziniaga (Moda)

Nerea Apodaka
Laudio (Arte kontzeptuala)

Nerea Sanchez Sautua
Laudio (Poltsa diseinua)

Nora Latatu Landaluze
Orozko (Disenatzailea)

Oihane Barroso Leon
Laudio (Arropa diseinua)

Pedro Eguiluz
Urduña (Margolaria)

Peio Ureta
Artziniaga (Ilustratzailea)

Pepe Gartzia
Amurrio (Margolari eta olerkaria)

Raisa Alava
Amurrio (Ilustratzailea)

Ruben Lopez Ranero
Amurrio (Serigrafia eta diseinua)

Santiago Gonzalez Merino
Aiara (Zeramika)

Sharai Sola
Amurrio (Artista plastikoa
eta disenatzailea)

Sorpresa opariak
Amurrio (diseinu grafikoa
eta opariak)

Susana Corbella
Laudio (Zeramika)

Tanta Atelier
Amurrio (Eskuz egindako umeen-
tzako osagarriak)

Unai Velarde
Amurrio (Arte plastikoak)

Xabi Gorostiaga
Laudio (Disenatzailea)

Xabier Santxotena
Artziniaga (Eskultorea)

Yolanda Mosquera
Amurrio (Ilustratzailea)

Bertsolaritza

Aiaraldeko Bertso Eskola
Aiaraldea

Ainhoa Comas
Amurrio

Asier Rubio
Aiara

Begoñe Olabarria
Orozko

Iñaki Cabeza

Amurrio

Izar Mendiguren

Laudio

Juanjo Respalditza

Orozko

Julen Eizagirre

Amurrio

Potolari Bertso Eskola

Orozko

Serapio Lopez

Baranbio

Unai Mendibil

Amurrio

Antzerkia**Agurtzane Intxaurrega**

Orozko (Aktore eta zuzendaria)

Aimara

Amurrio (Antzerki taldea)

Egoitz Bernaola Luxa

Laudio (Atrezista)

Elene Allende

Laudio (Inprobizazioa)

Hiriska

Artziniega (Antzerki taldea)

Kaitin Allende

Okondo (Umoregilea)

Kuluxka

Orozko (Antzerki taldea)

La Familia Inventada

Laudio (Antzerki taldea)

Leyre Berrocal

Amurrio (Aktorea)

Mikel Ayllon

Laudio (Antzezle eta gidoilaria)

Miren Gaztañaga

Arakaldo (Aktorea)

Nerea Iglesias

Laudio (Aktorea)

Oihala Zabaltzen

Laudio (Antzerki taldea)

Pablo Ibarluzea

Laudio (Aktorea)

Siroko

Laudio (Antzerki taldea)

Susana Saguer

Laudio (Clown)

Yogurinha Borova

Laudio (Antzezlea eta transformista)

Dantza**Aiara Dantza Taldea**

Amurrio (Euskal dantza taldea)

Ainhize Solaun

Laudio (Dantzaria)

Akelarre

Laudio (Euskal dantza taldea)

Algarabia

Laudio (Flamenko dantza taldea)

Andere

Laudio (Euskal dantza taldea)

Andere Morillo

Amurrio (Dantzaria)

Baisala

Laudio (Areto dantza taldea)

Erauntsi dantza taldea

Urduña (Euskal dantza taldea)

Haizea Paris

Laudio (Dantzaria)

Iñigo Martinez

Laudio (Dantzaria)

Itxarkundia

Laudio (Euskal dantza taldea)

Izaskun Del Cerro

Urduña (Dantzaria)

Janire Etxabe

Arrankudiaga-Zollo (Dantzaria)

Laudio Wellness

Laudio (Dantza urbano taldea)

Leire Sanjurjo Garcia

Laudio (Dantzaria)

Nuria & Raquel akademia

Laudio (Dantza klasiko eta garaiki-de akademia)

Paula Urquijo Serrano

Laudio (Dantzaria)

Saydi Lubanzadio

Laudio (Dantzaria)

Untzueta

Laudio (Euskal dantza taldea)

Ikus-entzunezkoak**Ada Kusmierz**

Laudio (Websail ekoizlea)

Ager Mendieta

Laudio (Zinemagilea)

Agurtzane Intxaurreaga

Orozko (Aktore eta zuzendaria)

Andrea Sanchez Moreno

Laudio (Eduki ekoizlea Tik Token)

Ane Calleja

Laudio (Aktorea eta modeloa)

Ane Cuesta Morge

Arrankudiaga-Zollo (Zinemagilea)

Asier Martinez

Laudio (Eduki sortzailea Twitchen)

Carlos Varela Adalid

Artziniega (Zinemagilea)

David Gamboa Ortuzar

Artziniega (Zinemagilea)

Eneko Arcas Nogales

Areta (Aktorea)

Esti Urresola Solaguren

Laudio (Zinemagilea)

Fernando Moleres

Urduña (Argazkilaria)

Garazi Ureta

Artziniega (Argazkilaria)

Guiomar Puerta

Amurrio (Aktorea)

Ilargi Molinillo

Laudio (Aktorea)

Imanol Delgado

Amurrio (Bideo-joko garatzailea)

Iñigo Martinez

Laudio (Aktorea)

Iosu Vakerizzo

Laudio (Zinemagilea)

Janire Usategui

Amurrio (Argazkilaria)

Javi Gil

Laudio (Zinemagilea)

Javier Ruiz Lili

Urduña (Argazkilaria)

Jose Miguel Llano

Amurrio (Argazkilaria / bideogilea)

Jose Montes

Laudio (Argazkilaria)

Josu Zaldibar

Aiara (Argazkilaria)

Julen Zubiete

Orozko (Zinemagilea)

Kea Basaldua

Orozko (Aktorea)

Kepa Sojo

Laudio (Zinemagilea)

Kevin Iglesias

Amurrio (Zinemagilea)

Leire Larisgoitia

Laudio (Dokumental ekoizlea)

Leire Orueta Gomez

Laudio (Filmeetako arte saileko kidea)

Leo Alves

Laudio
(Argazki zuzendaria
web sailetan)

Leyre Berrocal

Amurrio (Aktorea)

Luis Vil

Amurrio (Zinemagilea)

Luisan Garcia

Laudio (Argazkilaria / bideogilea)

Maied Urrutia Parra

Zuhatza (Argazkilaria)

Mikel Bustamante

Amurrio (Zinemagile / aktorea)

Miren Gaztañaga

Arakaldo (Aktorea)

Natxo Sainz De La Fuente

Urduña (Entalonatzailea)

Nora Latatu

Orozko (Bideogilea)

Patxi Urkijo

Laudio (Zinemagilea)

Peke Jaen

Laudio (Argazkilaria)

Rafa Rivas

Laudio (Argazkilaria)

Ruben eta David Blyth

Arespalditza (Zinemagileak)

Ruben Ladron de Gebara

Laudio (Drona)

Salvador Castañeda Hernandez

Amurrio (Argazkilaria)

Urtzi Vera

Orozko (Argazkilaria)

Vicente Contreras

Amurrio (Argazkilaria)

Xabier Ramos Rodriguez

Okondo (Argazkilaria)

Zutoia Alarcia

Laudio (Aktorea)

Literatura

Aketza Merino

Amurrio (Idazlea eta historialaria)

Alberto Luengas Otaola

Amurrio (Idazlea)

Aletxu Zobaran

Saratxo (Idazlea)

Alexandra Ainz

Laudio (Idazlea)

Amado Gomez Ugarte

Laudio (Idazlea)

Andere Larrinaga Cuadra

Laudio (Idazlea)

Andoni Murga Santxoierto

Laudio (Ikerlaria eta idazlea)

Ane Basterra Markuartu

Laudio (Olerkaria)

Anne Valverde

Okondo (Idazlea)

Anuntxi Arana

Aiara (Antropologoa eta idazlea)

Arantza Alava

Urduña (Idazlea)

Boniface Ofogo

Laudio (Ipuin kontalaria)

Carmen Morillo Martin

Amurrio (Idazlea)

David Sanchez Garcia

Amurrio (Idazlea)

Egoitz Bernaola

Laudio (Idazlea eta ikerlaria)

Eneko Arcas Nogales

Areta (Idazlea)

Enrique Arberas

Amurrio (Idazlea eta biologoa)

Espido Freire

Laudio (Idazlea)

Felix Mugurutz Montalban

Laudio (Idazlea eta ikerlaria)

Haizea Urkixo Gorostiaga

Laudio (Olerkaria)

Idoia Sojo

Laudio (Idazlea)

Inma Diez

Amurrio (Idazlea)

Inma Roiz

Okondo (Idazlea)

Irene Llaguno Ibarretxe

Laudio (Idazlea)

Isa Diaz

Laudio (Olerkaria)

Jagoba Rey Gotxi

Artziniaga (Idazlea)

Jon Ander Martinez De Murguia

Amurrio (Idazlea)

Jon Galdos

Orozko (Idazlea eta abenturazalea)

Jose Manuel Toscano

Urduña (Idazlea)

Juanjo Hidalgo

Laudio (Historialaria eta idazlea)

Julen Ugido

Urduña (Idazlea)

Kepa Barañano

Laudio (Idazlea)

Kepa Fernandez

Urduña (Idazlea)

Leire Ugadi

Urduña (Olerkaria)

Lourdes Relloso

Laudio (Idazlea)

Luis B. Rodriguez Ibernía

Amurrio (Idazlea)

Maite Garcia Riobo

Urduña (Idazlea)

Maria Belen Andres

Laudio (Idazlea)

Maria Luisa Goikoetxea

Urduña (Idazlea)

Mikel Ayllon

Laudio (Idazlea)

Oskar Gonzalez Mendia

Laudio (Idazlea)

Patxi Iturregi

Laudio (Idazlea)

Pedro Ibarrola

Amurrio (Idazlea)

Roberto Dominguez Sanchez

Laudio (Olerkaria)

Sara Cabrera

Laudio (Idazlea)

Sara Lekanda

Laudio (Itzultzailea)

Sashel Calderon Camacho

Laudio (Idazlea)

Txani Rodriguez

Laudio (Idazlea)

Txaro Egiluz Diaz

Urduña (Idazlea)

Musika

Agian

Laudio (Metal eta rock taldea)

Aiala Mendieta

Laudio (Abeslaria)

Aiarako batukada

Aiara

Aitor Aspuru

Amurrio (Trikitilaria)

Aiaraldeko Sound System

Aiaraldea (Musika kolektiboa)

Aldaiko taldea

Laudio (Abeslari taldea)

Alperrikako Bizien Jabe

Aiara (Bikote akustikoa)

Amankomun

Laudio (Trash metal taldea)

Amurrioko Udal Musika Eskola

Amurrio

Amurrioko Herri Musika Eskola

Amurrio

Amurrioko Musika Eskolako

Folk Taldea Amurrio

Amurrioko Tritisaxa Eskola

Amurrio

Andere abesbatza

Laudio

Ander Martinez

Orozko (Trikitilaria)

Andrea Ulloa

Laudio (Bakarlarria)

Antonio Oyarzabal

Laudio (Pianojolea)

Aretako Txistu Taldea

Areta

Arloteak

Laudio (Abeslari taldea)

ArteOn Eskolania

Laudio (Abesbatza)

Artziniégako Rock Elkartea

Artziniéga (Musika kolektiboa)

Atxurre

Laudio (Punk taldea)

Azkenak itxi dezala DJ

Laudio (Musika jartzaile taldea)

Bi Hotsak abesbatza

Laudio

Blanco y en bolsa

Laudio (Punk taldea)

Bleibet abesbatza

Artziniéga

Builaka batukada

Artziniéga

Burbuilak

Aiaraldea (Talde akustikoa)

Cuatro Bancos

Amurrio (Rock taldea)

Cuchillo Manteca

Laudio (Rock taldea)

Dantzetan Jarrai

Aiaraldea (Musika jartzaileak)

Dardara Soinu Sistema

Aiaraldea (Musika kolektiboa)

David Isasi

Artziniéga (Bakarlarria)

David Rodriguez Peña

Laudio (Trikitilaria)

Diego Martin-Etxebarria

Amurrio (Opera zuzendaria)

Disaster Now

Laudio (Metal taldea)

DJ Funi Audio (Musika ekoizle

eta jartzailea)

DJ Masa Audio (Musika ekoizle

eta jartzailea)

DJ Teso Audio (Musika ekoizle

eta jartzailea)

Drumgorri musika eskola

Laudio

Egoitz Uriarte

Laudio (Bakarlarria)

Ekain Pliego Trujillo Audio (Las

Sexpeares taldeko baxujolea)

Elena Barker Urduña

(Musika jartzaile eta ekoizlea)

Elena Ribado Ugarriza

Okondo (Gospel abeslaria)

Erasoz Erantzun

Amurrio (Punk taldea)

Eric Ten Audio

(Musika ekoizle eta jartzailea)

Eriz Perez

Urduña (Bakarlaria)

Erruki Jauna

Arakaldo (Punk Hardcore taldea)

Esne Potak

Laudio (Punk bertsio taldea)

Etenik Ez

Aiaraldea (Punk taldea)

Fita Fik

Aiaraldea (Folk talde eta eskola)

Garazi eta Irati Santa Cruz

Orozko (Trikitilariak)

Getxa Goi Txistu Taldea

Urduña (Txistu taldea)

Goiatz Dutto Audio (Moonshine

Wagon eta Deimocrazyko kidea)

Gwa Ya

Aiaraldea (Reggae taldea)

Habemus Papam

Amurrio (Punk taldea)

Haginak

Aiaraldea (Punk taldea)

Haize Gorria

Aiaraldea (Folk eta ska taldea)

Hotzkai

Laudio (Heavy Metal taldea)

Ibai Adrian Codesal

Laudio (Tronboi jotzailea)

Idoia Jimenez

Laudio (Txistularia)

Igon Olaguenaga Orozko

(Trikitilari eta musika ekoizlea)

Igor Arzuaga

Areta (Bakarlaria)

Ikaära

Aiaraldea (Punk-crust taldea)

Iker Arana Urduña

(Kaserna taldeko gitarjolea)

Ilargiak

Amurrio (Hirukote akustikoa)

Incantum abesbatza Amurrio**Incendio**

Aiaraldea (Punk-crust taldea)

Iñaki Plaza

Urduña (Trikitilari eta musika ekoizlea)

Iñigo Arrizabalaga

Urduña (Musikaria)

Iñigo Ibarra

Laudio (Bakarlaria)

Irrita Hagen

Lusiaondo (Pop rock musikaria)

Itxaropen Zikina

Urduña (Punk taldea)

Itzalde abesbatza

Okondo

Itziber

Laudio (Musika elektronikoa)

Ixone Mendieta Olamendi

Amurrio (Pianojolea)

Izaskun Del Cerro

Urduña (Pianojolea)

Izatefaltsua

Aiaraldea (Metal taldea)

Jone Urruela

Amurrio (Bakarlaria)

Joseba Urruela eta Ander Teje-**rina** Amurrio eta Urduña (Suaia eta Ama Rebel taldeko kideak)**Josu Ortiz Delgado**

Laudio (Musika konposatzailea)

Julen Burgos

Laudio (Bakarlaria)

Julen Yarritu Atxa

Laudio (Saxofoi-jolea)

Julen Nacarino 'Nack'

Laudio (Rap abeslaria, Streetlight Studioko kidea)

Kateak Ate

Amurrio (Bikote akustikoa)

Kortazar Amurrio (Rapa, Street-

light Studioko kidea)

Kun kun batukada

Laudio

Landaluze Musika Eskola

Laudio

Lander Agirre

Orozko (Panderojolea)

Lander Otaola

Urduña (Trikitilaria)

Lankaietako Lagunak

Laudio (Txistu taldea)

Laudioko Galiziar**Etxeko gaita****taldea** Audio (Folk taldea)**Lentejas**

Aiaraldea (Punk-rock taldea)

Loza Urduña

(Rap abeslaria, Streetlight Studio-ko kidea)

Luis Vil Amurrio (Rock abeslari eta gitarjolea)

Lyrikan Audio (Abeslari eta musika ekoizlea)

Maik Falls

Audio (Musika ekoizlea)

Malen Atxa 'Matx'

Audio (Bakarlaría)

Mankaos

Audio (Rock taldea)

Matarrasa

Arrankudiaga-Zollo (Punk taldea)

Mikel Moreno

Audio (Musika jartzaile eta ekoizlea)

Mundo Rata

Audio (Trash metal taldea)

Nahasiak

Audio (Folk taldea)

Nakkiga

Aiaraldea (Black metal taldea)

Neiffer

Audio (Rap eta musika urbano abeslaria)

Nerea Iglesias

Audio (Pianojolea)

Nerea Quincoces Ochoa

Artziniega (Kuttune taldea)

Nerea Valle

Audio (Bakarlaría)

Nuria Prieto

Audio (Musika jartzailea)

Okher

Audio (Rap abeslaria)

Onix

Audio (Rap abeslaria)

Otxote Ugarte taldea

Amurrio (Abeslari taldea)

Perdido Entre Ilusiones

Amurrio (Bakarlaría)

Placton

Urduña (Rock taldea)

Psyclocibe

Audio (Punk taldea)

Radio Revolución

Aiaraldea (Euskal kunbia)

Rlantz

Amurrio (Musika ekoizlea)

Rober Bask

Audio (Musika ekoizlea)

Ruben Isasi

Amurrio (Trikitilaría)

Sabin Guaresti

Amurrio (Bakarlaría)

San Roke Musika Banda

Audio

Santa Luzia abesbatza

Audio

Santa Zezilia Musika Banda

Urduña

Sinmas

Artziniega (Punk rock taldea)

Sistematiko

Okondo (Punk-Oi taldea)

Sobrinu Sobrado

Urduña (Rock taldea)

The Ganorabakos

Orozko (Rock taldea)

The Pushermen

Urduña (Rock taldea)

Unai Etxebarria

Aiara (Trikitilaría eta bakarlaría)

Unai Martinez (MRT)

Amurrio (Rap abeslaria)

Urduñako Abesbatza Elkarte

Urduña

Urduñako Oilarrak

Urduña (Abeslari taldea)

Viernes 6

Amurrio (Rock taldea)

Voltium

Aiaraldea (Metal taldea)

Warras y Bizarras

Audio (DJ taldea)

Xabi Basterra

Audio (Bakarlaría)

Xabi Jimenez Audio

(Rap abeslaria)

Xabi Valle

Amurrio (Albokaria)

Yogurinha Borova

Audio (Bakarlaría)

Zutik!

Aiaraldea (Punk Hardcore taldea)

Kultur espazio eta laborategiak

Amurrio Antzokia Amurrio

Amurrioko Gaztetxea Amurrio

Artziniega Museoa Artziniega

Burubio Elkartea Amurrio

Donibane aretoa Orozko

Faktoria Audio

Jentilzulo kulturunea Orozko

Orbeko Etxea Audio

Orozko Museoa Orozko

Santxotena Museoa Artziniega

Txondor Gaztetxea Arrankudiaga

Kulturlab (Kulturzaleak) Audio

Mendieta Kultura Artziniega

Orduña Hiria Museoa Urduña
(...)

Izenen bat faltan botatzen duzu?

Bete galdetegia buruan duzun sortzailearekin eta webgunean plazaratuko dugu!



www.labur.eus/sortzailekatalogoa



Mundu bat euskaraz

MIKEL AYLLON CORRAL

Idazlea

Azken asteotan, Francesca, Sun eta Leandorekin hizketan aritu behar izan dut, denek ala denek haien jaialdietan nahi zutelako erakutsi guk egindako ikus-entzunezkoren bat. Hemen sortu diren istorioak ikusi berri dituzte Italian, Brasilen eta Hego Korean. Euskaraz paseatu dira Daniel, Ipar, Thelma edo Leire Erroma, Rio de Janeiro edo Seuleko kaleetan, geure mundu ikuskeraren arropak jantzita, geure buruari buruz berbetan haiei buruz bezain beste. Edo, bestela esanda, haiei buruz berbetan, guri buruz berba egiten dutelako.

Izan ere, mundu osora zabaltzeko euskara ez baita traba, beste edozein hizkuntza ez den bezala. Azken beltzean, artea, ezer bada, komunikazio ariketa basati bat baita, geure errealitatea ulertzeko ahalgin gaur egun kasik desesperatu bat.

Horrenbestez, ezinbestean sortzen dut euskaraz, euskaldunekin hitz egin nahi dudalako. Eta euskaldunekin hitz egin nahi dudalako entzun nahi naute planetako edozein txokotan.

Nolanahi ere, izan gaitezen zintzoak. Euskarazko sorkuntzaren ozeanoan ez da falta hortz zorrotzdun tiburoririk: erakundeek baliabide gutxiago jarriko dituzte euskarazko sorkuntzaren eskuetan; behin eta berriro azaldu beharko duzu zergatik ez duzun erdaraz sortzen; atzera begiratzeko joera handiegia daukan kultur itsaso batean egin beharko duzu igeri; eta ia ikusezina izango zara zeure herrian, zeure herriko hizkuntza erabiltzen duzulako.

BM Shop



Greba eta garaipena

Albiste latza jaso zuten Superberriakoko langileek udazken hasieran. Supermerkatu kateko zuzendaritzak denda guztiak itxi eta langile guztiak kaleratu nahi zituen. Greba mugagabeari ekin zioten orduan beharginek, eta mobilizazio jendetsuak egin zituzten Laudio, Amurrio, Ugao eta Bilbon. Borrokak emaitza izan zuen, zuzendaritzak amore eman eta Enplegua Erregulatzeko Espedientea bertan behera utzi baituzten handik egun batzuetara. *Argazkia: Aimar Gutierrez Bidarte*



URTE MUGITUA AIARALDEAN

ESPARRU SOZIOEKONOMIKOAN

OTSAILA / MARTXOA

33 jarduera Aiaraldea ekonomikoki berpizteko

Martxoan aurkeztu zuten Aiaraldeko Ponentzia Sozioekonomikoaren prozesutik ateratako Beheralako Ekintza Plana. 28 milioi eurotan baloratutako inbertsioak aurreikusituz, 33 jarduera zehatzetan banatuta.



Foru Aldundia

Lanuzteak eta akordioa Tubos Reunidosen

Borroka zikloa piztu zen Tubos Reunidosen urte hasieran, erosmen ahalmena handitzea eta lan baldintzak hobetzea helburu. Lanuzte ugari egin zituzten, eta azkenean akordioa erdietsi zuten LAB, UGT eta CCOO sindikatuek zuzendaritzarekin, langileen gehiengoak onartu zuena.

APIRILA



Foru Suhiltzailak

Oso urte mugitua Laudioko Garnica enpresan

Oso urte mugitua izan da aurtengoa Laudioko Garnica enpresan (lehen 'Maderas de Llodio' zena). 5 milioi euroko inbertsioa iragarri zuten martxoan. Apirilean, aldiz, sute handia egon zen lantegian, eta beharginak hainbat aste egon ziren lan egin gabe. Urrian Carlyle Group inbertsio funtsa bilakatu zen enpresako akziodun nagusia, eta azaroan enplegua aldi baterako erregulatzeko espedientea iragarri zuten zuzendaritzak, datorren urteko martxora arte.



IAZKOA URTE BIZIA IZAN ZEN AIARALDEAN ESPARRU SOZIOEKONOMIKOARI DAGOKIO-NEZ, BAINA AURTENGOA ERE EZ DA BATERE MAKALA IZAN.

ABENDUA

Artiacheko langile baten heriotza

Artiacheko langile bat hil zen apirilean, gaueko txandatik etxera itzultzen ari zela.

Hiltegiaren aldeko borroka, fase berri batean

Mobilizazioekin abiatu zuen Hilegia ez itxil plataformak urtea, baina hurrengo hilabeteetan fase berri batera igaro da azpiegitura horren aldeko borroka, hainbat baserriarrek hiltegi berri bat eraikitzeko proiektua aurkeztearekin batera.

Lanuzteak Vidralan, langileen kaleratzeak salatzeko

Lanuzteekin hasi eta amaitu dute urtea Vidralan. Martxoan egun bateko greba egin zuten beharginek, lankide bat kaleratu zutela salatzeko. Abenduak, aldiz, bi egunetan eten dute ekoizpena, 5 lanposturen suntsiketara dela eta.



EKAINA



Pentsiodunen borroka, etenik ez

Pentsiodunen Mugimenduak bere ohiko dinamika jarraituari eutsi dio 2022an ere. Baina ekaina izan da hilabete biziena, Euskal Herriko pentsiodunen bizikleta martxak eskualdea bisitatu baitzuen. Laudiotik igaro eta gero, Amurrioko zortzi pentsiodun omendu zituzten Juan Urrutia plazan.

Epaiketak eta kartzela zigor eskaerak Tubacexeko greba dela eta

Zazpi pertsona auzipetu dituzte guztira iaz Tubacexen eginiko greba mugagabea dela eta. Horietako bat (Aintzane Mendia amurriarra) epaitu eta absolbitu egin dute dagoeneko, baina beste seiak epaiketaren zain daude oraindik, eta kartzela zigorrak eskatzen dizkiete guztiei. Horrez gain, milaka euroko isunak iritsi zaizkie hainbat behargineri.



URRIA / AZAROA

Aiaraldean agertzen ari da

krisi energetikoaren
izebergaren tontorra



2022AN ENERGIA KRISIAK LEHEN LERRORA EGIN DU JAUZI ETA AIARALDEAN HORRI LOTUTAKO PROIEKTUAK ETA ERRESISTENTZIAK ERE AREAGOTU DIRA.

Testua: Aitor Aspuru Saez

Argazkia: Aitor Burgoa

Duela ez horrenbeste urte energia krisia (klima aldaketa bezala) mamu urrun bat baino ez zen, eta borondate oneko diskurtsoetan baino ez zen aipatzen, oro har. 2022. urtea, ordea, mugarria izan da aipatutako bi errealitate horiei dagokienez. Tenperaturen igoera lehortearen tamainakoa izan da, eta Ukrainako gerra zein elektrizitate eta erregaien prezioaren gorakada meteorikoak zaplazteko baten moduan agertu dira gizartearen kezken artean.

Horrek guztiak gertakari larri horien aurrean utzi du jendea eta eztabaida korapilatsua ekarri du eskualdeko herrietara. Izan ere, iaz hiru parke eolikoek berri eman bazen, aurten horietara gehituko den beste bat eraikitzeo aukera aztertzen ari da Delta Power enpresa, Orozko eta Zeberio artean. Hortaz,

hainbat aerosorgailu kokatu nahi dituzte Orozkoko bi tokitan eta Gorobelgo beste bitan.

Aldi berean, Aiaraldeko Mendiak Bizirik plataformak bere jarduerari ekin dio modu indartsuan, informazio kanpainak, bilerak edota mendi ibilaldiak sustatuz egitasmo horien kontra. Berez, energia berriztagarrien kontra egotea ez dirudi zentzuzkoa etorkizuna kolore iluna hartzen ari den garai hauetan, baina proiektu horien aurkarien argudioak ez dira, inondik inora, funtsik gabekoak.

Alde batetik, aipatutako plataformak aldarrikatu du zentral eolikoek eremu naturalen industrializazioa ekarriko dutela, bestelako erabilerak (lehen sektorerako lotutakoak, besteak beste) aurrera eramatea eragotzita. Ez da ahaz-

tu behar parkeetarako bideak eta bestelako azpiegiturak eraiki beharko direla, errotak behin betiko egongo direla hor, nahiz eta matxuratu edo erori, hegaztien bioaniztasunari eragingo diotela, hainbat animalia hilko dituztelako euren palek...

Bestetik, alarma gorria piztu duen beste arlo bat 'Tapia Legea' deiturikoa izan da. Alegia, udalei interes publikoko egitasmoei kontra egiteko eskumena kendu dien lege erreforma, Arantxa Tapia Ekonomia Sailburuak sustatutakoa. Erabaki hori, Aiaraldeko plataformarentzat, jokaldia izan da betiko enpresek (Iberdrolak, Endesak, Mobilek... hirurek Delta Powerren parte hartzen dute, esaterako) proiektu energetiko berriak mozkinak sortzeko asmoz bultzatzeko, eta ez trantsizio energetikorako.



ALNER 2000, S.L.
ASEGURU ARTEKARITZA

Zumalakarregi 53, Laudio

joserra@alner2000.com
94 672 53 85



Klase elkartasuna ehuntzen

LUDI TEMIÑO

Superberriakeko Enpresa Batzordeko presidentea

2019an, Superberriakeko langileak kalera atera ginen lehenbiziko aldiz, Martxoaren 8ko Greba Feministaren barruan planteatu ziren mobilizazioetan parte hartzeko. Hortik aurrera hiru urte igaro ditugu, pandemia barne, zeintzuetan esan ziguten funtsezkoak ginela. Baina, behin pandemia igarota, ikusezinak izatera igaro gara berriz. Hiru urte hauetan garatu dugun borroka helburu bakarra izan du: gure lan-hitzarmena betearaztea. Sektore feminizatuak gara prekarizatuena. Kutxazain, jangeletako langile edo zaintzale izateagatik lan baldintza eta soldata okerragoak merezi ditugu?

Azken urte hau oso zaila izan da. Enpresak balantze negatiboak plazaratzen zituen, baina ez zuen horiek egiaztatzeko datu edo balantzerik ematen. Enpresak asmo bakarra zuen: lortu genituen hobekuntzak bertan behera uztea. Oldarraldi latza izan da.

Uda amaieran sorpresa bat jaso genuen: ezohiko bilera batera deitu gintuzten. Bertan, langile guztiak kaleratu eta denda guztiak itxiko zituztela esan ziguten, 70 familia kalean utziz. Imajinatu dezakezue egoera: lehen unea shock hutsa izan zen. Langileok ezin genuen gertatzen ari zena sinetsi.

Asanblada ugari egin genituen orduan, gainontzeko langileei egoeraren berri emateko. Bertan zehaztu zen bi bide baino ez zitzaizkigula geratzen: bide judiziala eta ekintza sindikala. Ekintza sindikalaren ildotik, ez zitzaigun beste aukerarik geratzen: aho batez erabaki genuen greba mugagabera jotzea, enpresak Enplegua Erregulatzeko Espedientea mahai gainera kendu arte.

Honen amaiera badakizue dagoeneko: langile guztion borroka eta batasunari esker lortu zen kaleratzeak bertan behera uztea, 70 lanpostuak eta denda guztiak salbatuta. Guretzat, Superberriakeko jabeak (eskualdekoak direnak eta guztiok ezagutzen ditugunak) *persona non grata* izendatu beharko lirateke.

Lan erreforma berriarekin, edozein enpresak aurkeztu ditzake kaleratze masiboak, kontu ekonomiko faltsuak argudiatuta ere. Hori gertatu zen Tubacexen, eta hori gertatu da orain Superberriaken. Ikusi zen Tubacexen, eta ikusi da gure kasuan ere. Borrokaldi luzeak egitera bultzatu gaituzte bi kasuetan eta, Tubacexen kasuan, borroka egitea kriminalizatu nahi izan dute gero, hainbat langile eta herritarren aurkako kartzela eskaerekin.

Guk, gure partetik, eskerrak eman behar dizkiegu bizilagunei, erakutsitako babes eta elkartasunagatik. Oso garrantzitsua da eskualdean horrelako kasuak ematen direnean guztion elkartasuna jasotzea, kalera ateratzea, eta elkar babestea. Superberriakeko langileon memorian iltzatuta dago oraindik Laudion egin genuen mobilizazioa, greba mugagabea hasi berri genuenean. Zirrargarria izan zen eskualde oso bat ikustea gure pankartaren atzetik, gu bultzatzen eta gure borroka zentzua zuela berresten.

Niretzat, hori da bidea: elkartasun sareak ehuntzen jarraitzea mugimendu ezberdinen artean. Pentsiodunak, mugimendu feminista, enpresa komiteak (zein sindikatu edo sektorekoak diren axola gabe)... benetako klase elkartasuna da Aiaraldean piztu dena. Eta horretan jarraituko dugu.



Ikusezinak gara berriz

BEGO RENTERIA, ANA VIVANCO ETA IDOIA ALONSO

Egoitzetako langileak

Ikusezinak ginen, birus batek ezinbesteko bihurtu gintuen arte. Orain ikusezinak gara berriro ere.

Arabako gizarte-politikek pertsonetan oinarritutako egoitza-eredu bat saldu nahi izan ziguten; gaur egun, harremanetan oinarritutako arretaren beste irudipen bat saltzen digute, non erabiltzaileak, familia, lagunak eta langileak baloratzen diren.

Beren ahaideak egoitza batean dituzten familiek eredu horiek betetzen direla uste dute. Eta tristeena da, arreta zuzeneko profesionalak arduraz eta gorputz eta arimaz aritzen badira ere, ezinezkoa dela zerbitzu egokia ematea.

Egoitza eredu hauek utopikoak dira langile gehiagotan inbertitzen ez bada, eta garabiak, ohe artikulatuak, eta abar eguneratzen ez badira.

Duela hogeit hamar urte, egoiliarrekin sozializatzeko aukera handiagoa genuen, pertsonak artatzen genituen, ez gorputzak. Gaur egun, egoitzen

errealitatea erabat aldatu da, eta zainketen intentsitatea eta mendetasun-mailak handitu dira. Alabaina, langile kopuruak, gora egin beharrean, behera egin du.

Etsigarria da, egoitza pribatuetan exijitzen den bezala, zortzi minututan lagundu ezin daitekeen eta egiten ari zaiona ulertzen ez duen pertsona bat garbitu, jantzi eta ohetik gurgil-aulkira pasatu behar izatea.

Gure nagusien zaintzari gizatasuna kentzera bultzatzen gaituzte.

Ezinezkoak diren denbora horiek bete ahal izateko, bokazioa lurperatu eta gure gorputza lesionatu behar al dugu?

Gizarte-zerbitzu publikoetan ez inbertitzeak, bai eta egoitza pribatu asko kudeatzen dituzten multinazionalak, egoitzak produkzio-kate bihurtu dituzte, eta bertan, adinekoak torloju bilakatzen dira, eta langileak errobot.



Gure herria
berpiztuz

Jarrai gaitzazu



Prezioen gorakadak urte beroa sortu du hainbat enpresetan

URTEKO LAN GATAZKARIK ENTZUTETSUENA SUPERBERRIAK SUPERMERKATUENA IZAN BADA ERE, LAN HITZARMENAK ETA PREZIOEN IGOERA IZAN DIRA 2022KO LEITMOTIVA.

Testua: Aitor Aspuru Saez

Argazkiak: Aiaraldea.eus

Superberriak Supermerkatuen grebak mugarría jarri du aurten lan gatazken esparruan Aiaraldean. Baina, greba mugagabe horretaz gain, etengabeko zarata egon da lan munduan 2022an, zehazki, hitzarmenak eguneratzerako orduan prezioen igoera dela eta. Izan ere, Ukrainako gerra hasi baino lehen, oinarrizko produktuen salneurriek gora egin zuten.

Esaterako, erregaiak bat-batean biderkatu zuen bere prezioa eta garraiolarien protestak piztu ziren. Eskualdean ere egon ziren lanuzteetara batu ziren profe-

sionalak, baina ez ziren pozik geratu Gobernuak eta patronalak lortutako akordioarekin.


Orozkoko lan gatazkak

Dena den, egoera aurretik zen beroa. Esaterako, Artiach enpresako langileek greba luzea egin zuten, lan hitzarmen berriaren alde, iraungita zegoen aurrekoa eguneratzeko. 2021ean abiatu zuten protesta eta 152 egunez luzatu zen. Helburu ekonomikoak izan ziren nagusi eta soldata igoera lortu zuten; 2020an %2, 2021ean %2, 2022an %3, 2023an %3 eta 2024an %2. KPIak urte horietan %12a gain-

dituko balu, ez lirateke atzerapenak sortuko, baina 2025ko soldata %2an handituko litzateke automatikoki.

Orozkon sortu den gatazka bakarra ez da hori izan; Madres Mercedarias zaintza zentroan hainbat lanuzte egin dituzte lan hitzarmen duin baten alde, baina, momentuz, gatazka ez da konpondu, nahiz eta langileek (emakumezkoak gehienak) enpresa zein Bizkaiko Foru Alundia sakatzeko protesta ugari antolatu.

Enpresako egoera ekonomikoa





Metaleko sektoreko greba deialdiek eragina izan dute eskualdeko hainbat enpresatan.

egonkortu ondoren, Tubos Reunidoseko langileek urtarrilean hasi zituzten lanuzteak, 2017an iraungitako hitzarmena eguneratzeko. Martxora arte luzatu

ziren protestak eta horri esker lortu zuten 2021era arte KPI igoerak adostea. Bidea ez zen erraza izan, langileek lehenengo aurreakordioa baztertu baitzu-

ten eta sindikatuen gehiengoak beste bat negoziatu behar izan zuten. Lorpen horien ostean, etorkizuneko lan hitzarmena adosteari ekin diote, blokeka.



Aseguru perfektua bilatzea, inoiz ez da hain erreza izan!



Kotxea, Etxea, Inbertsioak, Bizitza aurrezkiak, Komertzioa, Istripuak, Heriotza Asegurua...

ARITZ AMORRORTU ETXEBARRIA
Agente eskusiboa

946 610 361- 688 856 744
artizamorrortu@generalimediadores.es
Sastegi 1 behea, OROZKO



Etorri eta galdetu!



Artiach eta Madres Mercedariaseko borrokek lan-gatazken epizentro bilakatu dute Orozko.

Ezohiko enpresetan ere

Gatazkengatik eta aldarrikapenengatik bereziki ezagunak ez diren konpainietan ere borroka zikloak izan dituzte. Horren adibide izan dira Ferro edota Megatech.

Hain zuzen, Megatechen tentuz landu zuten gaia; udan adostasuna egon zen beharginen artean lanuzteak abiatzeko iraillean, eta iraillean bertan bost orduko greba eginda sinatu zuten lan hitzarmen berria, zeinean KPren igoeran eta enpleguaren bermean jarri zuten indarra.

Borroka sektorialak

Zenbait sektoreko mobilizazioek ere eragina izan dute Aiaraldean, eta Arabako Metalgintza Sektorearena izan da garrantzitsuenena. Bizkaikoak ere oihartzuna izan du, txikiagoa izan bada ere. Arabako Kiroldегien langileen kolektiboa bost eguneko greba egitear egon zen, baina azken orduan akordioa lortu zuten.

Kanpoko borroken isla

Halaber, inguruko lurraldeetan izandako gatazkek nolabaiteko isla izan dute Aiaraldean. Metro Bilboko enpresa batzordean

Gatazkengatik eta aldarrikapenengatik bereziki ezagunak ez diren konpainietan ere izan dituzte borroka zikloak.

Laudioko ordezkarria dago, Mercedes enpresako langileak ere badaude eskualdean eta urte amaieran LIDLeko greba izan zen.

Gogoratu beharra dago supermerkatu kate horren puntu logistikoa Langraitz Okan dagoela orain, baina 2021era arte Laudion egon zela, Gardea auzoko industriagunean.

Sindikatuak negoziatu ostean, tokiko enplegua bermatu zen eta Laudioko beharginak Langraitzera mugitu zituzten. Abenduan bost eguneko greba egin zuten lan hitzarmen propio berria sinatzeko eta Espainiako estatukoak ekiditeko.



LIDLeko grebak ere eragina izan du eskualdean, Aiaraldeko behargin ugari egiten baitute lan Langraitz Okako puntu logistikoan.

Aberastasuna banatu >
 Ongizatea bermatu >
 Ongizatea bermatu >

Aiaraldean
**GELDI
 EZINAK**

ehbildu

Amurrio abiapuntu

Historikoa izan da Korrikaren 22. edizioa Aiaraldean, Amurriotik abiatu baitzen euskararen aldeko ekimen ibiltaria. Egun osoko egitaraua egon zen herrian, eta arratsaldeko lehen orduan jarri ziren martxan, euripean. Amurrioko AEK-ko kideak izan ziren lekukoa eramaten lehenak. Ondoren, Aiara, Artziniega, Okondo, Laudio, Arakaldo eta Arrankudiaga-Zollo bisitatu zituen Korrikak, eta ehunka lagun bildu ziren. *Argazkia: Aimar Gutierrez Bidarte*





EUSKARA BIZIBERRITZEKO

EKIMEN BERRIAK MARTXAN

MARTXOA

Futbolean euskara sustatzeko ekimena

Arabako II. Euskarazko Futbol Topaketa egin zen martxoan Amurrión. 18 talde bertaratu ziren, 150 jokalaririk guztira.



Urteko lehen Euskararen Eguna, Luiaondon

Iazko Euskararen Eguna atzeratu behar izan zuen Aiaraldeko Euskalgintza Kontseiluak, eta aurten egin dute azkenean, ekainaren 4an Luiaondon. Egun osoko egitaraua antolatu zuten, eskualdea euskararen alde aktibatzeke helburuarekin.



APIRILA

'Orozkoaldia', haur eta familien hizkuntza ohiturak aldatzeko

'Orozkoaldia' egin zuten apirilean Orozkon, haurren eta familien artean euskararen erabilera sustatzeko. Orozkoko Eskolako guraso talde batek antolatu zuen ekimena. Guraso Euskaltzaleen Batzordea sortu zuten, helburu nagusi batekin: euren seme-alabek euskararekiko duten harremana aldatzea.

EKAINA

EUSKARAREN NORMALIZAZIOAREN ALDEKO EKIMEN ETA OSPAKIZUN UGARIK ZIRPRISTINDU DUTE 2022A AIARALDEAN.

ABENDUA

Euskaraldia eta bigarren Euskararen Eguna

Euskaraldia izan da, segur aski, euskararen normalizazioaren alde Euskal Herrian (eta baita Aiaraldean ere) aurten egin den ekimen nagusienetako bat. Eskualdean ehunka lagun batu ziren hizkuntza ohiturak aldatzeko ariketara. Abenduaren 3an, aldiz, Aiaraldeko Euskararen Eguna antolatu zen Arakaldon, urteko bigarrena.



2023an hautagai euskaldunak sustatzea helburu

2023ko udal hauteskundeetara begira jarri da Aiaraldeko Euskalgintza Kontseilua, hautagai euskaldunak sustatzeko. Ekainean egin zuten dinamikaren aurkezpena. Aurreratu dutenez, hautagaien zerrenda bakoitza puntuatuko dute, hizkuntza irizpideak jarraituta.



Begat Mendiguren

Euskararen aldeko ekimen ugari urtean zehar

Amurrioko Euskaraz Bizi Nahi Dut Eguna, Baranbioko Euskal Jaia, Laudioko Euskararen Jaia, Aiarako Euskararen Asteburua... urtez urte errepikatzen diren zitek ez dute hutsik egin aurten.

IRAILA

Gurasoleku, aurten Laudion ere

Laudiora ere egin du jauzi Gurasolekuk bere bigarren edizioan. Herri horretako eta Amurrioko haur hezkuntzan ari diren ikas-tetxe guztiak parte hartu dute egitasmoan, Laudioko Udal Euskaltegiarekin batera. Aiaraldeko Euskalgintza Kontseiluak, AEK-k eta Aiaraldeko Berbalagun programak abiatu zuten ekimena iaz.



Erabilera sustatzean

dago erronka



EUSKARAREN EZAGUTZA DATUAK GORANTZ DOAZ AIARALDEAN ETA EUSKAL HERRIAN, BAINA ERABILERAK BEHERA EGIN DUELA IRADOKITZEN DUTE AZKEN IKERKETA SOZIOLINGUISTIKOEK.

Testua: Allende Solaun Boada

Argazkiak: Aiaraldea.eus

Urte garrantzitsua izan da 2022a euskararentzat, batik bat, pandemiaren osteko Korrikaren itzulerara, Euskaraldiaren hirugarren edizioa eta Irulegiko Eskuaren aurkikuntza arkeologikoa direla eta, baina baita Soziolinguistika Klusterrak argitaratutako euskararen erabileraren kale neurketaren emaitzengatik ere.

Aiaraldeko datuak, oro har, ez dira espero bezain positiboak izan. Laudion eta Orozkon behe-rakada egon da 2011tik 2021era. Urduñan, ordea, gorako joera bat jazo dute ikerketek denbora tarte berean.

Orozkokoa izan da eskualdeko jaitsiera nabarmenena, ia 34 puntukoa; 2011n eta 2021ean behatutako elkarrizketak alderatuz gero, %57,2tik %23,2ra egin du behera euskararen kaleko erabilerak azken hamarkadan. 2016ko euskararen ezagutzari buruzko azken datuen arabera, orozkoarren %61,6k daki euskaraz. Datu hori kontuan izanda, %30,4koa izango litzateke Orozko euskararen erabilera isotropikoa, hau da, herrian espero zitekeen erabilera; kale neurketaren datua baino 7,2 puntu altuagoa. Aipatzekoa da beherakada agerikoena 65 urtetik gorakoan

adin-tartean izan dela, 57 puntu-koa.

Orozkokoa bezain nabaria izan ez bada ere, Laudion ere jaitsi da euskararen erabilera 2011. eta 2021. urteen artean. Kasu horretan, 4 puntukoa izan da aldea, %9tik %4,6ra. Laudion behatutako solasaldietan, ez zen ia ezberdintasunik sumatu gizonezkoen eta emakumezkoen artean euskararen erabilerari dagokionez eta bitxikeri hori ez dator bat Euskal Herriko datu orokorrekin. Izan ere, neurketen arabera, joera nagusia da emakumeek gizonen baino gehiago egitea euskaraz. Arrazoa ezezaguna den arren, Soziolinguistika Klusterreko Belen Urangak, hipotesi mailan, “hizkuntzaren zaintzarekin lotutako faktore batzuk gertatzen direla” adierazi zuen Urduñako Udalak antolatutako hitzaldian; hots, genero-rolek eragina dutela.

Adin-taldeei dagokienez, Urduñan euskaraz gehien mintzatzaren direnak 25 eta 44 urteko bitarteko heldu gazteak (%10,1) eta 14 urte arteko haurrak (%6,8) dira. Bi adin-tarte horiek elkarrekin daudenean, baina, are altuagoa da hizkuntzaren erabilera, %12koa, alegia. Horrek arau so-

zial bati erantzuten dio, Urangak azaldu zuenez: guraso gazteek euren seme-alabei euskaraz hitz egiteari, hain zuzen. Fenomeno hau ohikoa da lurralde osoan.

Kale neurketako emaitzak gorabehera, hurrengo urratsa “hainbat mailetan eragitea” dela azaldu zuen Belen Urangak Audioko Euskararen Jaiaren egitarauaren barruko aurkezpenean, azterketa honek erakusten duena “kalean entzundako” errealitate bat baino ez delako eta udalerrietako beste esparru askotan lan egin daitekeelako. Etorkizunera begira, beraz, eskualdean badaude euskara aregotzeko aukerak, kaletan zein bizitzako beste esparruetan.

Orozkon eta Laudion jaitsiera egon da euskararen kale-erabilera neurketetan. Urduñan, aldiz, gorakada nabarmena egon da.

Zilegia omen da

lanpostu publikoetan
hizkuntza eskakizuna
ez betetzea

OTSAILEAN GASTEIZKO EPAILE BATEK LAUDIOKO UDALAREN
AURKA EMANDAKO EPAIAK HAUTSAK HARROTU ZITUEN.
EZ DA KASU BAKARRA IZAN.

Testua: Jone Gartzia Gerra

Argazkiak: Aiaraldea.eus

Euskararentzako urte handia izan behar zuen 2022ak eta, oro har, hala izango zen, urte hasieran lerroburu guztiak zipriztindu zituen albiste batengatik izan ez balitz. Alea komunikabideak eman zuen notizia otsailaren lehenean: epaile batek euskararen zailtasuna erabili zuen argudio gisa Laudioko Udaleko langile bat berriz kontratatzea agintzeko, sei urtetan zegokion hizkuntza eskakizuna egiaztatu ez bazuen ere.

Langilea 2014tik ari zen bitarteko funtzionario gisa. Postu hori betetzeko hirugarren hizkuntza es-

kakizuna egiaztatu behar zuen, baina lehenengo baina ez zuen aurkeztu, eta 2020an kaleratu egin zuten. Langileak auzitara eraman zuen Udala eta Administrazioarekiko Auzien Gasteizko 3. Epaitegiko epaile batek, Ana Maria Martinez Navasek, arrazoia eman zion, euskara “munduko hizkuntzarik zailenen artean bosgarrena” dela argudiatuta. Udalari langilea berriz kontratatzeko eta Gizarte Segurantzaren kotizatzen zuenaren araberako kalte ordaina emateko agindu zion.

Argudioaren funtsak (edo horren gabeziak) piztu zituen lehen

Epaiak “oso aurrekari arriskutsua” ezartzen zuela iragarri zuen Kike Amonarrizek, Euskaltzaleen Topaguneko lehendakariak, horrelako kasu gehiagorik daitezkeela ohartarazita





Epaia salatzeko elkarretaratze jendetsua egin zuten Laudioko Herriko plazan.

alarmak; gerora etorri ziren argudioa Interneteko blog batetik kopiatua zela frogatzen zuten albisteak edota epaile hura zela 2018an El Mundo Today hedabidea

bidea auzitara eraman nahi izan zuena albiste satiriko batengatik. Irailean berriz izan zen notizia Martinez Navas: UGTren helegite bati arrazoia eman zion, esanez

ez zela beharrezkoa euskarazko B2 maila izatea Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako udaltzainen lan poltsetara sarbidea izateko. Laudioko kasuari dagokionez, ezin




EUSKARA
 IKASTEKO BIDELAGUN ONENA

Aiarako AEK

Laudio, Amurrio, Orozko, Okondo, Aiara
Artziniega eta Urduña

- Aurrez-aurrekoak: maila eta ordutegi guztiak
- Autoikaskuntza tutore eta mintza-saioekin
- Titulu ofizialak A1-A2-B1-B2-C1

Laudioko AEK
 Zubiaur, 5 · 946 726 722 · 663 194 177
laudio@aeak.eus

Amurrioko AEK
 Etxegoibide, 8 · 945 892 334 · 663 076 240
amurrio@aeak.eus

Urduñako AEK · Kultur-etxea · 607 678 079

DIRULAGUNTZAK
EUSKO JAURLARITZA · ARABAKO ALDUNDIA · LAUDIO, AMURRIO, URDUÑA ETA AIARAKO UDALAK



Elkarretaratzea egin zuten Laudion, epaile batek hizkuntza eskakizunaren aurka eginiko ebazpena salatzeko.

bestean haserrea eta kezka piztu zituen epailearen erabakiak, eta erantzunak zientoka izan ziren sare sozialetan, kaleetan eta instituzioetan. Kike Amonarriz soziolinguista eta Euskaltzaleen Topaguneko lehendakariak Aiaraldea Komunikabideari azaldu zion euskara hizkuntza zailenen artean kokatzen duten zerrendak “erabat azientifikoak” direla, oso hedatuak egonagatik. Epaia “oso aurrekari arriskutsua” ezartzen zuela iragarri zuen adituak, horrelako kasu gehiago

etor daitezkeela ohartarazita. Euskal Herriko eta Aiaraldeko Euskalgintza Kontseiluek elkarretaratzea deitu zuten albiste zabaldu zen astean bertan eta Laudioako Udalak epaiaren aurkako helegitea aurkeztu zuen. EAJK, bere aldetik, Europako Batzordera eraman zuen afera eta Bruselaren erantzuna argia izan zen: argitu zuen oposizioetan ez duela neurtzen hizkuntzak ikasteko zailtasuna, eta ez duela inoiz lehiaketarik bertan behera utzi arrazoi horregatik.

Europako Batzordeak argi erantzun zuen oposizioetan ez duela neurtzen hizkuntzak ikasteko zailtasuna, eta ez duela inoiz lehiaketarik bertan behera utzi arrazoi horregatik.



Eutsi hitzari, bultza ekimenarekin

GOIATZ URKIJO KASTAÑARES

Euskaraldiko koordinatzailea

2018tik, bere lehen ediziotik, hizkuntza ohituretan eragiteko helburua izan duen ariketa sozial praktikoa izan da Euskaraldia, eta azaroaren 18tik abenduaren 2ra luzatu den hirugarren edizio honek ere hori izan du xedetzat. Euskaraldia bere amaierara heldu den honetan, ariketa jendartean normalizatu eta finkatu dela uste dugu. Hau da, ariketa ezaguna izateaz gain, gizartean txertatua eta normalizatua dagoela ikusi dugu. Konturatu gara herritarrak ariketak proposatzen dituenak ulertzen eta barneratzen ari direla. Entitateetan ariguneak sortzeko proposatutako ariketa ere geroz eta hobeto ulertzen dela uste dugu, eta proposamenak bilakaera oso positiboa izan duela azken edizio honetan.

Ariketa masibo honetako parte hartzea ere egonkortze bidean dagoela ikusi dugu aurten. Halaber, Euskaraldian parte hartu eta txapa jantzi dutenez harago ere du eragina ariketak, txapa jantzi edo parte hartu ez dutenek ere badakitelako zer den Euskaraldia, eta gehienek gogo onez hartzen dituzte belarriprest eta ahobiziak, aurreko edizioetako ikerketek erakutsi duten modura. Euskaraldiaren hirugarren edizio honetan ariketaren eraginean jarri nahi izan dugu arreta antolatzaileok. Alde horretatik ere oso pozik gaude. Milaka pertsonak ariketa hausnartuta eta modu sakoan egin dute, horietako askok ere erronkak jarri dizkiote beren buruari eta erronka horiek lortzen saiatu dira 15 egunetan, eta txapa eramanda estres linguistikoa murriztu zaiela ikusi dute partaide askok, uste baino jende gehiagok euskara ulertzen duela ikusi baitute.

Noski, herrietan eta hainbat entitateetan osatu diren Euskaraldia batzordeek egin duten lan eskergea ere azpimarratu nahiko nuke. Milaka lagun

aritu dira herriz herri, entitatez entitate, Euskaraldiaren eta ekimenari lotutako ehunka ekintzen antolaketan. Sare zabal hori gabe ezinezkoa litzateke tamainako ekimena antolatzea.

Aurrera begira jarrita, jakin badakigu rolag gizarteratzen jarraitu behar dugula, beti esan dugun bezala, epe luzeko lana izango baita hau. Lehen hitza euskarazkoa izatea, ulertzen dutenen aurrean euskarari eustea eta elkarrizketa elebidunak mantentzea, duela lau urte baino onartuagoak eta txertatuagoak daude jendartean eta gure egunerokoan. Eta legitimazio hori oso garrantzitsua da hiztunok gure hizkuntza hautuak egiteko orduan. Txapa erabiltzearen garrantzia azpimarratzen jarraitu behar dugu, ariketarako beharrezkoa baita. Aurten nahi baino txapa gutxiago ikusi da kalean eta aztertu beharko dugu zein aldaketa egin behar dugun gehiago ikus daitezen. Euskaraldian oinarritzkoa da euskaraz aritzeko aukerak bistaratzea eta txapek funtzio hori betetzen dute. Komunitatea ikusgarri egitea euskararentzat oso garrantzitsua da.

Euskaraldia ariketa praktikoa dela gogoratzen ere jarraitu behar dugu. Hiztunon portaeratan eta entitateen neurrietan eragiten jarraitu behar dugu, Euskaraldian eta Euskaralдитik kanpo ere. Gizarte honetan oso ohituak gaude euskararen alde agertzeko kanpainetara. Euskaraldiarekin bide berri bat zabaltzen ari gara, gure eguneroko ohitura eta portaeratan eragiteko. Baina Euskaraldiak baka-rrik ezin du, euskararen erabilera sustatzeko bes-telako ariketa praktikokoak ere egon daitezen behar dugu.

Beraz, jarrai dezagun hizkuntza ohiturak aldatzen eta euskararentzako gune erosoak sortzen. Oraindik ere hitzez ekiteko garaiz gabilta.

Amurrio Harro

Amurrio Harro jaia egin zuten ekainaren 18an, herriko hainbat gazteren eskutik. LGTBQIA+ harrotasuna aldarrikatzea izan zen egunaren xede nagusia, eta hainbat jarduera egin zituzten horretarako, goizetik gauera arte luzatu zen egitarauan. Uztailean, aldiz, sexu eta genero aniztasuna ikustarazteko hormairudia margotu zuen Udalak Dionisio Aldama kalean, Raisa Alavaren diseinu bat baliatuta.





AMURRIO
HARRO
2022

CAFE EL CRUCERO

VENDE

NUBY S

EKIMEN ANITZAK

AIARALDEKO JENDARTEAREN OINARRI

OTSAILA



Elkartasun ekimenak Ukrainaren alde

Ukrainako gerrak hainbat elkartasun ekimen piztu ditu eskualdean. Hainbat eragile eta norbanakok materiala bildu dute herrialde horretara bidaltzeko. Mimitos denda pintaketa bidez erasotu zuten apirillean, horrelako egitasmo batean parte hartzeagatik. Horrez gain, hilabete hauetan zehar hainbat errefuxiatu ukrainar etorri dira eskualdera bizitzera.



Milaka lagun mobilizatu dira Martxoaren 8an

Aurreko urteetako dinamikari jarraiki, milaka lagun batu ziren Martxoaren 8an Aiaraldeko Mugimendu Feministak deitutako mobilizaziotara. Orozkon jarri zuten arreta, pikete feminista eginez Artiachen eta Madres Mercedariasen.



MARTXOA

MUGIMENDU FEMINISTAREN MOBILIZAZIOAK, ELKARTASUN EKIMEN JENDETSUAK, AITORTZAK... AIARALDEKO ERAGILE ETA ELKARTEEN JARDUNEAN ERE URTE BIZIA IZAN DA 2022A.



NagusilaneK jaso du Urrezko Guk Saria

NagusilaneK jaso du aurten Urrezko Guk Saria, Amurrioko edadetuen alde egindako lanaren aitortza gisa.

EKAINA



AEFATen aldeko jaialdia

AEFAT elkartearen aldeko jaiak ehunka lagun bildu zituen Urduñan, Reincidentes, ETS eta Moonshine Wagonen kontzertuekin, besteak beste.

ABENDUA

Urduñako memoria historikoa, azalera berriz

Urte oparoa izan da honakoa Urduñan memoria historikoaren berreskurapenari dagokionez. Abuztuan Duintasunaren Kolunbarioa inauguratu zuten. Abenduan, aldiz, indusketak egin dituzte hilerrian, eta dozenaka hilotz topatu dituzte, gerraostean presondegian hildako pertsonenak.



Eraso matxista ugari salatu dituzte

Hainbat eraso matxista salatu ditu mugimendu feministak aurten eskualdean. Abuztuan, adibidez, hainbat eraso jazo ziren Laudio zein Amurrioko jaietan. Udazkenean, aldiz, agerraldia egin zuten Amurrion, udaltzain batek sare sozialetan jarritako eduki matxista dela eta.



ABUZTUA

750 urteren ostean, inoiz baino biziago dago Artziniega



1272KO AZAROAREN 2AN, ALFONTSO X.A GAZTELAKOAK HIRIBILDU IZAERA AITOR-TU ZION ARTZINIEGARI. 750 URTE GEROAGO ARTZINIEGARREK EFEMERIDE HORI EKARRI DUTE GOGORA, URTE OSOAN LUZATU DIREN OSPAKIZUNEKIN.

Testua: Aimar Gutierrez Bidarte

Argazkiak: Artziniegako Udala

Urteko efemeriderik garrantzitsuenaren protagonista izan da Artziniega: hiribilduak 750 urte bete ditu aurten. Urteurrenak Artziniegaren historia idatzia- ren lehenengo gertakaria ekarri du gogora, non Alfontso X.a Gaztelakoak hiri-gutuna eman zion orduko Arsiniega herriari, 1272ko azaroaren 2an. Bizkaiko Foruak agindu zuen geroztik hiribildu izendatu berrian.

Zazpi mende eta erdi geroago, azaroaren 2an bertan, Artziniegarrek pasarte historiko horren antzezpenearekin oroitu zuten hiribilduaren urtebetetzea. Urteurren ospakizunak, ordea, urte osoan luzatu dira, iraganera baino, Artziniega etorkizunera begira jartzeko helburuarekin.

Zazpi mende urte bakarrean

Auzokideak saretu eta ekintzaz beteriko urte bat antolatu nahi zuten 750. urteurrena ospatzeko, eta lortu ere egin dute. 2021eko urte amaieran batzordea osatu zuten hainbat jarduerara pentsatu eta abian jartzeko.

Pandemiak eragindako hutsu- nearen ostean, aurtengoa ohiko ekimen handien itzulera suposatuko zuen urtea izango zela jakitun, ekintza guzti horiek ba-

liatu nahi izan dituzte 750 urte geroago ere Artziniega inoiz baino biziago dagoela aldarrikatzeko. Gauzak horrela, Artziniegako Jaiak, Karpys bizikleta martxa, Ganzorrotz taldearen ibilaldia, Antzinako Azokaren itzulera edota Museoaren irekiera berria eta bertako hamaika ekintza baliatu dituzte Artziniegaren izaera jendaurrean aurkezteko.

750. urteurrenari propioki lotutako bestelako jarduerak ere egin dituzte: udalerriko historiaren eta ondarearen inguruko konferentziak, kontzertuak, herriko sortzaileen arte erakusketak...

Munduko topaketa

Halaber, antolatutako jarduera guztien artean entzutetsuena uztailan ospatutako Arciniega abizenaren munduko lehenengo topaketa izan zen. Uztailaren 9an ehunka arciniegatar elkartu ziren garai batean arbasoen herria izandakoan. Euskal Herritik ez ezik, Espainiatik eta Europako beste hainbat herrialdeetatik ere bertaratu ziren bisitariak Artziniegara, baina bereziki Hego Ameriketatik, bertan baitago hedatuen abizena. Hitzorduak abizenaren jatorrian eta historian sakontzeko parada eskaini

zuen. Deituraren jatorria oraindik ere argia ez den arren, bada hipotesi sendorik: Arciniega herritik kanpo joandako umezurtzek eramaten zuten abizena dela uste da. Izan ere, Arteko Santutegian mende luzez egondako hospizioak umezurtz asko eta asko artatu ditu, eta askok Encina abizena jasotzen zuten modu berean jaso zezaketen Arciniega ere.

Mendez mende asko izan dira Arciniega abizena historia liburuetan idatzita utzi dutenak: arkitektoak, pentsalariak, poetak...

Etorkizunera begira

“Helburua Artziniega mapan jartzea zen eta lortu dugula uste dut” zioen Joseba Vivanco alkateak azaroaren 2ko ekitaldia bukatu berritan. Auzokideek egindako lana eta sortutako harreman sarea gorai patuta, aurrera begiratzeko ueña zela azpimarratu zuen Vivancok. Bide horretan, azken ekintza batekin itxi dute 750. urteurreneko programazioa; 50 urte barru, 2072ko azaroaren 2an, zabalduko duten denbora kapsula bat bete dute herritarrek. Oraindik ere asko du bizitzeko Artziniegak.



Buru osasuna, guztion ardura

MARIA ANGELES ARBAIZAGOITIA

ASASAMeko eta Buru Osasuna Euskadi federazioko presidentea

Aurten, pandemiaren, beldurraren eta ziurgabetasunaren bi urteren ondoren, normaltasunera itzuli gara, eta orain, bizi izan dugun guztiak herritarren buru osasunean izan dituen ondorioak ikusten ari gara. 2020. urteko konfinamenduaren ostean, osasun mentalarari lotutako arazoak areagotzen hasi ziren. Espainiako Estatistika Institutuaren datuen arabera, biztanleriaren % 5,4k bazuen depresio-koadroren bat, eta horrek emakumezkoen gizonazkoen baino gehiago eragiten zien. Gainera, antsietate eta estres mailak nabarmen igo direla ere ikusi da. Gazteen artean, kopuru hori 2 pertsonatik 1ekoa da. Argi dago pandemiak buru osasuneko arazoak areagotzea eragin duela, eta alde aurretik zeuden buru osasuneko arazoak katalizatzaile gisa ere jardun duela, eta horrek hirugarren sektoreko erakundeak kezkatzen gaitu.

Badakigu gaixotasun mental batzuk saihestu daitezkeela. Garrantzitsua da eskoletan haurrei eta nerabeei zuzendutako prebentzio-programak garatzea; izan ere, bizitzako une horretan hasten dira buru nahasmendu gehienak.

Era berean, beharrezkoa da buru osasuneko arazoak dituzten pertsonentzat gizarte- eta osasun-zerbitzuetako plazak ugaritzea, baita pertsona horiekin lan egiten duten psikologoak, hezitzaileen, gizarte langileen eta abarren kopurua handitzea ere. Hitz batez, buru osasuneko arloari zuzendutako baliabide ekonomiko gehiago behar dira. Aiaraldea osoan helduentzako bi psikiatra, adingabe-koentzako psikiatra bat eta helduentzako psikologo erdia dugu. EZ da nahikoa. Hi-

tzorduen arteko itxaronaldiak luzeegiak dira, pertsona batzuek ezin dute hamabost egun itxaron artatuak izateko, eta hori kasurik onean.

ASASAMen urtero pertsona gehiago artatzen ditugu, langile kopuru berarekin. Egoera hau ezin da denboran zehar mantendu. Administrazio publikoek finantzaketa handitu behar dute gure eskualdean. Izan ere, baliabideak Gasteizen zentralizatzen ari dira. Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legeak adierazten duen hurbiltasun-printzipioa gorabehera, Aiaraldeko errealitatea oso ezberdina da. Horren adibide da eskualdean buru osasuneko arazoak dituzten pertsonentzat 3 ostatatze-plaza baino ez egotea. ASASAMek urteak daramatza Aiaraldean ostatatze-plaza berriak sortzea eskatzen. Izan ere, gure ustez ez dira hurbiltasunaren, orekaren, eta lurralde-homogeneotasunaren printzipioak betetzen. Aipatutako legearen arabera, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren zerbitzuen hedapenak "ahalik eta erabiltzaileak beren ohiko gizarte-ingurunean integratze aldera hurbilekoenak izango direla" bermatu behar du. Azken urteotan, Aiaraldean bizi diren eta buru osasuneko gaixotasunen bat duten pertsonen Gasteizera alde egin behar izan dute, laguntza-baliabideak dituen etxebizitza bat eskuratu ahal izateko. Gaur egun, oraindik ez da abian jarri eskualdean ikuskapen handiko etxebizitza, eta baliabide horren eskariak gora egiten jarraitzen du.

Buru osasunean interesa duen edonor animatzen dut ASASAMera hurbiltzera eta gurekin kolaboratzera.



Kulturen ikusgarritasunaz

MERLIN MEDINA

Abokatu

Nire izena Merlin Medina da, eta Dominikar Errepublikatik etorri nintzen duela 16 urte. Hasieran, ikasketa proiektu bategatik etorri nintzen, baina Euskal Herria ezagutu nuen, eta geratzea erabaki nuen. Ni jada murgildua nago hemengo bizimoduan, baina kulturartekotasuna sustatzeko integrazio eta ikusgarritasun gehiago behar dira. Izan ere, zer egiten dugu guk kulturartekotasuna sustatzeko?

Ate asko jo behar dira, eta hori egin ahal izateko zarata gehiago egin behar dugu. Tamalez, emakume asko daude euren etxeetan gor-

deta, eta oso erreta. Bakoitza bere munduan dago, eta ez gara euren lekuan jartzen. Gu joan behar gara euren guren, dagoena erakutsi: formazioa, baliabideak... Zentzu horretan, nola udalei hala elkarteei laguntza baliabide eta zerbitzu gehiago eskatuko nizkieke; eta gizarteari kultura ezberdinetako emakumeei ateak irekitzeko. Ez badugu elkar ezagutzen, gu gara aukera hori galtzen ari garenak. Ez bagara integratzen, bi komunitate ezberdin egingo ditugu, eta mundu berean bizi gara. Urrunetik etorri dira, baina eurekin urrunago heldu gaitzke.



**HERRIEN
ALDE
LAN EGITEN**

**PARTE HARTU TALDE INDEPENDIENTEAN
ETA KUDEATU AIARA GUREKIN**



aiarabatuz@gmail.com





Motorrak berotzen

Urte bizia izango da 2023a politika instituzionalari dagokionez, Udal eta Foru Hauteskundeak egingo baitira maiatzaren 28an. Aiaraldeko talde politikoak hasi dira dagoeneko ordurako motorrak berotzen, eta hautagai ugari aurkeztu dituzte dagoeneko. Horrez gain, Espainiako hauteskunde orokorrak ere egingo dira, data oraindik zehaztu ez den arren. Ikusteke dago zenbateraino aldatuko diren Aiaraldeko eta Euskal Herriko mapa politikoak, eta horrek zer ondorio ekarriko dituen. Irudian, duela bi urte eginiko Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeak.



INSTITUZIOETATIK HARAGO

DAGOEN POLITIKA NAGUSI AURTEN

MARTXOA

Joseba Terreros, Arabako Kontzejuen Elkarteko presidente

Arabako Kontzejuen Elkarteko hauteskundeak egin zituzten martxoan eta Joseba Terreros arespalditzarra hautatu zuten berriro presidente izateko.



MAIATZA



Antonio Muñoz

Guardia Zibilaren kolaborazio eskaintzak eta mehatxuak

Guardia Zibilaren kolaborazio eskaintzak eta jazarpen etengabea jaso dituela jakinarazi zuen Galder Barbadok maiatzean. Handik gutxira, Sarai Goitia lekeitiarrak ere salatu zuen Amurrioko gazteari buruz galdetzen zuten dei anonimoak eta presioak jaso zituela. Entzutegi Nazionalak lau urteko espetxe zigorra ezarri zien iaz Galder Barbado eta Aitor Zelaia gazteei, eta Espainiako Auzitegi Gorenaren ebazpenaren zain jarraitzen dute.



Sortu

HAUTESKUNDERIK GABEKO URTEA IZAN DA 2022A. GAUZAK HALA, POLITIKA EZ INSTITUZIONALARI LOTUTAKO EKIMEN ETA GERTAKARIAK NAGUSITU DIRA ESKUAL-DEAN, HAINBAT ERAGILEREN ESKUTIK.

Emakume jeltzale beteranoenei omenaldia Alderdikide Egunean

EAJk Alderdikide Eguna ospatu zuen Urduñan eta Izaskun Landaia Emakundeko zuzendariaren laguntza izan zuen horretarako. Izan ere, herriko emakumezko jeltzale beteranoenak omendu zituzten.

EKAINA

Laudioko Gaztetxearen auzia

Laudioko Gazte Asanbladako kideak urte hasieran sartu ziren berriz Gaztetxean. Ekainean iritsi zen desalojo agindua, eta Ertzaintzak kargatu egin zuten hori salatze-ko eginiko protestetan. Horrez gain, 4.000 euroko isunak ezarri zituen guztira poliziak, Mozal legea baliatuta.



Irailean Urduñan, Independentzia Eguna

Independentzia Eguna antolatu zuen Sortuk urrian Urduñan. Ehunka lagun elkartu ziren ekitaldi politikoan, herri bazkarian edota iluntzeko kontzertuetan.



URRIA



Poliziaren bertsioa gezurtatu du GKS, atxiloketa baten harira

Gazte bat atxilotu eta beste batzuk identifikatu zituen Ertzaintzak Laudion ekaineko azken asteburuan, polizia iraintzea eta erasotzea leporatuta. Horren aurrean, agerraldia egin zuen Gazte Koordinadora Sozialistak, Ertzaintzaren bertsioa gezurtatu eta gazteen absuluzioa exijitzeko.

12 mugarri

Laudio berpizteko

UDALAREN BALANTZEA

OSO URTE BIZIA IZAN DA 2022A LAUDIOKO UDALARENTZAT. LEGEALDIKO PROIEKTU ESTRATEGIKO ASKO EGIKARITU DIRA, ETA BESTE HAINBAT ABIATU. HORREZ GAIN, LAUDIO BERE OHIKO BIZITASUNERA ITZULI DA, BI URTEKO ETENALDIAREN OSTEAN.



1. Historikoak izan dira aurtengo jaiak. Bi urteko etenaldiaren ostean. 100 ekitaldi baino gehiago antolatu ziren, eta guztira 15.000 ikusle baino gehiago batu ziren kontzertuetan.



2. Aurten lan handia egin da herriko ondarearen berreskurapenean. Horren adibide dira Jose Arrueren omenez eginiko ekintza-sorta, Ermualdeko Guda Zibilaren antzezpena edota 'Sinesmen eta kondairak' liburuaren argitaratzea.



3. Esleitu egin dira Antzokia eraikitzeko lanak. Datorren urtean hasiko dira obrak eta 2024. urtearen amaieran amaitzea espero dute.

4. Herritarren parte hartzerako baliabide berriak jarri dira martxan, Parte hartzea arautzeko ordenantzarekin eta Kultura Kontseiluaren eraketarekin, besteak beste.



5. Kirol azpiegitura berriak ditu Laudiok. Urte hasieran atondu zuten Latorroko pumptrack pista, eta auzo berean jarriko dute laster boulderra, frontoi estalian.



6. Hiri Antolamendurako Plan Orokor berria sortzeko lehen urratsa eman da, plana erredaktatuko duen enpresa kontratatzeko esleipenarekin.

7. Haurren parkeak eraberritzeko urrats garrantzitsuak eman dira. Lamuzako Parkean jolasgune berria atonduko da, Aretakoa berritu da eta Aldai plazan estalkia jartzeko proiektua abiatu da.



8. Kale garbiketa zerbitzua esleitu da. Zerbitzu gehiago barnebiltzen ditu kontratazio berriak, hilerriaren garbiketa kasu.



9. Tokiko merkataritza sustatu eta dinamizatzeko tresna eta egitasmo berriak jarri dira martxan. Laudio Berrikusi aplikazioa eta Laudioko Altxorak aitortza ekitaldia dira horren adibide.



*10. Ateak ireki ditu
Lezega Aretoak eta
Ahalduntze Eskola
abiatu da bertan,
beste ekimen
batzuekin batera.*

*11. Turismoa
sustatzeko proiektu
garrantzitsuak
abiatu dira: Laudioko
Basabideen atonketa,
turismo bulego
berriaren irekiera eta
Begiratoki Turistiko
Digitalaren sorrera.*



*12. Virgen del Carmen kaleko lokala eskuratu
da, Adinekoen Zentro Soziokulturalari
espazio gehiago emateko.*



ANDER AÑIBARRO MAESTRE 2019AN IZENDATU ZUTEN LAUDIOKO ALKATE. LEGEALDIA AMAITZEAREN HONETAN, UDALAK DITUEN ERRONKA NAGUSIEZ ETA URTEAK UTZITAKO MUGARRIEZ MINTZATU DA AIARALDEA KOMUNIKABIDEAREKIN.

Testua eta argazkia:
Aimar Gutierrez Bidarte

Legaldi zaila zela zenioen iaz, baina 2022a urte hobea izango zela iragarri zenuen. Hala izan al da?

Nik uste dut urte ona izan dela, kontuan harturik proiektu asko aurrera doazela. Aurten 2023ko aurrekontuak urtea amaitu aurretik onartu ditugu berri ere, oposizio talde baten babesarekin gainera.


Proiektu asko ere aurrera atera dira. Horien artean antzokiaren obra esleitu berri dugu, eta obrak

berriki hasiko dira. Gainera, Foru Aldundiarekin eta Eusko Jaurlaritzarekin ere hitzartuak ditugu hainbat inbertsio. Horiek ere proiektu berrietan egikaritu dira. Zenbakitara ekarrita, legealdi honetan 30 milioi euro baino gehiago eskuratu ditugu kanpotik etorritako inbertsioetatik: anbulategi berria, Nerbioi ibaiko obra guztiak, parkeko obrak, Audio Glass Hub... 300.000 euro baino gehiago bideratu ditugu aurrekontu-partehartzaileetara, eta inbertsio hauen arrakasta ikustea besterik ez dago;

pump-track pista leporaino dago beti. Lamuza Parkeko jolas parkea aldatzea proposatu ziguten ere, eta horretan ari gara, nik uste herritarrek gustuko izango dutela aldaketa.

Zailtasunak ere izan dira inbertsio batzuk aurrera ateratzeko, antzokiaren lizitazioan, esaterako.

Ez bakarrik antzokian, hainbat izan dira hutsik geratu diren kontratuak. Santa Luziako obren lizitazioa ere hutsik geratu zen eta igoe-



“Zergen berrikuspena oso gauza inportantea da udal baten jardunean, herritarrek zerbitzu egokiak jaso ditzaten”

ra bat ezarri behar izan genuen, baita Etxebarri baserriko obren lizitazioan ere. Kasu guztietan igo behar izan genuen prezioa. Egoera zaila da, ez bakarrik prezioek gora egin dutelako, baizik eta izugarriko lan-karga dagoelako eraikuntza enpresetan.

Zorionez, antzokiaren proiektua bideratuta dago honezkero, eta hau egikaritutako dugunaren ziurtasuna daukagu. Hogei urte baino gehiago daramagu azpiegitura honen atzetik, Pablo Gorostiagaren garaietan ere honetaz hitz egiten zen. Ulergaitza da Audio bezalako herri batean antzokirik ez izatea. Mugarri garrantzitsua izango da.

Uste dut udaletxe gisa egoera onean gaudela: kontuak saneatuta ditugu eta diru bilketa eguneratuta daukagu. Arlo horretan korporazio

honek egundoko lana egin du tasak eguneratzen eta gure gisako beste herri batzuekin parekatzeko ahaleginean. Zergen-berrikuspena egin dugu, hori oso gauza inportantea da udal baten egunero jardunean, herritarrek zerbitzu egokiak jaso ditzaten.

Urte honetan zehar, eta onartu berri diren aurrekontuetan, kulturaren aldeko inbertsioa aldarrikatu nahi izan duzue. Nola materializatuko da hori?

Kulturarekiko gure konpromisoa handia da. Kultura beharrezkoa dela uste dugu gure herriarentzako. Aurtengo aurrekontuetan %23,8 igo da kultur arlora bideratutako partida, eta Udal honetako bigarren arloa da, obra eta zerbitzuen arloaren atzetik.

Beste hainbat egitasmo ere jarri

ditugu arlo honetatik martxan: Kultudaberria ekimenaren barruko emanaldiak, Kultura Kontseiluaren sorrera... Hau ere garrantzitsuagoa izan da pandemia baten osteko egoera batean.

Orain arte Udalak talde kulturalak finantzatu ditu, eurek osatu zezaten herriko agenda kulturala. Aurten urrats bat eman dugu, eta eragileek ez ezik Udalak ere propio antolatzen ditu ekimen kulturalak. Horren adibide argia izan dira abuztuko jaiak: egundoko pizgarria izan dira herritarrentzat. Aurten jaietako ekintzetan egon den jende kantitatea ez da inoiz egon, eta horrek dirua ekarri du herrira.

Urtearen birpasarekin jarraituz, aurten bukaera eman zaio Aretako hiltegiaren aferari, baita judizialki ere. Zer nolako balorazioa egiten duzu?

Kontu zaila izan da hiltegiaren aferra. Prozedura judiziala ere nahiko arraroa izan da; hasiera batean kanpoan geratu nintzen ni, gerora, zorionez, Natxo eta Miguel Angel kanpoan geratu ziren ere. Guk hasieratik argi geneukan, eta teknikariek hala helarazi ziguten ere, erai-kin horrek ez zituela beharrezko baldintzak betetzen.

Guk diru-laguntzak atera genituen sakrifizioak egiteko bidaien gastuak kubritzeko. Sei hilabetetan diru-poltsatik 2.000 euro gastatu dira bakarrik, soilik lau abeltzainek eman dutelako izena diru-laguntzan.

Behin afera hori itxita, erakunde publiko zein abeltzainek sortutako egitasmo pribatuarekin izan ditugu bilerak, hiltegi zaharrak

utzitako hutsuneari irtenbidea bilatzeko asmoz. Proiektu bat dago mahai-gainean, eta hori bideragarria baldin bada, gure aldetik ez da inolako arazorik egongo gauzatu ahal izateko. Oraindik asko garatu behar da proiektu hori, ikusiko dugu fruituak ematen dituen. Uda-la hitz egiteko prest dago, baita lur zati bat lagatzeko ere, baldintza guztiak betetzen badira.

Udal hiltegiaren erakina Gazte Asanbladari eskaini zenioten otsailean. Nola kudeatu da Udaletik Gaztetzearen hustea?

Gauza bat utzi nahiko nuke argi, aurretik ere azaldu izan dudana: hiltegiaren erakina eskaini ge-

nuen, ez egokiena zelako, baizik eta une horretan, eta Gaztetzeari eskatzen zituen baldintzei begira, eskura zegoen bakarra zelako. Urte hasieran hainbat elkarrizketa izan genituen Gaztetzeko kideekin; eurak izan ziren, hain zuzen ere, negoziazio mahaitik altxatzea erabaki zutenak.

Une batean esan ziguten ez zekitelera ea gurekin gehiago bildu nahi zuten ala ez. Gure aldetik azaldu genien prest geundela alternatibak bilatzen jarraitzeko. Hori bai, hainbat gauza hartu behar dira kontutan: zenbat gazte diren, zer baldintzetan eta zertarako nahi duten espazioa. Kontzertuak egiteko

bada, hasieran planteatu bezala, ez du edozein espaziorik balio. Atea zabalik utzi genuen, baina ez dugu gaur arte inolako berririk jaso.

Aurrera begira jarrita, nolako izango dela aurreikusten duzue hasiera dagoen urte berria?

Urte berezia zalantzarik gabe. Hauteskundeak ditugu tartean eta horrek eragina du administrazioaren ohiko jardunean, apiriletik ekainera arte tramitazio asko gelditu beharko ditugu eta. Aurrekontuak onartuak ditugu honezkeroko, beraz, gure asmoa da urtarileko lehenengo egunetik hainbat kontu aurreratzen joatea: pleguak, kontratazioak, jaietako diru-laguntzak...



Euskara zigortzeko urteko erabaki politikoak

LAMIA ARCAS NOGALES

Laudioko EH Bilduko zinegotzia

15 egunez, gure kaleak euskararen aldeko ahotsez, kultur ekintzez, errebindikazioz eta kantuz bete dira. Euskaraldiaren amaiera da, eta berarekin, egindako promesa eta hartutako konpromisoena. Postureotik harago, gure herrian euskararekiko norabide-hausnarketa egitea dagokigu.

Orain dela hamabost egun, azaroko ohiz kanpoko osoko bilkuran, gobernu-taldeak erabaki zuen eskatzen zitzaie euskara maila lortu ez zuten funtzionarioen hizkuntza-profilak ezabatzea, funtzionarioen hizkuntza ofizialaren ezgaitasuna sarituz. Aitzakia ez zen oharkabea pasa, gizatasuna zen kontua, enplegua egonkortzeko prozesuan aurkeztu ezin diren funtzionarioak. Izan ere, gure euskara munduko bosgarren hizkuntzarik zailena da, hori ziurtatu zuen behintzat urte honen hasieran hain sententzia polemikoa eman zuen epaileak. EAJk aldebakarrez hartu zuen erabaki hura, sindikatuetako ordezkarien, euskara teknikariaren eta Hizkuntza Politika Sailaren txostenak kontra izanda ere.

Debatea langileen eta euskararen artean kokatzen da, norabide okerrean, langileen eskubideak bermatuak daudelako, non euskara ikasteko tresnak eta baliabideak dituzten. Ez da erreparatu, aldis, herritarren eskubideetan. Gutxi batzuen mesederako eta askoren kalterako hartutako erabakiak gorabehera, ahaztu egin dute jazarpena jasan arren bizirik dirauen hizkuntza dela, duela 2100 urtetik hona gutxienez.

Laudiorako lan egiten dugu



**JAKINDA
ARTARAZ
MARTIN**
OMNIAko zinegotzia

Une honetan, OMNIAtik esan dezakegu, beste behin ere, inbertsio handirik gabeko legealdi batekin topo egin dugula, EAJ-PNVren proiektu izartat iragartzen zena oraindik oso urrun baitago gauzatzetik.

Lau urte hauteskunde promesa horretatik eta Antzokirik gabe jarraitzen dugu. Audiok kirol-, gizarte- eta kultura-azpiegiturak behar ditu, baina horiek egiteko finantziarioa behar da. Aurten, OMNIAk JEZ berrikusteko 11 eskaera egin ondoren, eguneratu egin da azkenean, eta horrek 600.000 euroko aparteko bilketa ekarriko du urtean. Lastima urte hauetan guztietan diru hori biltzeko aukera galdu izana, Audiorentzat benetako aurrerapena izango baitzen.

Azken urte honetan, gure bizilagunen aldarrikapenak babesten jarraitu dugu (Artiach, Superberriak...). Baserritarren adierazpenekin bat egin dugu eta, beste behin, udalerrian hiltegi bat sortzeko alternatibak aztertzeko aurrekontu-sail bat aurkeztu dugu. Jakina, partida hori ez da onartu, EAJ-PNVren planak Zallako hiltegi batetik pasatzen baitira, ez Audiokitik.

OMNIAk audioarrentzat lanean jarraituko du, Audiiori udalerrri gisa hazten lagunduko dioten mozioak, proposamenak eta ekimenak aurkeztuz.

Laudiok aurrera darrai



**LOLI
MURIEL
AROCA**
*Laudioko PSE-EEko
zinegotzia*

2022. urtea, pandemiaren osteko erronken urtea. Berdintasun Saitetik gure proiektu nagusia Lezeaga Aretoa da, emakumeek eta emakumeentzako irekitako gunea. Bakardadearen Eskola du, eskualdeko proiektu aitzindaria, Laia Audio Eskola programazio zabalarekin; prestakuntza, prebentzio eta jolas tailerrak, erakusketak, zinema, hitzaldiak, eta abar, emakumearen inguruan. Berdintasun Kontseilua sortu eta abiarazi dugu baita ere.

Haur eta Gazte Saitetik gure gazteen eta haien ingurunearen osasun psikologikoan zentratu gara. Osasun Gelak programa garatu dugu, Audioko Lehen Hezkuntzako ikastetxeei laguntza ematen diena. Zuzen programak 12 urtetik gorako familiei laguntza eskaintzen die, gure gazteekin espazioa partekatuko duten Kale Hezitzaile batzuekin. Gainera, berdintasunari eta era guztietako adikzioak prebenitzeari buruzko tailerrak egin dira ikastetxeetan. Gure herriko Gizarte Zerbitzuetan gure adinekoen bizi-jarduerak artatzeko zerbitzu bat ezarri da: SOAV. Erretiratuen Kluba eta Audioko talde kalteberentzako laguntzak ere handitu dira.

Aurten, Boluntariotzaren Azoka egin dugu, gure elkarte guztiei babesa ematen dien figura hori dugulako Udalean.

Amurrioko

2022ko mugarriak

UDALAREN BALANTZEA

NORMALTASUNERA ITZULTZEKO URTEA IZAN DA 2022A. PANDEMIAREN OSTEAN, OHIKOAN BAINO ARRAKASTA HANDIAGOA IZAN DUTE AMURRIKO JAI ETA OSPAKIZUNEK, ETA EZOHIKO BESTE HAINBAT EKIMEN JENDETSU ERE BATU DIRA URTEAN ZEHAR. UDALAK, BERE ALDETIK, ABAGUNEA BALIATU DU HAINBAT PROIEKTU ESTRATEGIKO AURRERA ATERATZEKO.



Urteroko dinamikari jarraiki, auzo batzarrak antolatu ditu Udalak aurten ere, bizilagunen kezka eta beharrianak lehen eskutik jasotzeko.



AmurriokoEKIN aurrekontu parte hartzaileen bidez, 8 proiektu egikarituko dira 2022-2023 ikasturtean, orotara 430.000 euro baliatuta.



Hainbat ekimen jendetsuren epizentroa izan da Amurrio aurten. Bertatik abiatu zen 22. Korrika, eta Itzuliko 3. etaparen helmuga ere izan zen.



Bi urteko etenaldiaren ostean, inoiz baino indar handiagorekin heldu zien Amurriok abuztuko jaiei. Elkartasuna izan zen ospakizunetako osagai garrantzitsuena. Udalaren eta udalerriko elkarte mugimenduaren arteko elkarlanaren ondorioz, txosna solidarioa jarri zuten Mendiko Eskolako kontzertu-gunean, eta 4.500 euro biltzea lortu zuten bertan, X Hauskorra Sindromearen elkartearentzat.



Udalak aktiboki parte hartu du Amurrion Harro egunaren antolakuntzan eta sexu eta genero aniztasuna islatzeko eginiko murelean.

2016. urtean batu zen Amurrio Euskadi Lagunkoia ekimenera, eta aurten urrats garrantzitsuak eman ditu alor horretan, Amurrioko Adinekoen Kontseilua sustatuta.



Zainketen tokiko ereduak sakontzen ere dihardu Udalak. Eudelek gai horri buruz antolatutako mahainguruan parte hartu zuen Txerra Molinuevo alkateak, Amurrioko esperientzia jendarteratzeko.






*Haurren Pobrezia
Zero Herrialde
Aliantzara batzen den
Arabako lehenengo
udalerría bilakatu da
Amurrio.*



*'Aingurak' aurkeztu
zuen Udalak
udazkenean,
Amurrioko V.
Berdintasun Plana,
talde politiko guztien
parte hartzearekin.*



*Merkatu zaharra Gizarte Etxe bihurtzeko
proiektua osatu du Udalak, eta datorren
urtean ekingo die horiek errealitate
bihurtzeko lanei.*

*Aurten egin dira skate parkea
hobetzeko lanak. Horiek esker,
hainbat topaketa arrakastatsu egin
dira dagoeneko.*





BI URTE IGARO DIRA DAGOENEO TXERRA MOLINUEVO LAÑAK JOSUNE IRABIENEN LEKUKOA HARTU ZUENETIK AMURRIOKO ALKATE MODUAN. 2022AN EMANDAKO URRATSEN INGURUAN MINTZATU DA.

Testua: Txabi Alvarado Bañares

Argazkia: EAJ-PNV

"Amurrioko familiak egongo dira gure politiken erdigunean datorren urtean". Hala esan zenuen duela urtebete eginiko elkarrizketan. Helburua bete egin dela esango zenuke? Zertan?

Bai, noski. Urtero, aurrekontuak planifikatzen direnean, kontuan izaten ditugu, oso garrantzitsua da guretzat pertsonak eta zaintzak udal-politiken erdigunean jartzea. Hau ez da ekintza konkretu batean soilik islatzen. Alde batetik, inpor-


tantea da gizarte zerbitzueta-
ra bideratutako aurrekontua,
Amurrioko familia bakar bat
ere atzean gera ez dadin; eta,
bestetik, Udaletik antolatutako
egitarau kulturalak edota bide-
ratutako zerbitzuak, esaterako,
datorren urtean martxan jarriko
den ludoteka berria.

Parte hartzeari dagokionez, auzo batzarrak eta aurrekontu parte hartzaileak izan dira ekimen garrantzitsuenak. Urtez urte errepikatzen di-

ren egitasmoak dira horiek. Zer garapen aurreikusten dizkiozue datozen urteei begira?

Herritarren partaidetzaren alorretik egin genuen hausnarketa baten parte dira. Bertan, partaidetzaren bidez eraldaketa soziala sortzea bilatzen genuen.

Helburu horrekin, parte hartzeko gune puntualak sortu ditugu, hala nola aurrekontu parte-hartzaileak, lurraldekoak, auzoetako batzarrak eta sek-



“Partaidetzaren bidez eraldaketa soziala sortzea bilatu dugu”

torialak, adibidez, adinekoen kontseilua, haurren elkargunea eta emakumeekin eta mugimendu feministarekin eginikoa.

Nagusiei lotutako politike-tan, Amurrioko Adinekoen Kontseiluaren sorrera izan da ekimenik esanguratsuenetakoa bat. Zer nolako garapena nahiko zenukete or-gano horrek izatea datozen urteetan?

Funtsezkoa da Amurrioko Pertsona Nagusien Kontseilua aktibo mantentzea eta gaur egun duten jarduera-eritmoari eustea. Etorkizuneko helburuen artean, parte-hartzaileen kopurua eta taldearen aniztasuna handitzea ere aurreikusten da, beste interes batzuei hel-du ahal izateko. Udalarentzat,

APNK adinekoentzako politika hobeak garatzeko laguntza bat da, zahartze aktibo eta osasun-garriko politikak eta nahi ez den bakardadea prebenitzeko edo-ta arintzeko politikak bultzatuz.

Jaiak itzuli dira Amurriona. Aurtengo edizioan hainbat berrikuntza sartu dituzue, jai-guneak ugarituta eta Mendiko Eskolan elkartasun txosna jarrita. Ildo horretan jarraitzeko asmoa duzue datozen urteetan ere?

Aurten jaietan jarritako txosna solidarioa Udalaren eta udal-erriko elkarte mugimenduaren arteko elkarlanaren ondorio izan da. Honelako ekintza solidario eta inklusiboetan Amurrioko Udala beti izango da bidelagun.

Amurrioko festetan zeharkako esparruak landu daitezkeela hausnartzetik sortu da ekimen hau, hala nola berdintasuna, iraunkortasuna, inklusioa, kulturartekotasuna eta elkartasuna. Amurrioko jaietan etorkizunera begira lan egiteko bidea izango da hau.

V. Berdintasun Plana onartu du aurtengo Udalak. Zertan lagunduko dio Udalari berdintasun politikak garatzen?

‘Aingurak’, Amurriok izango duen Berdintasunaren V. Plana, adostasun politiko bidez onartua, lau ildo garrantzitsu izango ditu oinarri: Gobernu Ona, Emakumeen eta LGTBIQA+ kolektiboaren Ahaldu-tzea, Ekonomiak eta gizarte-antolamendua eraldatzea eskubideak bermatzeko eta emakumeen eta LGTBIQA+ kolektiboaren indarkeriarik gabeko bizitza.

Horrez gain, Plan honek ere aurrera pausu handi bat aurreikusten du, Berdintasun teknika-riaren plaza %100era handituko da, beraz, baliabide gehiago bideratuko zaizkio arlo honi. Formazioa ere aurreikusten da plan honetan, bai politikariena zein udal langileena.

Skate parkeko bowla, merkatu zaharraren eraberritzea... obra eta proiektuak egikaritzeko urtea izango da 2023a? Bestelako egitasmo-rik aurreikusi duzue?

Skate parkeko bowla bukatuta dago, baina handitu egingo da, eta arrakasta handia izaten ari da aisialdirako gune berri hau.

Honi lotuta, baina beste publiko bati zuzenduta, Ludoteka berria martxan izango dugu 2023an.

Horrez gain, Zabaleko Kaleko aparkalekua martxan dago, eta bukatzeaz Etxegoien kalean egin dena. Datorren urtera begira espero dugu epaitegi ondoko aparkalekuaren obrak hastea. Gainera, merkatu zaharreko eta eguneko zentro berriko obrak hasiko dira. Amurrio ez da gelditzen eta bide honetatik jarraituko dugu.

Berriki jakin izan dugu datorren urteko udal hauteskundeetan alkategai moduan

“Oso pozik eta gogotsu nago, urte hauetan egindako lanari jarraipena eman nahi diot eta baita proiektu berriak bultzatu ere”

aurkeztuko zarela. Noiz hartu zenuen erabakia? Zerk bultzatu zintuen horretara?

Amurrioko EAJ-PNVko juntak proposatu zidan datorren urteko udal hauteskundeetako zerrenda burua izatea, eta baiezta eman nien. Horren ondoren, barne prozesua eta gero, alderdikideek babesa eman zidaten.

Oso pozik eta gogotsu nago, urte hauetan egindako lanari jarraipena eman nahi diot eta baita proiektu berriak bultzatu ere. Lehen aipatu bezala, Amurrio ez da gelditzen, herri inklusiboa, solidarioa eta berdintasunean bizitzeko aukerak ematen dituena nahi dut.



Abante!

IÑAKI IBARLUZEA ORTUETA

EH Bildu Amurrioko zinegotzia

EH Bilduren 3. legealdia izan da amaitzeko gutxi falta duen hau. Ilusioz ekin genion duela 12 urte, eta gogotsu eutsi diogu erronkari 2022an ere herriaren gure ikuskera gauzatzeko. 2022a ez da urte erraza izan, informazio eta gardentasun falta izan baitira, berriro ere, ezaugarri nagusiak. Batzorde informatiboetara joan eta batzordeburuak erantzuten ez jakitea ohiko bihurtu da. Edota eskatutako informazioa ez ematea. Honek oposizioaren lana izugarri zaildu du.

Hala ere, EH Bilduk proposatutako edo bultzatutako zenbait proiektu gauzatzeko bidean jarri dira: Landazuri, Aiaraldea berpizteko plana, berdintasun teknikariaren kontratazioa... Gobernu taldearen aldetik presa sumatu dugu ikusgarriak diren proiektuak aurrera ateratzen, nahiz eta zenbaitetan, osatu gabe geratu. Itsasontzi handiak portuan lotuta. Honen adibide, merkatu zaharraren eraikina zaharberritzea, erdibidean geratuko dena, edota Landazuri proiektuaren Eguneko zentroa, etorkizunean ezarriko omen dena..

Egun, Amurrioko EH Bildu egitura sendoa gara eta herria zuzentzeko aukera argia daukagu. Herriak hori erabakitzen badu, inork ez dezala zalantzarik izan, arduratsu jokatu dugu eta udalgintzatik ere Euskal Herri euskalduna, feminista, subiranoa eta justua eraikitzeko lanean arituko gara.

HAPOa eta etxebizitza eskubidea



**KEPA
GONZALEZ
GARCIA**

*Orain Amurrioko
zinegotzia*

Behin betiko onartu da *Amurrioko Hiri-antolamenduko Plan Orokorra*, eta zenbait kontuetan kritikoak bagara ere, gure baldintzapeko bablesa eman genion hura gauzatzeari. Izan ere, planak datorren hamarkadan Amurrioren eta etxebizitzaren egoeraren etorkizuna zehaztuko du. Plana burutzeak, hirigintza funtzioaz gain, funtzio soziala ere izan behar du, biztanleen interesen mesedetan jardun behar du eta ez interes pribatuaren mesedetan.

Udalak Planean aurreikusitako etxebizitzaren garapenean jarduten badu soilik izango da posible etxebizitza eskuratzeko arazoa konpontzea. Hori da azken hamarkadetan gertatu dena, eta hirigintza kontrolik gabe garatzea eta jabetzako eta alokairuko prezioek gora egitea eragin du.

Lortu dugu 2023ko aurrekontuan 800.000 euro inbertitzea, modu mailakatuan babes publikoko etxebizitzak eraikitzeko faseei ekin ahal izateko (Plangintza Partziala, birpartzelazio-espedienteak, urbanizazio-proiektua, Plangintza Berezia, xehetasun-azterlana, zaratari, generoari, urei eta abarri buruzko txostenak), eta ehuneko handi batean alokairu sozialera bideratzeko. Gure kalkuluen arabera, alokairu sozialeko 200 etxebizitza baino gehiago lor daitezke.

Itxaropena (II) eta lidergoa



**DAVID
ROMERO
CAMPOS**

*PSE-EEko Amurrioko
zinegotzia*

laz, ziurgabetasun ueak bizitzen ari ginela adierazi nuen. Momentu hartan, COVID-19a zen horren arrazoia. Alabaina, *Errusiak Ukrainaren aurka egindako operazio bereziaren* hondamendia gure zain zegoen. Idatzi nuenez, erronkaz beteriko munduan, itxaropena dago. *Zientzia faltsua dago, promesa faltsuak daude, baina ez dago itxaropen faltsurik. Itxaropena baino ez. Urtebete igaro da, eta oraindik argi dut: lidergoa falta denean itxaropena ahuldu egiten da, baina ez da desagertzen.*

Eta horri buruz hitz egin nahi dut. Amurrioren, plan eta promesa gutxiago behar dira eta lidergo handiagoa. Bizigarria den zerbait behar dugu, udalerrientzat amets bat inspiratzeko gai den pertsona bat behar da. Amurriok merezi eta behar duenaren alde lan egiteko prest dagoen jendea behar da. Segurtasun ezak beldurra eragiten digun uneotan, berogailua, gasolina eta erosketasaskia nola ordaindu pentsatu behar dugun uneotan, ezin gara populisten edo kudeatzaile soilen atzaparretan erori.

Lidergoa behar dugu. Sustatu eta motibatuko duen norbait, Amurrioko erronkei eta beharrei erantzungo dien norbait. Batuko (eta ez bananduko) duen norbait, Udalaren buru jarri eta biztanleei konfiantza eta itxaropena helaraziko die-na. Batez ere, itxaropena. Etorkizun hobe baten itxaropena.

Urduñako

2022ko mugarriak

UDALAREN BALANTZEA

PANDEMIAN ZEHAR UDALERRI AKTIBOA IZATEN JARRAITU BADU ERE, NORMALTASUNERA ITZULTZEAK ETORKIZUNeko URDUÑA MARRAZTUKO DUTEN PROIEKTU GARRANTZITSUAK ABIAN JARTZEA ETA HAINBAT AUZO- EKIMEN LORATZEA AHALBIDETU DU. GOGO HANDIZ ETA INDARRAK BERRITUTA ARITU DIRA URDUÑARRAK AURTEN.



Foru Plazako espaloia birgaitu dute, baldosak ordezkatzuz, irisgarritasuna hobetzeko. Horrez gain, trafiko norabideak aldatu dira aurtten, oinezkoentzako espazioa handituta eta pertsonak erdigunean jarrita.



Korrikaren 22. edizioa Urduñatik igaro ez bazen ere, euskararekiko konpromisoa agertu zuten urduñarrek, baita Euskaraldian ere.



Pandemiaren osteko giro ederra sortu zen Otxomaio Jaietan eta hiritarren parte-hartzea hobezina izan zen, eguraldiak lagunduta, gainera.



Urduñako eta Villalba de Losako udalek indarrak batu zituzten Txarrazoko Monumentuaren egoerak aztertzeko. Hortik, finantzazio bila dabilen talde eragilea sortu da, Urduñako hainbat herritarrekin batera.




'0 zabor' kanpaina garatu du Ekoizpen arloak. Horren barruan, udal sukaldean eta jantoki kolektiboetan neurketak egiteaz gain, hiritarrek hainbat ekintzen bitartez hartu zuten parte.



Gerra Zibilaren eta frankismoaren biktimen gorpuzkiak hartuko dituen Duintasunaren Kolonbarioa inauguratu zuten udal hilerrian, besteak beste, 2014an bertan topatutako Espetxe Zentraleko biktimen 14 gorpuzkirekin. Orain, beste 53 gorpu aurkitu ditu Aranzadi Zientzia Elkarteak hilerriko sarrerako eskuinaldean.

10. edizioa ospatu du Urdufolk jaialdiak. Jaialdi horri zein I. Festi Aefat Urduñari esker, 11.000 euro eskuratu zituen AEFAT elkarteak ataxia telangiectasiaren ikerketan laguntzeko.





Urduñako HAPOa birdiseinatzeko parte-hartze prozesua abiatu da, proposamenak egiteko aukera bermatuta.

Tokiko ondarea balioan jartzeko helburuarekin, harresi-barruko parkearen proiektua aurkeztu du Udalak.



Hirigintza arloak Maria Dolores Madaria eta Landatas auzoak birgaitzeari ekin dio. Horretarako, 1.650.000 euro jaso ditu Udalak Eusko Jaurlaritzaren eskutik, aipatutako auzoetako bizilagunei emango dizkiena dirulaguntza bidez.



ITZIAR BIGURI UGARTE URDUÑAKO ALKATEA DA. URTE ALDAKETAREN ATARIAN, 2022KO ZEDARRI NAGUSIAK AZALDU DITU. IZAN ERE, ETORKI-ZUNARI BEGIRA OINARRI SENDO ANITZAK FINKATU DITUZTE: ENERGIA ETA ELIKADURA BURUJABETZA, KASU.

Testua: Izar Mendiguren Cosgaya
Argazkia: Urduñako Udala

Udal sukaldea, elikadura burujabetza... Zer mami utzi du urteak?

Proiektu batzuk kontsolidatu egin dira, elikadura burujabetza kasu. 2022an Plan estrategikoa egin dugu, eta horrek 2025 bitarteko ibilbidea markatuko du; azpiproiektuak barne. Udal sukaldean, esaterako, eskola eta egoitzari menua emateaz gain, jantoki sozial bat zabaldu nahiko genuke. Horrez gain, Bedarbide elkartearekin lanean gabiltza, Haragi Eraldaketarako Zentroa


eraikitzeko. Urduñako zein eskualdeko ekoizleentzat hiltegi txikia izango du, eta obrategia. Gainera, ikasteko modulua jarri nahi dute; eta hezkuntza lerroa abiatu.

Memoria historikoarekin kolunbarioa inauguratu duzue.

Historikoa izan da: lehenbizikoz lortu da elkartzera udal instituzioak, alderdi politikoak eta Espainiako estatuko ordezkariak zein Frankismoaren biktimen familiak. Bere garaian 14 gorpu atera genituen, baina memoria

historikoa berreskuratzen jarraitu dugu. Estatuko dirulaguntzari eta Urduñako familien prestutasunari esker, sarrerako eskuinaldeko nitxoak bota eta ondoren hormigoi azpiko gorpuak lurretik ateratzeari ekin diogu, Gogorak Aranzadirekin duen programaren barruan. Beste 53 gorpuzki topatu ditugu azken indusketetan. Gertaera historikoa izan da.

Harresi historikoak eta parkeak garrantzia hartuko dute, proiektu berria medio.



“Harresiko hiri parkeekin espazio publikoak bultzatuko ditugu klima aldaketari aurre egiteko”

Gure ondarea eta historia berreskuratzea da. Bizkaiko harresirik garrantzitsuenetako bat dugu (XIII. mendekoa). 2020an harresiko kubo-teilatua konpondu zen, baina bazen garaia beste erabilera bat emateko. 2023an egingo ditugu obrak, eta bi hiri parke izango ditu. Harresiaren zantia lasaitasun ikuspegitik eraikiko dugu, eta bestea mokadurako edo aisirako gunen moduan. Hiri parkeekin espazio publikoak bultzatuko ditugu klima aldaketari aurre egiteko.

Kale bizitzari dagokionean, zein obra egin dira?

Maria Dolores Madaria inguruan auzokideekin adostu dugu diru publikoa bideratzea espazio peatonala eta plaza publikoa bilakatzearen truke. Poza Lizentziatuko auzunean berdina egiten ari gara,

“Historikoa izan da: lehenbizikoz lortu da elkartzea udal instituzioak, alderdi politikoak eta Espainiar estatuko ordezkariak zein Frankismoaren biktimen familiak”

eta Antiguara proposamen bera eramango dugu. Bestalde, Juan Garain aparkalekua mantentzea erabaki dute bizilagunek, baina zelaia urbanizatuko dugu aparkalekua handitzeko. Horrez gain, bidegorria konpondu da, pista batzuk asfaltatu dira, skate parkean bainera bat jarriko da, rokdromoa egiten dabilta...

Urduñako herri eskolan ere aldatetako datoz.

Hormigoia kenduko dugu, eta espazio berdea handitu. Zuzendaritza curriculum pedagogikoa moldatzen dabil gune berdeak gehiago erabiltzeko. Besteak beste, ikasteko gune edo gela bat jarriko da kalean.

Hanka ugariko proiektua da: batetik, herritarrei gozatzeko gune berdea emango zaie; eta, bestetik, izugarria izango da ingurumen zein hezkuntza ikuspegitik sortuko den espazio berdea; aldaketa klimatikoa saiheste aldera.

Energiari dagokionez, plan estrategikoak zer bide markatuko du?

Energia estrategikoa da. Gure proposamena energia subirano-tasuna lortzea da. 2022an frontoian plaka fotoboltaikoak jarri ditugu, udal eraikinetarako energia sortzeko.

Aldi berean, energia diagnostikoa egiten gabilta, eta komunitate energetikoa sortzen hasi gara: 50 pertsona elkartu gara. Aiaraldean sortutako lehen komunitate energetikoa izango da Urduñakoa (bailarakoa izango da, Urduñakoa eta Arrastariakoa).

Funtsean, elikadura burujabetzarekin egindakoaren antzekoa da: plan estrategikoa egingo dugu energia burujabetza lortzeko herritarrekin, elkarteekin, komertzioekin eta Udalarekin.


Urte estrategikoa izan da, beraz, 2022a?

Bai. Etxebizitza, energia, elikadura burujabetza... Orain arte sustapen ekonomikoa turismoari begira egon da (komertzioak, ostalaritza...) eta industria sektorea alboratuta geratu da. Pertsona baten inkorporazioarekin, gutxinaka badoa industria bere tokia hartzen. Bestalde, Urduña

“Jendeak ez du ulertzen, esaterako, zergatik bihurtu dugun Foru plaza oinezkoentzat bakarrik. 2014. urtean trafikoaren ikerketa egin zen, eta egungo egoera aztertuko dugu Urduñako trafiko guztia antolatzeko”

hiri bezala garatzen eta ezaugarritzen joateko, HAPOa berritzen hasi gara. Jendeak ez du ulertzen, esaterako, zergatik bihurtu dugun Foru plaza oinezkoentzat bakarrik (udaletxe aurreko zatiak ez du trafikorik). 2014. urtean trafikoaren ikerketa egin zen, eta egungo egoera aztertuko dugu Urduñako trafiko guztia antolatzeko. Horretarako parte hartze prozesua egingo dugu herritarrekin eta hiriko komertzioekin, eta hortik ateratako proposamena jarriko dugu martxan. Espazioak herritarrentzat izan behar dira, eta Alde Zaharra zaindu behar dugu.





EH Bildu Urduña, entzun gabe gobernatzea

JUGAITZ YARRITU

EAJ-PNV Urduñako zinegotzia

Herritarren proposamenek ez dute oraindik Urduñako Gobernuaren arretarik izan, iaz bezala. Guretzat oso aberasgarria da zuen ekarpenak entzuten jarraitzea, batzarrera eramateko.

Eta horrela jarraituko dugu. Izan ere, guretzat Udalaren barruan udalerrriaren ezagutza orokorra eta xehetasun txikiak zabaltzeko modu bat da, entzungorrei zerbait entzunarazteko biharamunean.

2023 honetarako, zuen proposamenak, iradokizunak edo udalerriri buruzko edo udalerrirako beste edozein ideia entzuteko metodoak eta moduak hobetu nahi ditugu. Pleno guztietan helaraziko ditugu, gutxienez oihartzun bat gera dadin udaletxean, agian biharko egunean entzungo dena.

Argazkia: Paulo Etxeberria

Aiarako

2022ko mugarriak

UDALAREN BALANTZEA

ETORKIZUNERA BEGIRA JARRI DA AIARAKO UDALA 2022AN. GARAPEN JASANGARRIAK DATOZEN URTEETAN IZANGO DUEN GARRANTZIAZ JAKITUN, HORRI BEGIRAKO PLANGINTZA ETA EKIMEN ZEHATZAK OSATZEARI EGIN DIO TOKIKO ERAKUNDEAK.



Mugikortasun jasangarria sustatzea izan da Aiarako Udalaren aurtengo helburuetako bat. Urte hasieran ekin zion tokiko erakundeak erronka horri, bizikletak mantendu eta kopontzeko gune bana eraikiz Arespalditzan eta Luiaondon. ‘Bizipuntu’ izena jarri diete bi gune horiei, eta txirrindulariek ohikoan behar dituzten tresnekin hornitu dituzte, gurpilak puzteko ponpak tartean. Horrez gain, ur-korrontea ere badute, bizikletak garbitu ahal izateko.





Aiarako Udalak
Ayuntamiento de Ayala

Irailean aurkeztu zen Aiara Lagunkoia proiektua. Talde motorra osatzea izango da lehen erronka. Talde hori bizilagunek zein elkarteek osatuko dute, eta bertan proposatu eta garatuko dira ekintza zehatzak, Aiara guztiz lagunkoia izan dadin.



Mugikortasun jasangarria sustatzea ere izan zuen helburu irailean eginiko Aiarako Bizikleta Egunak.



Aiaran egin zen 2030 Eskola Agendarako hirugarren Eskualde Foroa. Aiaraldeko 80 ikaslek hartu zuten parte ekimenean. Lan-taldetan banatu ziren, jasangarritasunari, bioaniztasunari edota klimaren aldeko ekintzei lotutako ekimenak pentsatzeko.

Aiaraldeko Euskararen Eguna ospatu zen Luiaondon udaren atarian. Ehunka lagun bertaratu ziren egun osoko egitarauaz gozatzera.





Aiarako Udala
Ayuntamiento de Ayala



Aurten Aiarako Udalak garatutako ekimen guztiek oinarri bera izan dute komunean: partaidetza. Parte hartzea izan da oinarri udal aurrekontuak osatzerako orduan, eta herritarren inplikazio eta aktibazioa ere funtsezkoa izan da beste ekimenetan, Agenda 2030 edo Aiara Lagunkoian, esaterako.



GENTZA ALAMILLO UDAETA AIARAKO ALKATEAK AURTEN UDALAK BETETAKO LANAREN BIRPASA EGIN DU. KEXAAKO MONUMENTU HISTORIKOA ARABAKO FORU ALDUNDIAREN ESKUETAN GERATZEA HARTU DU AMAITZEAR DEN LEGEALDIKO MUGARRITZAT.

Testua eta argazkia:

Aimar Gutierrez Bidarte

Nola baloratzen duzue 2022a Aiarako Udaletik?

Nondik gentozen ikusita, urte oso positiboa izan dela uste dut. Nabarmenduko nuke partaidetza alorrean egindako lana. Aurten-goia izan da herritarrek udalerriko aurrekontuetan parte hartu duten lehendabiziko aldia.

Agenda 2020-2030 ere abian jarri dugu aurten. Hortik ondorio ugari atera dira eta horiek aplikatzeari ekin diogu ere. Aiara Lagunkoia proiektua izan da ikasturteko beste

mugarrietako bat. Vital Fundazioarekin batera garatu dugun proiektua da hau. Jende helduarentzat herri erakargarriagoa eraikitzea da asmoa. Lanketa egiten ari gara lantalde desberdinekin, udalerrian ikusten dituzten gabeziak identifikatu eta hauek hobetzeko helburuarekin.

Euskara arlotik ere partidak handitu egin dira aurten, eta zentzu horretan guretzat ohorea izan da Aiaraldeko Euskararen Eguna gure herrian ospatu izana.

Azkenik, Patxita etxeko esleipena ere abian dago. Hori ere mugarrigarrantzitsua izango da. Aiara geroz eta handiagoa da, eta geroz eta espazio gehiago behar ditu herria kulturalki dinamizatzeko. Zentzu horretan, Arespalditza eta Luiaondo udalerriko bilguneak dira eta, beraz, azpiegiturak hobetzen joan behar dugu gutxika.

Agenda 2020-2030 aipatu duzu, zeintzuk dira horren baitako proiektu nagusiak?

Hainbat lan-lerro ditugu abian.

“Guretzat legealdiko albisterik garrantzitsuena da Aldundiak Kexaako monumentua erosi izana”

Proiektua diseinatu dugu honez-keroko plaka-fotoboltaikoak jartzeko bai Etxaurren Ikastolako teilatuan, baita Arespalditzako kantxa estalian ere.

Ikastolako berogailu sisteman ere inbertsio handia egin dugu: gasoil sistema batetik pellet sistema batera igaroko gara. Proiektu integrala da hori, berogailu sistema ez ezik, ur beroa eta aire bentalazioa ere aldatuko dugulako. Kontsumoa ahalik eta gehien murriztea da asmoa.

Administrazio Batzarrak dira Aiarako ardatz nagusia, zein egoeratan daude?

Urtean zehar harreman jarraitua daukagu Administrazio Batzarrekin eta maiz elkartzten gara bertako ordezkariekin. Administrazio Batzarrei dagokienez, aurtien bi zer-

bitzu berri jarri ditugu abian. Alde batetik, bideen garbiketa urtean behin egitetik sei hilabetero egitera igaro gara. Izan ere, bide asko urte amaierara nahiko zikin eta hondatuta iristen ziren. Bestetik, altueran sastrakak ere kendu ditugu, herrietara kamioien iritsiera errazteko asmoarekin. Aurrerantzean, beharra duten Administrazio Batzarrei urtero eskainiko diegu zerbitzu hori. Horrez gain, Udalak hiru arlotan laguntzen ditu Administrazio Batzarrak: argiteria publikoa bezalako zerbitzuak, proiektu zehatzak aurrera eramateko dirulaguntzak eta, azkenik, Tokiko Erakundearen Finantzaketaren parte dira azken legealdi honetatik aurrera.

Aurtengo beste mugarrietako bat herrietako jaien itzulera izan da.

Bai, eta balorazio oso positiboa

egiten dugu. Guztiok behar genituen jaiak. Ez bakarrik Aiarako San Prudentzio jaiak (eguraldia lagun izan ez dugun arren), baita Luiaondoko, Lantenoko eta gainerrako herrietako jaiak ere. Asko eskertu behar dugu talde kulturalen eta kirol taldeen atzean dauden herritar guztien lana, horiei esker gozatu ahal izan ditugulako gure herrietako jaiak. Guztiok nahi ditugu festak, baina horien atzean beti dago norbait bere lehentasunak alde batera utzi eta herriaren alde lan egiten duena.

Arabako Foru Aldundiak Kexaako monumentu historikoa erostear dago.

Guretzat legealdiko albisterik garrantzitsuena da. Kexaa beti izan da udalerriko erreferente bat, eta Aldundiarekin bildu izan garen aldiro azpimarratu dugu guretzat ezinbestekoa zela eraikina erakunde publiko baten eskuetan egotea. Erosketaren albistea oso pozgarria da. Lan asko dago orain egiteke, baina esku onetan dago.

Orokorrean, nola baloratzen dituzu azken lau urteak?

Legealdi berezia izan da, zalantzarik gabe. Pandemia tarteko, lau urtetan egin beharrekoak bi urtetan egin behar izan ditugu. Pandemia egoerak iraun bitartean, egunez egun herritarren beharrei erantzuten genien soilik. Egoera ekonomikoa nahiko latza izan da une batzuetan, baina Udaleko diru sarrerak mantentzeaz gain, Administrazio Batzarren partidak mantendu ditugu, baita zerbitzu publikoak ere. Baina balorazioa positiboa da guztiz. Gu programa batekin sartu ginen eta ahal izan dugun neurrian betetzen joan gara.



Geldirik egotea ez da aukera bat

KARMELE POBLACIÓN MARTINEZ

EH Bildu Aiarako zinegotzia

Eraldaketa handiko garaiak bizi ditugu, eta Aiarako EH Bildurentzat geldirik geratzea ez da aukera bat. Aurrera ez egiteak atzera egitea ekar dezake. Gu, bide horretan aritu gara orain arte, jarraian azalduko ditugun ataletan. Hiru urte baino gehiago igaro dira EH Bilduk banda zabala gure eskualdean zabaltzen ari zen moduaren gaineko kezka azaldu zuenetik, zerbitzu guztiak herritar guztiengana hel daitezzen. Oso geldiro ari bada ere, orain arte ailegatu ez den tokietara hasi da hedatzen. Joan den maiatzean energia-komunitateak eratzeko aukerak aurkeztu genituen. Komunitate txikiak dira. Abantaila da Europak diru-laguntza gehiago ematen dizkiela mota horretako komunitateei partikularrei baino, eta komunitatea dela behar duen energiaren zati bat sortzen duena. Gure mendietan eukaliptoen inguruko erregulazioa eskatu dugu. Espezie horrek lurrak pobretzen ditu, lehortzen ditu eta suteak izateko arriskua areagotzen du. Mendi-zerraren atalean, mendiei buruzko Foru Araua, naturgune horien erabilera arautzen duena, behingoz betetzeko eskatzen dugu. Era berean, lehenbailehen larreen ordenantza izapidetu dadila eskatu dugu, Aiarako abeltzaintzako ustiatzearen kalteberatasun-egoerari amaiera emateko. Murgako poligonoari dagokionez, industria-gune hori biziberritzeko, duela bi urte hitzartutako ikerketa eginda dago eta espero dugu hurrengo urteetan erreferentzia izatea. Askok dira garai honetan ditugun erronka berriak eta guk, orain arte bezala, ideiak, proposamenak eta irtenbideak emango ditugu.





Aiara maite?

IRATXE PARRO UZQUIANO

Aiara Batuzeko zinegotzia

Hauteskunde-kanpainan aho handiz aipatzen da AIARA, eta hala ere, behin hauteskundeak igarota, Aiarak indarra galtzen du, eta benetan garrantzitsua dena azaleratzen da. Baina, kanpaina garaian “nire postua, nire alderdia” esatea ez da politikoki zuzena. Ikusi dugunez, hori da Gentza Alamillori azken lau urteotan gertatu zaiona. Izan ere, gehiengo osoak bera den bezala agertzeko aukera eman dio. Udalerria eta haren beharrak ezagutzen omen zituenez, Aiararen eta bertako biztanleon aldeko kudeaketa defendatzen bazuen ere, azkenean honako hauek definitu dute bere kudeaketa:

1. Interes alderdikoia: uraren kudeaketa eta saneamendua.
2. Ezagutza gutxi, interes gutxi edo gaitasun gutxi: Administrazio Batzarren egoera eta horiei laguntzea. Biztanleria zahartzen ari da, tramitazio burokratikoa zaila da, eta Gentzak teknikariak kontratatzea baino ez du bideratzen, udalaren lana babesteko. Figura berri bat kontratatu du, lanaldi erdiko ardurarekin, Batzarrei laguntzeko. Baina, azaldu duenaren arabera, ezin du paperak betetzen lagundu. Benetan ezagutzen al du Batzarren beharra? Zalantzarik gabe, ez. Edo ez ditu lagundu nahi. Edo ez da kudeatzeko gai, eta Udaleko idazkaritza da figura hori kudeatzeko arduraduna.



Argakia: Arabako Foru Aldundia

Okondoko 2022ko mugarriak

UDALAREN BALANTZEA

BI URTEKO ETENALDIAREN OSTEAN, COVID-19AREN AURREKO GARAIETARA ITZULI DA OKONDO. HORREN SEINALE DIRA UDALERRIAN AURTEN EGINIKO JARDUERAK IZANDAKO PARTE HARTZE HANDIA.



Martxoaren 8ko mobilizazioak eta jarduerak jende ugari bildu zuten, Okondo herri feminista bat izan behar dela aldarrikatzeko.

Aste klimaren barruan, brigada herritarra antolatu zuten Okondon herria auzolanean garbitzeko.



Euskaraldiak ere jende ugari batu zuen Okondon. Umorez eman zioten hasiera hizkuntza ohiturak aldatzeko ariketari, Pantxika pailazoaren ikuskizunarekin.



**Okondoko
Udala**

Okondoko bi taldek garaipena lortu zuten uztailean Ugarteko Futbito Torneoan. Harrera beroa egin zieten herrian. Argazkia: Naroa Urkijo



European igaro zen Korrikaren 22. edizioa Okondotik, baina horrek ez zituen bizilagunak kikildu. Dozenaka herritar animatu ziren euskararen alde bustitzera. Argazkia: AEK

Gogor bezain polita izan zen Aiarako Biraren Okondoko etapa. 200 txirrindulari gaztek hartu zuten parte San Roman auzoan amaitu zen lasterketan



435 txakur lehiatu ziren Okondon jokaturako Euskadiko Sextuple Agility txapelketan abuztuan. Euskal Herriko zein atzerriko hainbat klubek hartu zuten parte norgehiagokan.

Baserri giroa nagusitu zen Okondon maiatzean, Baserri azokarekin. Tokiko ekoizleen azoka, batukada, talo tailerra edota herri kirolak egon ziren goizean zehar, besteak beste.



Uztailean Txakoli Eguna itzuli zen Okondora. Maribel Salas aktorea gonbidatu zuten, eta Astobiza Upategia omendu zuten, herriaren izena mundu osoan zabaltzeagatik.



**Okondoko
Udala**



Bi urteko etenaldiaren ostean, indartsu itzuli dira urte hasierako ospakizunak, eta baita San Prudentzio, San Roman, San Bartolome edota Irabiengo jaiak ere, bizilagunen ilusio eta elkarlanari esker.





URTE GORABEHERATSUA IZAN DUTE 2022A OKONDOARREK. NORMALTASUNERA PIXKANAKA ITZULTZEAK EKARRITAKO ALAITASUNA BERRI TXAR BATEK ILUNDU ZUEN MARTXOAN: HIRU AUZOKIDE HIL ZIREN BASERRI BATEAN PIZTUTAKO SUTEAREN ONDORIOZ. JON ESCUZA ALKATEAK URTEKO MUGARRI AZPIGARRIENAK ALETU DITU.

Testua: Jone Gartzia Gerra

Argazkiak: EAJ-PNV

Urtea amaitzean den honetan, zer balorazio egiten duzue aurtengo Udalaren jardunaren inguruan?

Beti esaten dut Okondo herri garbia eta polita dela. Hain zuzen, 2019an alkatetzara iritsi nintzenetik helburuetako bat hori izan da, eta uste dut lortu egin dela. Bereziki pozik nago emaitzarekin, brigada osatzen duten udal-langileek lan ikusgarria egiten baitute. Gauza bera gertatzen da herritarrentzako arreta-zerbitzuarekin, eta herritarrekin harremanetan dauden arlo guztiekin, tratua oso gertuko da. Xehetasunak zaintzen dituzte eta


euren esku dauden konponbideak eman.

Zer behar izan dituzte aurtengo herritarrek?

Auzokideekin izandako bilerekin, euren beharren berri izan dugu. Bileretan gehien errepikatu direnen artean hurrengoak nabarmenduko nituzke: argiztapen-puntuak handitzea, txakurren ordenantza diseinatzea, bide-segurtasuna hobetzea, paperontzien kokapena edo gabezia eta bideak, pistak, arekak...

Zer proiektu bultzatu dituzte Udalak aurtengoan?

COVIDaren pandemiaren ondoren, eta normaltasunera itzulita, auzoetako batzarrak egin ditugu, berriro ireki dugu Negutxokoa eta WhatsApp kanal bat aktibatu dugu udal-informazioa zabaltzeko. Azken hau Udala erakunde hurbilagoa eta gardenagoa egiteko ahaleginaren barruan kokatzen dugu. Garrantzitsua iruditzen zaigu herritarrekin harreman zuzena izateko eta erabakien berri emateko. Horrez gain, etorkizunean ukipen-totem digitalak eta informazio-panel bat jarriko ditugu, herritarrek zein turistek udalerririk eskaintzen dituen aukerak ezagutu ditzaten. Interaktiboak



“Niretzat egun bakoitza erronka bat da, eta zailtasunei aurre egiten diet”

izango dira eta askotariko informazioa emango dute: ordutegiak, ekintzak, bandoak...

Zeintzuk izan dira aurtengo erronka handienak?

Egia da bide hau guztia ez dela erraza izan. Niretzat egun bakoitza erronka bat da, eta zailtasunei aurre egiten diet, hainbat gairi irtenbidea emateko. Are gehiago, askotan eman beharreko erantzunak ez dira atseginak izaten.

Eta berri onenak?

Zalantzarik gabe, albisterik onena normaltasunera itzultzea eta jaiez gozatzea izan da, jendearekin elkartzea eta sozializatzea, pandemia aurreko urteetan bezala. Horren urte gogorak igaro ondoren, pozgarria da bizilagunekin hitz egin ahal izatea, maskararik eta segurtasun-distantziarik gabe. Gure auzoe-

tako jaiez, kultur jardueraz edota kirol jardueraz berriro gozatu ahal izan dugu eta harrera bikaina izan da.

Zoritxarrez, suteek aurten ere protagonismo handia izan dute herrian.

Oso egoera gogorra izan da, oso tristea, ez dut gogoratzen lehenago Okondon horrelakorik bizi izana. Egia esan, oso une hunkigarriak izan ziren. Alkate gisa biziitzea egokitu zaidan unerik zailenetako bat izan da.

Udan, lehortearen eta tenperatura altuen ondorioz, uraren erabilera arautu behar izan zenuen. Zer ondorio izan zituen debekuak?

Temperatura altuak edo euri-jasak daudenean, oso adi egon behar dugu edateko uraren zerbitzua

emateko orduan. Okondon iturburu propioekin hornitzen gara, eta eguraldi txarrak eragiten digu. Udan bando bat zabaldu genuen herritarren erantzukizuna eskatuz eta zenbait erabilera debekatuz, hala nola kotxeak garbitzea, lorategiak eta ortuak ureztatzea eta igerilekuak betetzea, hornidura-sareko ur-mozketak saihesteko. Horrela, uraren oinarritzko erabilera bermatu genuen eta ez zen mozketarik egin behar izan. Mantentze lanengatik soilik eten genuen hornidura une jakin batzuetan.

Baina, irailean ur-hornidura eten behar izan zen etxeetan eta iaz ere arazoak egon ziren. Ez da hala?

Zuzenketa bat egin behar dut, informazio hori ez delako zuzena. Lehen azaldu dudana bezala, ez da hornidura-etendurarik izan, mantentze-lanengatik eten puntualak baino ez. Gerta daiteke, zerbitzua berriz ematean sortzen den aharri-kolpeak hodietan dagoen zikin-keria apurra mugitzea, baina txorrotako ura pixka bat irteten utzita konpontzen da.

Bestalde, biziitzea instituzionala arautzeko Jokabide Kodea onartu zenuten Udalean. Ia urtebete igarota, zer balorazio egingen duzu?

Kode hori onartuta Udalak urrats bat eman zuen aurrera, eta jendarean jakinarazi zuen Okondoko udalbatza osatzen dugun kideok edozein diskriminazio motaren aurka gaudela. Ordezkarri publiko gisa, erakunde guztietan eredu izan behar dugu, tokikotik hasita, herritarrengandik hurbilen dagoelako. Horrela egin dugu eta egiten jarraituko dugu etorkizunean ere.



Lanean jarraitzeko prest

NAIARA OTAOLA ETA JOSEBA RUIZ 'PIRU'

EH Bildu Okondoko zinegotziak

Urtea amaitu da eta bete-betean sartu gara legealdiaren amaieran, eskualdean bizi izan ditugun egoera zailen jakitun. Hala ere, pozik gaude egindako lanarekin, eta gure balorazioa positiboa da. Okondok urteak daramatza arrazoi bategatik edo besteagatik itzaltzen, bizitza soziala galtzen, eta pandemiak egoera hori larriagotu besterik ez du egin. Horregatik, gure arloen helburuak ahaztu gabe, guztien arteko harreman onak antolatzen eta ahalbidetzen zentratu gara, bai euskararen arlotik, gure hizkuntza den altxorra kalera eramanez, garrantzi eta nabaritasun handiagoa emanez; bai berdintasunaren arlotik, herrian talde feminista bat sortzeko prestakuntza emanez. Eskolarekin ere lankidetzan aritu

gara, urteak baitaramatza hezkidetzeta-proiektuekin OEGEarekin batera, eta proiektu hauekiko duten parte-hartzea eta interesa eskertzeko baliatzen ditugu lerro hauek.

Illo horretan daude, halaber, gure proposamenetako batzuk. Adibidez, udako denboralditik aurrera irekita egongo den udal igerilekuetako taberna bat eraikitzea eta gure herrian dagoen udal ondare historiko txikiaren erreplikak (kirikinausia eta ferratzeko moxala) auzolan bidez eraikitzea. Jakina, badakigu gauza asko daudela egiteko, lan asko egiteko eta hobetzeko, eta horretan ari gara eta egongo gara.





Mugi zaitez!

SERGIO TATO EGUREN

Okondo Aurrerako zinegotzia

Legealdia amaitzear egonda, balorazioak egiteko unea heldu da, non gauden eta norantz abiatu nahi dugun erabakitzeko garaia bada. Okondo urteetan zehar herri gisa hazi ondoren, 2019. urte-tik aurrera, EAJ alkatetzara iritsi orduko, legealdi iluna hasi zen, non pandemiak sortutako egoera orokorraz baliatuz, askatasunak mugatu, aniztasuna zentsuratu eta bizitza soziala geldiarazi den. Herriko saltokiak itxi behar izan dituzten heinean, Udalak ez du sosik ekarri Okondoko egoera sozioekonomikoa suspertu ahal izateko; are gehiago, bertoko merkataritza sustatzeko sortutako aurrekontu-partidak erabili gabe utzi ditu. Legealdi honetan osoko bilkuretara bertaratzea debekatu dute, elkarte zein bizilagunei areto publikoen erabilera mugatu diete, kultur-ondasuna izendatu beharko lirakeen eraikinak erabiltzen lagundu dute, eta, hau guztia, diru publikoa xahutu duten bitartean. Egun, Okondon barrena osteratxoa ematea baino ez da egin behar, interes orokorrarekin loturirik ez duen, pertsonengandik urrun dagoen, aniztasunaren aurka dagoen eta “laguntasunean” oinarritutako politika honen emaitzaz jabetzeko. Hala eta guztiz ere, beste Okondo baten aukera dugu, non eskubideek, alaitasunak eta ilusioek gure kaleak beteko dituzten. Horretarako, baina, zu zeuk ekimena hartu beharko duzu, zure etxetik, zure herritik, Okondotik, besteek zuegatik egin ez dezaten.



Argakia: Arabako Foru Aldundia



PEDRO MARI INTXAURRAGAK 2022 URTEKO BALORAZIOA EGIN DU ETA HORRETARAKO OSO BESTELAKO GAIEI BURUZ MINTZATU DA: ZENTRAL EOLIKOAK, UR HORNIDURA SAREA, UKRAINAKO GERRA...

Testua eta argazkia:
Aitor Aspuru Saez


Garrantzi handiko bi lan gatazka gertatu dira aurten Orozkon. Nola baloratzen dituzu?

Berez, Artiacheko greba iaz hasi zen, 2021ean, eta apirilean sinatu zuten lan hitzarmen berria. Gure aldetik, uste dut ahal izan dugun guztia egin dugula. Agian eurentzat ez da nahikoa izan, baina hamar batzar deitu ditugu, eurekin bildu gara, azaldu dizkigute arazoak eta gero enpresarekin ere elkartu gara. Aintzat hartuta lan hitzarmena sinatu zutela, suposatzen dut ados daudela, nahiz eta

gutziz ez izan. Madres Mercedarias zaintza zentroko kasuan ere gure esku egindako guztia egin dugu. Hainbat aldiz batzartu gara eurekin, baina baita enpresarekin, mojekin eta Bizkaiko Foru Aldundiarekin, baina, tamalez, ez da hitzarmen berririk sinatu.

Pil-pilean egon den beste gait bat izan da zentral eolikoena. Berriki jakinarazi dizute beste bat eraiki nahi dutela udalerrian, Jesurikoaz (Larragorri) gain.

Balizko zentral eoliko berri horri dagokionez, Udalaren jarrera Larragorriko bera izango da, mozio bera. Legea ez bada parke eolikora moldatzen, ez dugu onartuko. Legea, Lurralde Plan Partziala eta Lurralde Plangintza Sektorialak ez badira betetzen, guk ez dugu oniritzirik emango. Horietan guztietan ez da agertzen zentral eoliko batek lekua duenik Orozkon. Hori ez bada moldatzen, guk ezezkoa emango diogu. Ez bakarrik Larragorri, baita Untzuetan sortu nahi dutenari ere. Momentuz, etorri



“Ukrainako hamabi lagun etorri ziren Orozkora gerra hasi zenean”

dira hau proposatzera: zortzi haitze errota jartzea Orozkon eta beste hiru Zeberion.

Larragorriko zentralaren ingurumen-inpaktuaren txostena bi edo hiru hilabetetan jasoko dugu eta orduan helegiteak jartzen hasiko gara, legea baliatuta. Uste dugu aukerak ditugula lehen urratsak gelditzeko.

Urigoitiko ur hornidura sareak ere arazoak sortu ditu udalerrian.

Bai, irailean ekaitz handia egon zen eta ur edangarria zikindu zen. Azaroaren amaieran obrak egiten hasi gara eta Urigoitin araztegi txikia jarriko dugu. Ibarra, Gotxi, Albitzu eta Okeluriko urak araztuko ditugu eta gero punpatu. 298.000 euroko aurrekontu lanak izango dira.

Nola doa Bizkaiko Ur Partzuergoan sartzeko prozesua?

2018an egin genuen eskaera, baina horretarako ia hamaika milioi euroko inbertsioa egin behar genuela esan ziguten. Ez daukagu dirurik horretarako. Berez, inbertsioak izango lirateke ur azpiegitura guztiak egoera onenean uzteko partzuergoari, baina ez dugu bertekorik hori egiteko.

Eta ez dizuete beste aukerarik eman, mailegua egitea edo?

Bizkaiko Ur Partzuergoak esaten digu Bizkaiko Foru Aldundira jartzeko eta Aldundiak erantzuten digu ezin digutela lagundu, partzuergoan ez gaudelako. Arrankudiaga-Zollo eta Karrantza egoera berean daude.

Eta ez dago konponbide bat topatzeko modurik?

Ez, gure kabuz egin behar dugu dena eta ikusiko dugu etorkizunean.

Zaintza esparruan ere egin duzue ekimen interesgarria eta txostena sortu duzue Orozko sistemaren egoerari buruz.

Mugak zeharkatzen dituen proiektua da, ez soilik Orozkokoa. Gipuzkoan eta Frantziako estatuan ere abian dago. Zenbat herritar nagusi dauden jakitea izan zen gure asmoa. 551 dira, 65 urtetik 80 urtera bitartean. Gainera, 80 urte baino gehiago dutenengana jo dugu, laguntza behar duten galdetzeko. Egia esanda, ikusi dugu nagusiak kontrolatuta daudela, bai senideen aldetik zein auzokideen aldetik.

Correosekin akordioa egin duzue, egoitza lekuz aldatzeko.

Bai, udaletxeko lonja batera igaro da zerbitzua. 30.000 euroko inbertsioa egin genuen han. Urtero 6.500 euro ordaintzen genuen alokairuan eta baloratu genuen merkeagoa zela gure lokala konpontzea eta erabiltzea.

Zerbait gehitu nahiko zenuke?

Bai, Ukrainako Gerraren ondorioz dirulaguntza programa abiatu genuen. Izan ere, hamabi lagun etorri ziren Ukrainatik. Egun bi baino ez dira geratu. Hamabi horietatik, sei urtero etortzen ziren hona eta familia ezaguna da. Beste seiak Orozkoko herritar batek ekarri zituen. Haraino joan zen furgonetaz eta herrira ekarri zituen. Jadanik ia guztiak itzuli dira, baina espezierentzia ona izan zen, eurak pozik ibili ziren. Uste dut Orozko izan dela Aiaraldeko bakarra horrelako laguntzak ematen.



EAJ-PNV Orozko, legealdiaren azken urtean

ESTIBALITZ MINGUEZ

EAJ-PNV Orozkoko zinegotzia

EAJ-PNVtik uste dugu legegintzaldi honetan, gure udalan, gobernu-taldearen jarduna sinpleegia izaten ari dela. Historikotzat jo dezakegun une baten aurrean gaude, maila sozialean, teknologikoan, bizimoduan... gertatzen ari diren aldaketa ugariengatik, eta gobernu-taldea ez da gai erantzun egokia emateko. Kudeaketa administratiborik ez dagoela herritarrek helarazten diguten sentazioa da. Alde batetik, inoiz ez da hainbeste langile aldatu, non utzikeria besterik ez den izan, eta, beraz, ezinena sortu da. Programatutako inbertsioak ez dira amaitzen, eta, ondorioz, soberakina handitu egiten da. Horren ondorioz, aurrekontuak, gure proposamenak barne hartzen ez dituenak, ez dira betetzen onartu ohi diren moduan. Beraz, urtez urte proiektuak atzeratzen dira, eguneroko ohiko gaiak edo aurkezten diren larrialdiak soilik gauzatuta. Gobernu-taldeak oso leku gutxi uzten dio benetako parte-hartzeari. Hainbeste aipatzen duten gardentasuna ez da egunerokoa gauzatzen. Ez dago gaiak lantzeko eta talde guztiek parte hartu ahal izateko gunerik, gure bizilagunei laguntzeko. Dena gobernu-taldetik pasatzen da, eta, bereziki, alkatetik, dena fiskalizatzen baitu. Espero dezagun hurrengo legegintzaldian EAJ-PNVk aukera izatea Orozko landa-udalerrri gisa dagokion lekura itzultzeko, udalerrri jasangarri gisa, enpresa txikien edo negozioen mailan, turismo-mailan, instalazio publikoen mailan, komunikazioak hobetuz eta, batez ere, bizilagun guztiei bizi-kalitate ona emanez.





Egiteko beste modu bat, herritarrekin eta herriarentzat

PILI GARCIA PALACIOS

EH Bildu Orozkoko zinegotzia

Legealdiari hilabete gutxi geratzen zaizkio eta atzera begiratuta 2022ak emandakoa kezka eta arduraz ikusten dut. Orozkoko Udalak herritarren beharrei erantzuteko gaitasuna galdu du. Horren adibide argiena, duela urteak egiten ez diren konponketen eta Udal Gobernuaren utzikeriaren ondorioz, Orozkoko eskolak bizi duen egoera dugu. Planteatzen diren eta beharrezkoak diren inbertsioak ez dira aurrera eramaten. Horregatik, Orozkoko Udalak, inoiz izan duen soberakin handiena izan du aurten.

EH Bilduko kideok argi dugu gauzak egiteko beste modu bat inoiz baino beharrezkoagoa dela, eta gu hori posible egitera goaz. Esperantzaz ikusten ditut datozen hilabete eta urteak. Herritarrak entzuten dituen, orozkoarren beharrak erdigunean jartzen dituen eta aldaketa posible egingo duen proiektu bat martxan jartzeko prest gaude. Duela gutxi, Ongizate Hitzarmena konpartitu genuen orozkoarrekin. Politika zaharrek ez dute balio gaur egungo erronkei aurre egiteko eta guk badaukagu krisi ekonomikoari aurre egiteko eta gizarte sektore ahulenak defendatzeko proposamena.

Orozkoarren hitza kontuan hartzen ez duen eta atea itxita duen Udal bat bilakatu da gurea. Baina honen aurrean, herritarrekin eta herritarrentzat lan egitera goaz, kolektiboki eta elkarrekin.

Argazkia: Wyup

Arrankudiaga-Zolloko

2022ko mugarriak

UDALAREN BALANTZEA

URTE BIZIA IZAN DA 2022A ARRANKUDIAGA-ZOLLOKO UDALAREN JARDUNEAN. HAINBAT PROIEKTU ESTRATEGIKO GARATU DIRA 12 HILABETEETAN ZEHAR, ETA EKIMEN ARRAKASTATSU UGARI ERE EGIN DIRA UDALERRIAN.



Enplegua sustatzeko elkarlana abiatu dute Bakiola Industriaguneak eta Udalak. Udalak 24.246,53 euroko diru-laguntza bideratuko du industriagunearen azpiegituren hobekuntzarako eta Bakiolako enpresek euren lanpostuak betetzeko lan-eskaintzaren bat dutenean, horren berri emango diote Udalari, herriko auzotarrek lehentasuna izan dezaten.



Bi parte-hartze prozesu burutu dira udazkenean Zollon eta Atxetan, udaletxearen eraikina eraberritzeko eta udal lokal sozialean zenbait egokitzapen egin eta jarduera sozio-kulturala suspertzeko plana erabakitzeko, hurrenez hurren.



Pandemia ondorengo lehen jaiak oso arrakastatsuak izan dira. Jende asko bertaratu da Andramarietara eta Uribarri, Atxeta edota Zolloko jaietara.



Arrankudiaga-Zollo Trail Lasterketa ere arrakastatsua izan da. Aurten txakur krosa egin da lehenbiziko aldiz, 90 parte hatzailerekin. Guztira, 425 korrikalari batu ziren proba guztietan.



Herri basoen inbentarioa eta kudeaketa jasangarriko plana egin da. Udalaren jabekoko baso guztiak barnebildu ditu planak, 500 hektarea baino gehiago guztira. 20 urterako plana da, eta baso eta mendi-gune bakoitzaren ezaugarri zehatzen arabera finkatzen dira erabilera edota landatu beharreko zuhaitz motak, besteak beste, jasangarritasuna lehenetsita.

2022-2023 ikasturteko ikastaro eta tailerrak abian jarri dira, beti bezain arrakastatsu: taila, pilates, luzatze-ariketak eta hipopresiboak, jostintza, dantza... Guztira, 100 lagun inguru ari da jarduera horietan parte hartzen.



Pilotalekuaren sarrera inguruko plazarako sarbidea eraberritzeko lanak hasi dira. Obra honekin batera, plaza osoko zoruan apurtuta edo txarto dauden harlauzak konponduko dira.



Udalak hitzarmenak sinatu ditu Indarra futbol taldearekin, Kamaraka esku-pilota elkartearekin, eskolako guraso elkartearekin, jubilatuen elkartearekin eta Gizarte Etxearekin. Elkarteei egonkortasuna eta bultzada ematea izan da helburu nagusia.



Lurzoru urbanizaezineko baserrien inentarioa eta ordenantza jarri da indarrean. Etxebizitza bakarreko eraikinetan bi etxebizitza egokitzeko aukera zabaldu da eta etxebizitza bikoetan gehienez lau egokitzeko aukera. Katalogatu diren 67 baserrietan 75 etxebizitza berri egokitzeko aukera zabaldu da. Oso ekimen garrantzitsua izan da gure auzoak eta landa gunek era orekatuan biziberritzeko.



AMAITZEAR DEN URTEARI SO EGINEZ, ARRANKUDIAGA-ZOLLON MARTXAN JARRITAKO PROIEKTUEN BALANTZEA EGIN DU TXUTXI ARIZNABARRETA ALKATEAK. BESTEAK BESTE, OXINBURUKO ETA IBERLANDA PARKEKO LANAK, BAKIOLAKO INDUSTRIAGUNeko HITZARMENA ETA ETXEBIZITZA POLITIKA IZAN DITU MINTZAGAI.

Testua eta argazkia:
Aitor Aspuru Saez

Zein balorazio egiten duzue Udalean amaitzear den urtearen inguruan?

Balantze oso ona. Besteak beste, Arrankudiagako plaza ingurua eraberritzeko obrak hasi ditugu, beste hainbat obra txiki ere burutu ditugu, herriko hainbat eragilerekin hitzarmen berriak sinatu ditugu, udal ikastaroetan ehun laguntik gora aritu dira, jai guztiak oso ondo egon dira...

Nola doa Oxinburu eraikineko obra?

Legealdi honetako obra nagusia izan da, bizitza soziokulturalerako azpiegitura izango dena. Amaitzear dago eta dagoeneko ordainduta, ez dugu inolako zorrik. Beraz, eraikin publikoetan obra berriei ekiteko baldintzetan gaude, eta bi parte-hartze prozesu egiten ari gara zenbait proiektu zehazteko.

Zeintzuk?

Bata, Zollon, udaletxearen eraikina eraberritu eta zer ekipamendu komunitario jarri erabakitzeke.

Bestea, Arrankudiagako Atxeta auzoan, bertako udal lokal sozialean zenbait egokitzapen egin eta jardura soziokulturala suspertzeko plana erabakitzeke. Parte-hartze handia izaten ari da eta proiektu zehatzak izango dira bi prozesuen emaitzak.

Iaz, Iberlanda parkeko argiteria berri ondoren, gunea proiektu berriein osatzeko asmoa adierazi zenuten. Zertan da?

Iberlandan parke eder bat, umeentzako jolasgunea, arike-

“Eraikin publikoetan obra berriei ekiteko baldintzetan gaude”

ta fisikoa egiteko zenbait tresna, futbol zelaia, erabilera anitzeko kantxa eta udal taberna ditugu. Orain, beste bi proiekturekin osatuko dugu: *pum track* pista bat eraikiko dugu futbol zelaiaren ondoan eta kalistenia gunea jarriko dugu parkean bertan integratuta. Bi instalazio hauek herriko ume eta gaztetxoentzat dira batez ere, garrantzi handia ematen diogulako adin horietan herrian bertan sustraitzeari, eta aisialdiak eragin handia du horretan.

Zer gehiago behar da gazteak herrian errotu daitezen?

Etxebizitza politika egokia behar da. Alor horretan, Baserrien Inbentarioa eta Ordenantza onartu berri dugu. Horren bitartez, katalogatu ditugun 67 baserrietan 75 etxebizitza berri egokitzeko aukera zabaldu dugu. Oso garrantzitsua

da gure auzo eta landa gunea era orekatuan garatzeko eta biziberritzeko.

Horrez gain, hurrengo legealdira-ko bi proiekturen oinarriak jarri ditugu. Alokairu sozialeko etxebizitzak eraikiko ditugu Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Sailarekin egin dugun hitzarmen baten bitartez. Jarraibide administratiboak eta proiektua 2023an diseinatuko dira eta 2024an eraikiko dira. Aldi berean, 12 etxebizitza eraikiko dira, Arrasate Kooperatibarekin adosten ari garen hitzarmen baten bitartez. Urtarrilean aurkezpen publikoa egitea espero dugu.

Eta jarduera ekonomikoaren alorrean, zer duzue esateko?

Gure udalerrian ez daukagu industriarako lurzoru berririk eta daukaguna mimatu eta bultzatu

behar dugu. Bakiola industria-gunean daukagu kontzentratuta gure industria ia guztia. Berriki, hitzarmen berri bat sinatu dugu. Beste batzuen artean, dirulaguntza bat bideratuko dugu industria-guneko azpiegitura eta zerbitzuen hobekuntzarako eta Bakiolako enpresek euren enplegu eskaintzak lehenengo Udalera bideratzeko konpromisoa hartu dute, Udalaren kudeaketaren bitartez Arrankudiaga eta Zolloko auzotarren aukera lehenesteko.

Klima krisiari aurre egiteko, zer egin dezakete udal txikiak?

Aldaketa kimatikoa errealitate bat da. Goi mailako erabaki guneean eta estatuen arteko gailurretan ezer gutxi egiten den arren, behetik gora egoerari aurre egiten hasi behar dugu eta udalok konpromiso eta egitasmo zehatzak gauzatzeko ordua da.

Urratsik egin duzue alor horretan?

Argiteria publiko osoa led sistemara pasatu dugu eta aurrerantzean koadro elektriko guztiak berriztuko ditugu. Autokontsumorako eguzki plaka fotovoltaiakoak jarri ditugu eskolako teilatuan, udal eraikin guztiak argindar kontsumoaz hornitzeko. Hobari handiak jarri ditugu ordenantza fiskaletan arlo pribatuan plakak jartzea bultzatzeko eta auzotar askok aukera baliatu dute. Horrez gain, udal eraikinen klimatizazio efizientea lortzeko proiektuak prest ditugu aurrerantzean gauzatzeko; eta Herri Basoen Inbentarioa eta Kudeaketa Jasangarrirako Plana burutu dugu, 500 hektareatik gorako lurzoru kopuruari eragiten dion 20 urterako plana.

Arakaldoko

2022ko mugarriak

UDALAREN BALANTZEA

HAINBAT PROIEKTU EGIKARITZEKO ETA UDALERRIKO ARAZO ETA ERRONKEI HELTZEKO URTEA IZAN DA 2022A ARAKALDOKO UDALARENTZAT. HORREZ GAIN, EGON DA ZER OSPATU, JAIK INDarREZ ITZULI BAITIRA HERRIRA.



Arakaldoko zabor bilketa sistema aldatu da hondakinak eta, bereziki, errefusa murrizteko. Sistema berriak ahalbidetuko du organikoa %100ean herrian kudeatzea eta errefusaren zenbatekoa %15 gutxitzea.

Oinezkoentzako basabide bat atondu dute Arakaldo eta Arrankudiaga artean, 4 kilometrokoa. Panel informatiboak ere jarri dituzte bidean zehar. Obrak lau hilabetez luzatu dira eta 119.717,40 euroko aurrekontua baliatu da guztira. 80.000 euro Eusko Jaurlaritzaren eskutik etorri dira, eta beste 39.717,4 euroak Udalak jarri ditu.





Aiaraldeko energia kontsumoari buruzko azterketa egin du Udalbiltzak, eta Arakaldoko Udaletxean aurkeztu zituzten ikerketaren emaitzak.

Lur-jausiak saihesteko bi sare instalatu ditu Udalak, autopistako tunelaren haraindian dagoen amildegian eta Iberdetik Petxabi auzorako bidean. 40.991,65 euroko aurrekontua baliatu da eta Aldundiak 18.446,24 euro eman ditu proiektua finantzatzeko.



Idurre Bideguren senatariarekin batzartu ziren martxoan Arakaldo eta Arrankudiaga-Zolloko alkateak, bi udalerriek bizi duten hondakin-uren kudeaketa arazoa bideratzen hasteko.



*Jaiak indarrez itzuli
ziren uztailean herrira.
Bizilagunen arteko
harremanak sendotzeko
balio izan zuten
asteburuan zehar eginiko
jarduerak.*





Aiaraldeko Euskalgintza Kontseiluak Arakaldo hautatu zuen abenduaren 3an Aiaraldeko Euskararen Eguna ospatzeko.





ARAKALDO DEN HERRI TXIKIRAKO AURTEN PROIEKTU HANDI UGARI GARATU DITUZTELA ESAN DU JABI ASURMENDI SAINZ ALKATEAK, LEGEALDIA AMAITZEAR DAGOEN HONETAN.

Testua eta argazkia:
Jone Gartzia Gerra

Nola laburtuko zenuke 2022. urtean Arakaldon garatutako jarduna?

Aurtren proiektu handi dezente egin ditugu herrian, legealdia-
ren ekuatorea igarota, egiteke
genituen gehienak garatu ahal
izan ditugulako. Alde batetik,
Arakaldo eta Arrankudiaga he-
rriak lotzen dituen bidegorri bat
egin dugu. Bestetik, sortzen di-
ren hondakinen kudeaketarako
proiektu bati ekin diogu, hainbat
arrazoi medio, sailkatze datuak
ez zirelako oso onak.

Zertan datza hondakinen proiektua?

Birziklapena errazteko, auzo ba-
koitzean giltzez itxitako etxolak
jarriko ditugu mota guztietako
ontziekin: beira, papera, ontziak,
errefusa, organikoa, konposta eta
baita garbigunera eraman beha-
rreko hondakinentzako tokia
ere. Konpostagailuak jarri ditu-
gu etxeetan konposta egin nahi
dutenentzako, eta beti egongo
da estrukturantea eskura. Beste
gune itxi batean aguazilak auzo
guztietako jasoketa sailkatua era-

mango du. Horrela, mankomuni-
tateko kamioia etortzen denean
horra baino ez du joan beharko.

Sailkapena inbertitu nahi dugu.
Egun, hondakinen %20 birzikla-
tzen dugu eta gainerakoa erre-
fusera doa; buelta eman nahi
diogu horri. Bestalde, hondakin
kopurua murrizten lagundu nahi
dugu. Horretarako, sentsibili-
zazio kanpainak egingo ditugu.
Adibidez, beirazko tuperrak eta
oihalezko poltsak banatuko diz-
kiegu herritarrei, erosketak egi-



“Saiatu gara auzotarrei ahalik eta erosoan jartzen zaborraren sailkapena”

teko baliatu ditzaten. Saiatu gara auzotarrei ahalik eta erosoan jartzen zaborraren sailkapena.

Energiaren arloan eguzki plakkak jarri zenituzten iaz. Mar-txan daude jada?

Hainbat hilabete egon gara Iberdrolaren zain instalazioa martxan jarri ahal izateko eta inbertsioa amortizatzen hasteko. Ia urtebete itxaron behar izan dugu baina martxan dago jada. Orain, datuak jasotzen ari gara eta asmoa herri batzar bat egitea da, auzokideei proiektua zabaltzeko. Instalazioa partekatzeko proposamena egin nahi diegu, helburu bikoitzarekin: ekologikoa eta ekonomikoa, energia eta dirua aurrezte, alegia.

Ildo horretan, zerbait geratu zaizue egiteke?

Gauza bera egin nahi dugu herriko Interneterako sarbidearekin. Herriko sare bat egin nahi dugu, publiko-komunitarioa, baina ezingo diogu legealdi honetan heldu.

Zenbait konponketa lan ere egin duzue aurten.

Plazatxo konpondu dugu. Espaloia handitu eta margotu dugu eta hesi berri bat jarri dugu, argiztatuta. Horrez gain, ur-hargune bat ere hobetu dugu. Arakaldon herrian bertan kudeatzen dugu kontsumitzen dugun ura, partzuergotik kanpo, hori baita herri-tarren desira. Bi ur-hargune ditugu, bata herriko goiko partean eta bestea beheko aldean. Horretatik soilik hartzen dugu ura goikoan falta denean. Uda baino lehen beheko hargunea konpondu eta putzua handitu genuen eta horri

esker ez dugu inolako eskasirik izan uda lehor honetan.

Udalaren ekinbidetik kanpo, zeintzuk izan dira aurtengo mugarriak herrian?

Arakaldo herri lasaia da. Unerik garrantzitsuenak jaiak eta neguko solstizioa izan ohi dira. Horrez gain, aurten euskararen egun bateratua hartu dugu Arakaldon, eta erronka handi bezain polita izan da. Guretzako ia jaiak antolatzeari bezalakoak izan da azpiegitura aldetik, baina Kontseiluak lan handia egin du programazioan.

Zeintzuk izango dira etorkizuneko erronkak?

Datorren urtean hauteskundeak izango dira eta ez da momentua erronka handiei heltzeko. Zenbait proiektu idazten ari gara, dena prest uzteko hurrengo legealdian erabakia har dadin. Besteak beste, brigadako langileentzako biltegi berri bat egin nahi dugu eta lan egiteko tokia hobetu, txiki geratu zaielako. Hondakinen proiektuari ere jarraipena egin beharko diogu. Etxebizitza publikoei dagokionez, ditugun bost etxebizitza publikoak konpondu nahi ditugu, eta bi edo hiru berri egin eraikin berean, guztira zortzi izan daitezten. Eusko Jaurlaritzako zenbait sailekin gaude harremanetan. Hirigintzari dagokionez, HAPOarekin hasi gara arau subsidiario batzuk egungo legeetara egokitzeko. Hainbat urtetako erronka polita izango da eta guk herritarren partaidetza bermatu nahi dugu. Hondakinen proiektuarekin ere horrela egin genuen: herri batzarren bidez eta enpresa baten dinamizazio lanekin partaidetza bultzatu genuen.



2022 BENETAN BIZIA IZAN DUTE ARTZINIEGAN. IZAN ERE, HIRIBILDU ITUNAREN 750. URTEURRENA OSPATU DUTE. HORREZ GAIN, BESTELAKO ERRONKAK IZAN DITUZTE UDALERRIAN. HORRETAZ MINTZATU DA JOSEBA VIVANCO ALKATEA.

Testua eta argazkia:
Aitor Aspuru Saez

Aurten izan da Artziniegako hiribilduaren 750. urteurrena. Nola baloratu duzue ospakizuna?

Printzipioz ona edo oso ona, nahiz eta guk ez genukeen hori egin behar. Iaz bi helburu jarri genituen, bata Artziniegan bertan aldarrikatzea eta zabaltzea efemeridea, urtea jardueraz beteta. Bestea zen Artziniega mapan jar-tzea eta kanpoan ezagutaraztea.

Uste dugu horrela izan dela. Urta-rrilaren 2an hasi ginen eta azaroa-

ren 2an amaitu genuen. Gutxi go-rabehera dena ondo atera da eta ekitaldi garrantzitsuenak ondo egon dira. Kanpoan oihartzuna izan du eta xedeak lortu ditugu.


Gainera, jendeak parte hartu du. Udalak lideratu du egitaraua, bai-na jende askok eman ditu ideiak, lan egin du...

Ez dakit herriko jendeak harro-tasunez bizi izan duen, baina jar-dueren aldetik, ekintza berritzaileak egon dira eta buruari eragin

diogu. Jakina, sekulako lana izan da eta eskerrak 50 urtero baino ez dela ospatzen. Urte amaierara indarrak erreta heldu gara. Gure aldetik oso pozik gaude.

Birgaitze lan garrantzitsuak berretsi dituzue aurten, Kultura Etxea eta Dorretxea.

Dorretxea obretan dago jadanik eta espero dugu urtarrilerako amaituta egotea, otsailean beranduenez. Behin erreforma eginda, esleipena atera nahi dugu, hotel zerbitzua indarrean egoteko



“Artziniega Museoaren jarraikortasuna bermatzea mugarria izan da guretzat”

udan. Kultura Etxearen lanak zailagoak dira, hasteko, garestiagoa delako. Milioi eta erdiko obra da eta orain itxaroten ari gara finantzazioa eman behar diguten erakundeen argi berdea. Berez, jakin behar dugu dirua noiz egongo den prest. Proiektua erredaktatuta dago eta lanak esleitu behar ditugu, ea udaberrian egin dezakegun. Urtebete eta erdi iraungo du eta hurrengo legealdian sartuko da.

Artziniega Museoaren bizirau-pena bermatu duen akordioa sinatu duzuela dirudi.

Guretzat aurtengo mugarrietako bat izan da. Egia da 750. urteurrena izan dela, eta obrak ere baditugula, baina aurten bermatu nahi genuen museoaren etorkizuna, bere bideragarritasuna ziurtatuta.

Lau urtez horrela izango da eta Arabako Foru Aldundiak konpromisoa hartu du beste lau urte gehiagoz laguntzeko. Hau da, zortzi urterako bermea egongo da museoa zabalik mantentzeko. Gero ez dakigu etorkizunean Udalak edo beste erakunde batek dirua jarriko duen, baina, gutxienez, hori ziurra da.

Lan izugarria izan da akordioa lortzea. Sukalde lanak ez ditugu kontatuko, baina sekulako ahalegina egin dugu. Hala ere, jende batentzat gutxi izan daiteke, baina Aldundiak ematen duen diruarekin, hori da egin daitekeena. Ez da guztiok nahi genuena, baina bermatu da museoak jarraituko duela.

Azken finean, Artea elkarteak be-

rak eman dio oniritzia eta horregatik Udalak ere egin du.

Guretzat helburu nagusia zen jarraikortasuna ziurtatzea eta hori da lortu dena aurten eta legealdi honetan. Gogoratu beharra dago aurreko legealdian museoak kolokan zegoela. Orain lan egin behar dugu proiektua indartzeko.

Iaz arazoak izan zenituzten igerilekuak kudeatzen zituen enpresarekin, aurten errepikatutik dira?

Laudiok eta Artziniegak enpresa bera zuten horretarako, baina hemen ez genituen hango arazoak izan (langileen kontratuei lotuta). Hemen gatazkak sortu zituen enpresaren seriotasun faltak eta komunikazio akatsak, bai Udalarekin, zein langileekin, zein erabiltzaileekin.

Hori guztia jarri genuen mahai gainean eta aurten ez dira gertatu. Horrez gain, langileen kontratuak eta Gizarte Segurantzako kuotak erakustea eskatu genien eta horrela egin zuten. Ez dugu kexarik jaso.

Hiri Antolamendurako Plan Orokorraren eguneraketa ere abiatu duzue.

Bai, abenduan izan da lehen bilerari herritarrekin eta erredakzioa esleitu dugu. Orain badakigu urteak iraungo dituela prozesuak.

Dena den, nik aipatuko nuke Foru Planeko obrak amaitu ditugula eta ahalegina egin dugula baso bideak berreskuratzeko. Batzuk publikoak ziren eta itxita zeuden eta aurten hiru bide ireki ditugu. Horri esker eratzun berdea dugu

Artziniegaren inguruan eta bide publikoak baliatuta egin daiteke. Guretzat hori garrantzitsua da.

Nabarmendu nahi dut lortu dugula URAk bere gain hartzea kolektorea instalatzea Artziniegan, hasieran ez zuen bere gain hartzeko asmorik eta.

Halaber, Udalbiltzarekin elkar-lana izan duzue. Nola baloratzen dituzu eginiko ekimenak?

Alde batetik, bi urteko proiektu oso polita eta berritzailea izan da, gogoz parte hartu genuen. Tamalez, jendeak ez du erantzun. Ekimen euskaldun eta kulturala izan da eta hainbat udalekin par-

“Nabarmendu nahi dut lortu dugula URAk bere gain hartzea kolektorea instalatzea Artziniegan, hasieran ez zuen bere gain hartzeko asmorik eta”

te hartu dugu, Artziniegako izena zabaldua.

Esaterako, bost antzezlan izugarri landuak egin dira, kalitate handikoak, baina herritarren erantzuna etsigarria izan da. Egia da herriko jende euskaldunarentzat egon dela bereziki bideratuta, baina jende horrek ere ez du erantzun. Artziniegako euskaldunek ez badute erantzuten, zerbaitetan egin dugu kale. Agian, jarduera gehiegi izan ditugu aurten. Izan liteke eskaintza zabalegia izatea, edo hausnartu behar da eskaintzen dugunari buruz. Baloratu behar da gizarteak zerbait eskatzen duen edo ematen diogun.



Artziniegak erritmoa berreskuratu dezake EAJrekin

ENCINA CASTRESANA ASTARLOA

EAJ-PNV Artziniegako zinegotzia

Duela urtebete, eta urtekari honetan bertan, kezka azaldu nuen Joseba Vivanco buru duen Gobernu taldea garatzen ari zen udal kudeaketagatik. Legealdia amaitzeko hilabete batzuk falta direnean, lau urte galduko ditugula deitoratu eta ohartarazi behar dut. Artziniegak lau urteko bilakaera eta hobekuntza galduko ditu herri bezala, EH Bilduren ezintasun politikoaren ondorioz. Kudeaketa txar horren adibide asko aipa ditzakegu, hala nola udal igerilekuak konpontzeko luzapen ugariak, Kultur eraberritzea hasi gabe eta aurreikusitako jarduerak eta ikastaroak egiteko espazio alternatiborik gabe, edo Gaztelekuaren irekiera atzeratzea, "zerbitzua berriro lizitatu gabe zegoelako", aurreko enpresarekin kontratua ekainean amaitu ondoren, ahaztu gabe gure herriaren garbitasun falta edo udal kudeaketan esku hartzeko eragozpenak. EAJ-PNV Artziniegatik salatu dugu, hilabeterik hilabete, 2019az geroztik Udala, EH Bilduren eskuetan, jasaten ari den planifikazio falta eta kaosa. Azaroan, EH Bilduk duen udalbatzako gehiengoak EAJ-PNVren eta PPren kontrako botoekin erabaki zuen udalerrian OHZ 0,24tik 0,27ra igotzea, Orain, etxeko ekonomian prezioen igoera hain nabarmena denez, gure ezinegona adierazten dugu herrian zergak igotzeari dagokionez. Izan ere, etxebizitza asko ez dira hilabete amaierara iristen. Aurten EAJ-PNV Artziniegak entzute aktiboko prozesu bat egin du 'Entzunez Eraiki' izenpean. Jasotako ideia eta proposamen ugariak datorren urteko gure hauteskunde-kanpainan sartuko ditugu, ziur bai-kaude beste Artziniega bat posible dela. Elkarrekin lortuko dugu Artziniegak ia lau urteko immobilismo, inprobisazio eta, batez ere, gobernu ezaren erritmoa berreskuratzea!

AIARALDEA



KOMUNIKABIDE
FAKTORIA

AIARALDEA Twitch-en



ZUZENEKO EMISIOAK ASTERO:

ELKARRIZKETAK,
MAHAI-INGURUAK,
MUSIKA EMANALDIAK...
ETA ASKOZ GEHIAGO!



www.twitch.tv/aiaraldea
IKUSI, HARPIDETU ETA ZABALDU!



KUTXABANK EUSKARALDIAREKIN HITZEZ EKITEKO GARAIA

Euskaraz egunero
2022ko azaroaren 18tik, abenduaren 2ra

HEMENDIK.

